

# Fruiztarrak Berbetan

Jon Uriarte Garai

Jon Uriarte Garai

Fruiztarrak berbetan



FRUIZKO  
UDALA



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Kultura Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia  
Departamento de Cultura



FRUIZKO UDALA

Jon Uriarte Garai  
FRUIZTARRAKBERBETAN



JON URIARTE GARAI

# FRUIZTARRAK BERBETAN



**FRUIZKO  
UDALA**



■  
Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Kultura Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia  
Departamento de Cultura



**FRUIZEN, 2003KO ZEMENDIAREN 25EAN**

© EGILEARENA: Jon Uriarte Garai  
© Argitaraldi honena: Fruizko Udala - Eusko Jaurlaritza - Bizkaiko Foru Aldundia

Koordinatzailea: EMB

Fotokonposizioa: Flash Composition, S.L.  
Errekalde zumarkalea, 6 - 48009 BILBAO

Imprimategia: Flash Impresión, S.L.  
Entrecanales kalea, 8 - 1. -48002 BILBAO

ISBN: 84-606-3567-8  
Lege Gordailua: BI-548-04

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea .....	7
Alkatearen agurra .....	9
0. Sarrera .....	11
0.1. Transkripzinoak .....	12
0.2. Barri-emoleak .....	13
1. Bokalak .....	15
2. Fonologia .....	19
2.1. Prozesu fonologiko nagusiak .....	19
2.1.1. Bokalenak .....	19
2.1.2. Kontsonanteenak .....	20
2.2. Azentua .....	23
2.2.1. Azentuaren balioa .....	23
2.2.2. Azentuaren ezaugarri nagusiak .....	24
2.2.3. Deklinabide atzizkiak .....	31
2.2.4. Eratorbiderako atzizkiak .....	32
2.3. Entonazinoa .....	34
2.3.1. Galdegai lehenego sintagma danean .....	34
2.3.2. Galdegai bigarren sintagma danean .....	35
2.3.3. Galdegai hirugarren sintagma danean .....	35
2.3.4. Aditza bera galdegai danean .....	36
3. Morfologia .....	37
3.1. Deklinabidea .....	37
3.1.1. Paradigmak .....	37
3.1.2. Izen-adjetiboak .....	39
3.1.3. Pertsona izenordain arruntak eta euren forma indartuak ..	45
3.1.4. Izenordain zehaztubakoak: galdetzaileak .....	48
3.1.5. Erakusleak .....	50
3.1.6. Zenbatzaileak .....	55
3.1.7. Deklinabide kasuen azterketa .....	57

3.1.8. Erakusleen azterketa .....	76
3.1.9. Zenbatzaileen azterketa .....	78
3.1.10. Izenordainen azterketa .....	81
3.2. Aditza .....	83
3.2.1. Indikatiboa .....	84
3.2.2. Baldintza eta ondorioa .....	115
3.2.3. Subjuntiboa .....	129
3.2.4. Ahalera .....	131
3.2.5. Aginte era .....	136
4. Sintaxia .....	140
4.1. Alkarkidetzeta edo koordinazioa .....	140
4.1.1. Juxtaposizioa .....	140
4.1.2. Juntagailuakaz .....	140
4.2. Menderakuntza .....	145
4.2.1. Konpletiboak .....	145
4.2.2. Erlatibozkoak .....	150
4.2.3. Baldintzazkoak .....	154
4.2.4. Kontzesiboak .....	156
4.2.5. Zergaitzikoak .....	157
4.2.6. Denporazkoak .....	158
4.2.7. Moduzkoak .....	160
4.2.8. Helburuzkoak .....	163
4.2.9. Konparatiboak .....	164
5. Lexikoa .....	167
6. Testuak .....	197

## HITZAURREA



hore handia dut, Jon Andoni Uriarte Garai hizkuntzalari dokto-reak egindako lan eskerga honi hitzaurrea egiteko, gure herriaren gomutak bizirik irauteko duen balioagatik, besteak beste.

Jon Andoni Uriarteren lan honen barruan argi ageri dira beraren alderdi guztiak, bai eta beraietarik bakoitzaren eragina ere: horretara, bada, beraren hizkuntzalari heziketa gailen ageri zaigu lan honen ikuspegi teknikitik, batez ere, fonologian egindako lanaren fruitua, bai eta pedagogia-ren ikusmira ere, lana antolatzeke izan duen artagatik. Eta gauza guztien gaintetik, beraren beste lan batzuk gogoan hartuta, hizkuntza gauzak esateko modua baino gehitxoago dela inoiz baino garbiago azaltzen da.

Izan ere, gaur egun, geroago eta gehiago entzuten da hizkuntzak komunikatzeko tresnak soil-soilik direla, bada, liburu honetan frogatzen da hori horrela ez dela. Ez dut jardungo zer dagoen aurretik, mundu-ikuspegia edo hizkuntza, edo zerk zeri eragiten dion, hizkuntzak mundu-ikuspegiari, edo mundu-ikuspegiak hizkuntzari. Betiere, garbi ageri da, hizkuntzaren moldeak eta mundu ikuspegiak elkarrekin zerikusia dutela, eta hori ikusten dugu kultura eta hizkuntza guztietan.

Horretara, bada, kulturak eta hizkuntzak elkarren lotura estua dute, eta hizkuntzak kulturari eusten dio, berau belaunez belaun igarotzeko, bai eta bestela ere. Hori dela eta, geroago eta ardura handiagoarekin hartu behar-ko genuke mundu globalizatu honetan gu bezain txikiak diren herriek pairatzen duten etengabeko eragina, ezik hemen ez dago elkarren eraginik, hemen leku jakin batetik besterako etengabeko eraginaz dihardugu, hori gustukoa izan edo ez.

Horregatik, liburu honetan ageri diren ohitura edo ekanduak, tresna edo lanabesak, esaera edo esakuneak eta abar, zerbait badira, kultura jakin baten barruan daudelako dira; hortik at ez lirateke ezer izango. Euskaraz, lehendik dagoen zerizanari izen bat ipintzen badiogu, gogoan izan behar dugu beti zer dioen euskal atsotitz zaharrak: «Bada izena duen guztia». Eta izena ez da berez, izena da, beste batzuen ondoan dagoelako, bere heda-

dura mugatuaz eta, aldi berean, eta horregatik, batzuen eta besteen esangurak zehaztuz.

Hori guztia hizkuntz ikuspegitik harantzago doa, eta herri baten, Fruizen (eta Euskadiren), eitea doa moldatzen belaunez belaun, andrazkoz andrazko, eta gizonezkoz gizonezko. Eta gaur egun Fruiz honelakoxea bada, aurreko guztiei esker da gaur egun dena, eta bihar izango dena gaur-gaurkoei esker izango da. Horrek etengabeko katea dakar aurrekoengandik atzekoengana; mundua ulertzeko modu jakin bat dakar horrek, bai hizkuntzaren eremuan, bai eta ekanduenean ere, eta ohiturak, lanabesak, jantziak eta enparauko guztiak aldatzen direnean, gogan hartu behar dugu, hori baino gehitxoago eraldatzen ari dela.

Aldaketak aldaketa, itxuraldaketak itxuraldaketa, guk geuk izan behar dugu beti geure oraingoaren jabe, eta modu horretara bakarrik izan ahalko dute gure seme-alabek eta beste atzekoek etorkizunaren jabe, alegia, euren oraingoaren jabe. Euskaldunok beti hartzen izan dizkiegu alboetako herriei euren aurreramenduak, euren gauza onak, euren tresna onuragarriak... aldi berean, ostera, irentsi baino gehiago egin ditugu haiek, eta geure moldera ekarri ditugu beraiek, hala izenez, nola erabileraz, eta horrexek eman digu bide euskaldunoi, bizirik irauteko XXI. gizaldiaren hasieran gaudela. Adituek diotenez, zibilizazioen gaur egungo ezkutoki nagusia da Euskal Herriak irautea.

Iraganak erakutsi digu zelan jokatu behar dugun, bada, aurrerantzean ere, guk geuk erakutsi behar diegu geure atzekoei zelan jokatu behar duten, herri honek iraun dezan bihar-etzi ere bai. Aurreramenduak ondo daude, albo-herriek erakusten diguten aitzinamendua geure egin behar dugu, horrela guk herri legez aurrera egiteko balio badigu. Betiere, ahalegina egin behar dugu, kopiatzaile hutsak ez izateko, etorkizunean Fruiz, eguneratuta eta betiko izaerarekin, eta Euskadi, azken aurreramenduen jabe eta betiko izaerari deusola, izan daitezten mundu zabalean.

Hitzaurre hau erabili nahiko nuke, zorionak eta eskerrak emateko Fruizko Udalari, ikuspegi zabala izan duelako, lan horri ekiteko, bai eta Fruizko herriari berari eta beraren herrikide guztiei, eurak barik hau ezinezko izango baitzen. Izan ere, herri aginteok zaindu behar dugu geure gomuta, hurrengo belaunek betiko bidetik jarrai dezaten, hori baita geure ondarearen zatirik garrantzitsuenetakoa.

Lan honek helburu hori jadesten lagunduko ahal du!

Gotzon Lobera Revilla  
Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia

## AURKEZPENA

**L**san ohi danez eta, izan be holantxe da, hizkuntza da, eta gure kasuan euskerea, herri baten arima. Era berean, eta euskereari jagokonez, zera be badaukogu: Euskal Herriko bazter eta txoko bakoitzak bere-bereak dauzan berezitasunak eta berba egiteko erak daukozala. Sasoi batean hori guztiori ahoz aho transmitidu izan da gure arbasoen artean; gaur egun, ostera, arrazoi bategaitik edo beste bategaitik, hori galtzen-galtzen joan da. Halanda be, pozzgarria da jakitea «Fruiztarrak berbetan» lanari esker, geure-geureak diran altxor txiki horreek ondo gordeta eta babestuta daukoguzala. Izan be, «Fruiztarrak berbetan» liburua gure antxinakoen ohitura, kanta zahar, berbakera, bizikera eta hamaikatxo esakunereren espilurik argiena da. Eta, teknologiaren aurrerapenari esker, «Fruiztarrak berbetan» irakurri ezeze CD-Romean entzuteko aukerea be badaukogu.

Amaituteko, Fruizko Udalaren eta neure izenean eskerrak emon gura deutzodaz egileari, Jon Uriarteri, lan eder honengaitik. Baita liburu honek argia ikusi daian lagundu daben erakundeei be.

Ongi etorria izan daitela, «Fruiztarrak berbetan».

Jose Luis Elgezabal Orbe  
Fruizko Udaleko alkatea

Iretargidzek argi eitten deu  
Zeru añolan bakarrik  
zazpi aingeru altzian dittu  
zortzigarrena makalik

Zazpi mediku ekarri deutsez  
bakotxa bere herritik  
zazpirak bere ez deutse igerri  
zer dauan geixo horri

Zortzigarrena ekarri deutse  
Indidxe-Madrilletatik  
zortzigarrenak igerri deutso  
atien sartu ein barik

Ni geur arratsean hilgo naz eta  
etorri nire gorpura,  
nire gorpura zatozenian  
igongo dozu korura

Handixik bera bajeko zara  
Birjina amaren hortura  
han hartuko zuz, han hartuko zuz  
zazpi larrosa eskura

Zazpi larrosa eskura eta  
zortzigarrena mosura  
Zeruko Jaunak pentsau ez daidxen  
nire lutua dozula

Katalin Sagastiri jaso 1982an. Goian bego.

## 0. SARRERA

**H**arro egoteko motiboa da niretzat esku artean daukazun liburutxu hau zuri aurkeztu ahal izatea. Beharra be izan da baina aberasgarria be bai. Betirik gustau izan jat neure herriko berbeta-klasea, ez gure herrikoa dalako espadaze neurea dalako, eta neurea izan baino arinago, neure aurretik fruitzar izan diran guztiena be izan dalako. Horregaitik diñot, hain zuzen be, pozteko arrazoia dala niretzat.

Ez nago seguru egin dodan behar hau barrian egin beharra baneuko barni-bardin egingo neukean ala ez; beharbada ez. Arlo batzuetan askoz gehiago sakondu leiteke; beste puntu batzuk, ostera, aitatu bakarrik edo aitatu barik itxita be ez litzake ezer pasauko. Dana dala, eginikoa eginda dago eta konformau egin behar.

Honen antzeko ahaleginak asko egin izan dira orain artean. Gure alboherrietan egin diranak ikustea besterik ez dago: Mungian, Fikan, Meñakan, Arrietan... Leku askotan. Iñaki Gaminde izan da honeitako gehienak egin dituana eta Arrietarako egin dauan horretan diñoan moduan, arrietarrek esaten ei dabe Fruizen eta Arrietan euskera bardina egiten dala. Ez dabiz, ez, guztiz erratuta. Herri bi honeitako berbetek sano diferentzi gitxi dauke. Zer dala-eta egin dot, orduan, liburu hau antzerako gaia lantzen daben beste batzuk badagoz? Hauxe izan da nire kezka nagusietariko bat lan hau hasi aurretik. Eta, ez pentsau burukomin txikia izan danik. Baina, arazoak ararazo, lanari ekitea erabagi dot, orain arteko lanetan agertuniko arlo batzuk neure honetan be sartu dodazalarik eta barriak diran beste batzuk sartzeko ahelegina be eginaz.

Beraz, nire asmoa Fruizen egiten dan euskera eredu ahalik eta zehatzten eta modurik errezenean agertzea izan da. Honetarako, ondorengo atalak azaladu dodaz:

Lehenengo eta behin, gure herrian ahoskatzen doguzan bost bokalak zelangoak diran azaldu dot, bide batez beste herri batzuetakoakaz konparatuz.

Bigarrenik, fonologia ikutzen da, beronen barruan prozesu fonologikoak, azentua eta entonazioa aztertu dodazalarik. Lehenengoan, gure euskeran emoten diran prozesu behinenak imini dodaz: umea>umie, ez

noa>enoa... Ondoren, azentu ereduaren oinarrizko azalpenak datoz eta, atal hau amaitzeko, esaldi enuntziatiboen eta itauneko enonazioaren ganeko ezaugarri nagusiak aurkituko doguz.

Hirugarren atalean morfosintaxia izan dot aztergai. Atal honen barruan deklinabidea eta aditza landu dodaz. Lehenengoari jagokonez, izen-adjeti-boen, izenordainen, erakusleen eta zenbatzaileen deklinabidea aztertu da, daukezan berezitasunak eta bitxikeriak be aitatu. Aditzaren arloan, Fruizen batu ahal izan dodazan adizki guztien taulak imini dira. Jakitun naz arlo honetan nik batuniko formak ez dirala Fruizen ezagutzen diran danak, sano gatxa da-eta barri-emoleek buruan dauken guztia ebokatzea eta gehiago honino aditz laguntzailea bada ebokatu gura doguna. Dana dala, uste dot aditz-moltzo zabala eta esanguratsua batu dodala.

Laugarren kapituloan sintaxia landu da. Bertan, esaldien alkarketa ikusiko da gehien bat, esaldi koordinatu eta menpekoen inbentarioa eta sailkapena egiten dalarik.

Seigarren kapituloan lexikoa azaltzen da. Bertan, ia 1600 berba edo berba-talde emoten dira, alboan euren esangura erderaz azalduta daukela. Lexikoi honetan ez dira berba arruntak agertzen gure inguru guztian erdi bardinak diralako eta ganera Gamindek bere **berbarik berba** sailean zabalago eta sakonago aztertuta daukazalako. Beraz, nonork gai hau sakonago ikusi gura izango baleu **Arrieta berbarik berba** liburua aztertzea besterik ez dauka, bertan agertzen dan lexikoa gurearen antzekoa da-eta.

Liburutxu honen azken atalean herritarren ahorik arako testuak imini dira. Gai desbardinak agertzen dira eurretan: gerratea, sineskerak, langintzak, gertaera barregarriak... Testu honeitako batzuk ganera, liburu honegaz batera doan CD baten entzun egin ahal izango dira, hurrengo belau-naldiek euren aurretik fruitar izandakoen berbeta-moduaren lekukotasuna izan dagien.

## 0.1. TRANSKRIPZINOAK

Liburu honetan herriko berbeta-ereduak dauka protagonismo nagusia eta, ondorioz, adibide ugari ikusiko dogu berton, komatxo (") artean adierazirik.

Idazkera literarioa eta ahoskera ez dira gehienetan bat etorten eta, beraz, herriko berbetaren benetako ahoskera idatzirik emon gura danean, zelango edo halango transkripzino eredu bat aukeratu behar da. Behar honetarako, transkripzino ortografikoa deitzen dana aukeratu dot, linguistika arloan jakituna ez danarentzat ulertzeko errezena dalako, nahiz eta ostantzeko transkripzino-klase batzuek dauken zehaztasun mailarik ez izan.

Beraz, liburu honetan aurkituko dozuzan Fruizko euskeraren ereduak transkribitzeko erabili dodazan erizpide nagusiak honeik dira:

- Mendebalde guztian ez dira ahoskeran «ts» eta «tz» bereizten. Guk, danak ahoskatzen doguz «tz» moduan. Ondorioz, hemengo transkripzioetan ez dozu «ts» bat bera be topauko. Adib.: «gorputze» (gorputza), «erakutzi» (erakutsi), «atza» (hatsa), «baltza» (baltza)...

- «s» eta «z» fonemei jagokenez, beste hainbeste esan behar da. Mendebalde osoan ez da «z» ahoskatzen eta, beraz, hemengo transkripzioetan «s» bakarrik agertuko da. Adib.: «asurre» (hazurra), «astu» (ahaztu), «es» (ez), «gosie» (gosea)...

- Sabaiko «ll», «ñ» eta «y» euren ohiko balioagaz dagoz hemen. Adib.: «olloa» (oiloa), «alegiñe» (ahalegina), «arratoye» (arratoia)...

- Sabaikoakaz jarraituz «tt» eta «dd» daukaguz. Aurretik joaken «i» bokal baten eraginagaitik sortzen dira biak be. Adib.: «politte» (polita), «eiñdde» (eginda), «itto» (ito), «seiñdde» (zeinda)...

- Sabaiko beste fonema esanguratsu bat be badaukagu Fruizko euskeran, mendebalderago dagozan herrietako hizkeragaz apur bat bereizten gaituena eta, artikulua ezartzerakoan gertatzen dan asimilazioari jagokenez behintzat, -ez berbaren hasierakoan- Busturialdeko berbeta-ereduagaz kidetzen gaituena: «dx». Fonema hau honako berbetan aurkitu ahal izango dogu: «erridxe» (herria), «astidxe» (astia), «balidxo» (balio), «dxoan» (joan), «dxaidxo» (jaio)...

## 0.2. BARRI-EMOLEAK

Ez neuke sarrera hau amaitu gura liburu honen benetako protagonistak aitatu barik: barri-emoleak. Fruiztar danak izan dira nire barri-emole, herri txikia izanik ia-ia bertako guztiekaz egin dodalako nozonoz berba. Eta nire belarriak beti egon dira erne bakotxaren berbetaren berezitasunak gogoan hartzeko orduan. Baina herritar guztiengandik zeozer ikasi badot be, lan hau egiteko orduan batzuk euren denpora librea eskeini ez eze etxeko atear be zabal-zabalik euki dabez nire ikasi-gurea asetzeko orduan. Batzuk, zoritxarrez, joan ziren mundutik baina ez gure oroitzapenetik. Balio dagiala lan honek, apurtxu bat baino ez bada be, euren izena eta izana gogoratu daiguzan. Guzti-guztiei, joan zirenei eta gugaz dagozanei, eskerrik asko bihotz-bihotzez:


- 1.- Karmen Sagasti Hormaetxe, 1928. urtean jaioa.
- 2.- Juan Uriarte Agirre, 1927. urtean jaioa.
- 3.- Brijida Galdona Bilbao, 1916. urtean jaioa.
- 4.- Juli Uriarte Otazua, 1916. urtean jaioa.

- 5.– Juan Uriarte Legarretaetxebarria, 1928. urtean jaioa.
- 6.– Timoteo Larragan Legarretaetxebarria, 1926. urtean jaioa.
- 7.– Eusebio Larragan Legarretaetxebarria, 1922. urtean jaioa. Goian bego.
- 8.– Emeteri Garai Lauzirika, 1926. urtean jaioa.
- 9.– Bartolo Sagasti Hormaetxe, 1914. urtean jaioa.
- 10.– Juanita Mallona Llona, 1913. urtean jaioa.
- 11.– Martzelin Lekerika Goirizelaia, 1911. urtean jaioa.
- 12.– Juli Sagasti Hormaetxe, 1917. urtean jaioa.
- 13.– Santa Garai Pinuaga, 1911. urtean jaioa.
- 14.– Braulia Hormaetxe Gerekaetxebarria, 1915. urtean jaioa.
- 15.– Angel Uriarte Rementería, 1925. urtean jaioa.
- 16.– Nikolasa Astorkiza Legarreta-Etxebarria, 1921. urtean jaioa.
- 17.– Dionisio Gangoiti Llona, 1911. urtean jaioa.
- 18.– Kandido Lotina Torre, 1911. urtean jaioa. Goian bego.
- 19.– Alejandro Legarreta Uriarte, 1918. urtean jaioa.
- 20.– Jesusa Legarreta Batiz, 1916. urtean jaioa.
- 21.– Patxo Mandaluniz Isasi, 1915. urtean jaioa. Goian bego.
- 22.– Andres Gangoiti Elorriaga, 1931. urtean jaioa.
- 23.– Migel Etxebarria Basterretxea, 1920. urtean jaioa.
- 24.– Mikaela Muruaga Oar, 1906. urtean jaioa. Goian bego.
- 25.– Maria Andikoetxea Uriarte, 1913. urtean jaioa. Goian bego.
- 26.– Pili Legarreta Goikoetxea, 1910. urtean jaioa. Goian bego.
- 27.– Jospin Galdona Bilbao, 1919. urtean jaioa.
- 28.– Luis Uriarte Legarretaetxebarria, 1927. urtean jaioa. Goian bego.
- 29.– Juanita Lekerika Goirizelaia, 1914. urtean jaioa. Goian bego.
- 30.– Julian Hormaetxe Gerekaetxebarria, 1906. urtean jaioa. Goian bego.
- 31.– Felipe Uriarte Astoreka, 1910. urtean jaioa. Goian bego.
- 32.– Marta Hormaetxe Gerekaetxebarria, 1904. urtean jaioa. Goian bego.
- 33.– Emeteri Uriarte Bilbao, 1920. urtean jaioa.
- 34.– Maria Galdona Bilbao, 1928. urtean jaioa.
- 35.– Jose Uriarte Bilbao, 1905. Urtean jaioa. Goian bego.
- 36.– Anastasio Larragan Madariaga, 1911. urtean jaioa. Goian bego.
- 37.– Kruz Uriarte Isasi, 1922. urtean jaioa.
- 38.– Julian Uriarte Agirre, 1923. urtean jaioa.
- 39.– Luzio Mallona, 1929. urtean jaioa.
- 40.– Anastasio Garai Lauzirika, 1928. urtean jaioa.
- 41.– Maria Garai Lauzirika, 1930. urtean jaioa.

## 1. BOKALAK


Fruizen, Euskal Herriko leku gehienetan lez Zuberoa partean kenduta, bost bokal ahoskatzen doguz. Hau ez da ezelango nobedaderik inorentzat. Edozelan be, ezin esan lei euskalki guztietako bokalak bardin-bardinak diranik; hau da, Fruizen ahoskatzen dogun «a» bokala eta, esate baterako, Gatican ahoskatzen dana bardinak dirala esan ete lei? Itauñ honeri behar dan moduan erantzuteko azterketa asko egin beharko da aurrerantzean eta, zelan ez, Fruizen egin dogun hau be kontutan hartu beharko da.

Aitatu doguzan bost bokalok erizpide biren arabera sailkatzen dira. Alde batetik, **non** artikulatzen diran daukagu eta, bestetik, **zelan** artikulatzen diran. Artikulatze-lekuari jagokonez, bokalak aurrekoak, erdikoak edo atzekoak izan leiz, ahoaren barruko aldea aurea dalarik eta ezpan ingurua atzea; artikulatzeko moduari begiratuta altuak, erdikoak eta baxuak izango dira, bokala ahoskaterakoan mina baxu, erdi parean ala goian dagoan aztertzen da-eta. Beraz, erizpide honeik biak kontutan hartuta urtetan dauan triangulu artikulatorioa azpiko hauxe da:




Goian ikusten dan irudian bene-benetako triangulua osotzen dabe bokalak baina eguneroko berbeta aztertu ostean sotzen diranak ez dira hain perfektoak izaten, laster ikusiko dogun moduan.

Eta gehiagoko barik Fruizko berbetaren bokalak osotzen daben triangulua jarriko dogu azpian:




Edozein modutan be, Fruizko triangulua hemen iminteak ez dauka benetako baliorik beste euskalki batzuetako trianguluakaz alderatzen ez bada eta hauxe da, hain zuzen, egingo doguna: Fruizko triangulu akustikoa Baztanekoagaz, Zeberikoagaz, Zaldibiakoagaz, Urdulizekoagaz, Gatikakoagaz eta Basaurikoagaz konparatuko dogu honeitako baktxagaz grafiko berean iminita:


**a) Fruizko eta Baztaneko triangulu akustikoak**




**b) Fruizkoa eta Zeberikoa**




c) Fruizkoa eta Zaldibiakoa




d) Fruizkoa eta Urdulizkoa



**e) Fruizkoa eta Gatikakoa**



**f) Fruizkoa eta Basaurikoa**



## 2. FONOLOGIA

### 2.1. PROZESU FONOLOGIKO NAGUSIAK

Atal honetan Fruizko euskeran emoten diran aldaketa edo berezitasun fonologiko nagusiak agertuko dira, adibide batzukaz lagunduta. Zer dira, izatez, prozesu fonologikoak? Errekako harriak, ibiliaren ibiliaz biribildu eta antzaldatu egiten diran modu berean, hizkuntza bateko berbak be aldatu egiten dira urteak joan ahala eta belaunaldi batzuetatik hurrengoe-tara igarotzean. Hau hizkuntza danatan gertatzen da baina oraintsu arte eredu estandarra euki ez dauan hizkuntza baten, oraindino gehiago. Hauxe da euskeraren kasua, hain zuzen be. Beraz, hurrengo lerrootan fruiztarren gaur egungo berbetan emoten diran berezitasun fonologiko nagusiak egertuko dira:

#### 2.1.1. Bokalenak

##### DIPTONGOEN MONOPTONGAZIOA

###### **/au/ > /u/, /o/**

«arrutzie»	(arraultza)
«esupidie»	(ezagupidea)
«iñtxurre»	(intxaurra)
«belune»	(belauna)
«arpidxe»	(aurpegia)
«esetu»	(ezagutu)
«iruli»	(irauli)
«garune»	(garauna)
«arrosidxe»	(aharrausia)

###### **/eu/ > /e/, /o/**

«bostun»	(bostehun)
«dere»	(deude, dute)
«neskidxo»	(neuskio)
«dosku»	(deusku)

###### **/ai/ > /i/**

«gittus»	(gaitu)
«sittue»	(zaitue)
«usiñe»	(usaina)

###### **/ei/ > /i/**

«i»	(ei, bide, omen)
-----	------------------

«berinketu» (bedeinkatu)  
«arpi» (aurpei < aurpegi)

### ASIMILAZIOA

**/aa/ > /ie/**

«alabie» (alaba)  
«gonie» (gona)  
«modie» (moda)

**/ea/ > /ie/**

«semie» (semea)  
«umie» (umea)  
«urtie» (urtea)  
«bietza» (behatza)

**/ia/ > /idxe/**

«erridxe» (herria)  
«ogidxe» (ogia)  
«gurdidxe» (gurdia)

**/io/ > /idxo/**

«balidxo» (balio)  
«leidxo» (leio)  
«dxaidxo» (jaio)

**/ua/ > /ue/**

«karue» (karua)  
«barrue» (barrua)  
«sue» (sua)

### 2.1.2. *Kontsonanteenak*

**/k + p/ > /p/**

«supasesu» (zuk pase dozu)  
«nipentzedot» (nik pentse dot)

**/k + b/ > /p/**

«supes» (zuk bez)  
«nipidekotes» (nik bi dekotez)

**/k + d/ > /t/**

«nitekot» (nik dekot)  
«amatiño» (amak diño)

**/k + g/ > /k/**

«bakarrikkaus» (bakarrik gagoz)  
«nortzukoas?» (nortzuk goaz?)

**/k + s/ > /s/**

«niserdakitt» (nik zer dakit)  
«orresuges dxango deu» (horrek zugaz jango dau)

**/k + dx/ > /tx/**

«neutxosidot» (neuk josi dot)  
«astoatxandeu» (astoak jan dau)

**/k + l/ > /l/**

«orrelardaki» (horrek lar daki)  
«sulaprast einsu» (zuk laprast egin dozu)

**/k + n/ > /n/**

«sunoraño» (zuk noraino)  
«bakarrinoa» (bakarrik noa)

**/t + p/ > /p/**

«estopaseu» (ez dot paseu)  
«estekopolitte» (ez dekot polita!)

**/t + b/ > /p/**

«estekopa» (ez dekot ba!)  
«bapes» (bat bez)

**/t + d/ > /t/**

«badekotirue» (badekot dirua)  
«neutiñotana» (neuk diñot dana)

**/t + g/ > /k/**

«bakara» (bat gara)  
«estokure» (ez dot gura)

**/t + s/ > /s/**

«txakur andi basan» (txakur handi bat zan)

«estekosureles» (ez dekot zure lez)

**/t + dx/ > /tx/**

«batxan» (bat jan)

«estotxosi» (ez dot josi)

**/t + l/ > /l/**

«balarda» (bat lar da)

«estoligeu» (ez dot ligau)

**/t + n/ > /n/**

«estekonongorde» (ez dekot non gorde)

«estiñonora» (ez diñot nora)

**/tz/ > /s/**

«garras dau» (garratz dago)

«sasbarik» (sats barik)

**/l/, /n/, /s/ > Ø**

«asaluse» (azal luze)

«astoanator» (astoan nator)

«eskusartu» (eskuz sartu)

**/n/ > /ñ/**

«alegiñe» (ahalegina)

«oñes» (oinez)

**/l/ > /ll/**

«olloa» (oiloa)

«biribille» (biribila)

**/t/ > /tt/**

«politte» (polita)

«aittitte» (aitita)

**/d/ > /dd/**

«illdde» (hida)

«eiñddosku» (egin deusku)

**/s/ > /x/**

«gixona» (gizona)

«ixena» (izena)

**Aditz partizipioen amaierako -i > Ø**

«etorda» (etorri da)

«ikusdeu» (ikusi dau)

«igerkosu» (igarriko dozu)

**/es + g/ > /es + k/**

«eskoas» (ez goaz)

«eskara» (ez gara)

**/es + d/ > /es + t/**

«estabill» > (ez dabil)

«estoa» (ez doa)

**/es + n/ > /e + n/**

«enoa» (ez noa)

«enabill» (ez nabil)

**/es + l/ > /e + l/**

«eleke engo» (ez leuke egingo)

«elidxo esan» (ez leio esan)

**/es + s/ > /es + Ø/**

«esan etorri» (ez zan etorri)

«esabix ondo» (ez zabilz ondo)

**/g/ > Ø**

«dau» (dago)

«lierra» (legarra)

«eiñ» (egin)

## 2.2. AZENTUA

### 2.2.1. Azentuaren Balioa

Fruizko azentuak balio funtzionala daukala esan lei, azentuagaitik bera-gaitik bakarrik bereizten dira-eta hitz bikote batzuk. Alde batetik, numeroa

bereizteko balio deusku azentuak; plurala adiazoteko azentuaren posizioa aurreratu egiten da. Hona hemen adibide batzuk:

- «ori **onék** esan deu» (hori honek esan dau)
- «ori **ónek** esan dere» (hori honeik esan dabe)

- «**barrídxék** esteko» (barriak ez dauka)
- «**barrídxek** estekie» (barriek ez dauke)

- «sagar **ustélák** euki deu» (sagar ustelak euki dau)
- «sagar **ustélak** euki dere» (sagar ustelak euki dabe)

Beste alde batetik, azentuagaitik bakarrik bereizten diran berba pareak daukaguz. Hona hemen batzuen zerrenda:

- «sáltzie» (el vender) / «saltzié» (salsa)
- «sutén» (furioso-a) / «súten» (en la cocina)
- «arróá» (orgullosa) / «árroa» (arroba)
- «txistúé» (saliba) / «txístue» (chistu)
- «bisídxoa» (lombríz) / «bísídxoa» (vicio)
- «kasúé» (caso) / «kásue» (cazo)
- «ondóá» (sarmiento) / «óndoa» (lado, costado)
- «errémíñttíé» (ermita) / «erremíñttie» (herramienta)
- «astíé» (semana) / «ástie» (el empezar)
- «onéná» (de éste) / «ónena» (el mejor)
- «segúrué» (seguro) / «segúroa» (seguro de coches, p. ej.)
- «kantárióé» (cantera) / «kántarie» (unidad de volumen)
- «salá» (correoso, hombre de fibra) / «sála» (sala)
- «errié» (persona escasa) / «érrie» (letra del alfabeto)

### 2.2.2. Azentuaren Ezaugarri Nagusiak

Izen eta adjetibo gehienak egitura bardina daukie azentuari jagokonez. Lehenengo silabak tonu bajua dauka eta atzeko guztiak tonu altuan dagoz. Esate baterako, «sapárradíé» berbea hartzen badogu, lehenengo silaba tonu bajaran dago, eta beraz, ez deusogu ezelango ikurrik imini; beste guztiak, oster, tonu altuan dagoz. Horrexegaitik imini jake azentuaren ikurra guztiei. Dana dala, belarri bidezko pertzepzinoari kasu egin ezker azentua atzenengo silaban dagoala be esan lei.

Hemen daukazuez, silaba kantidadearen arabera sailkatuta, eredu hau jarraitzen daben berba batzuk:

**Silaba batekoak:**

txarrá	sarrá
uré	oná
sitzé	illé
fiñé	gatzá
putzé	miñé
bitzé	arrá

**Silaba bikoak:**

basóa	arrídxé	idídxé
gastié	txorídxé	barrídxé
katúé	atzóá	ogídxé
berdié	begídxé	astóá
narrúé	larrídxé	egúné
asálá	sorrótzá	txakúrré
illúné	mutillé	lebátzá
papárrá	ugérrá	busténá
edúrré	espáná	sayétzá
sagárrá	sekórrá	gogórrá
apátzá	labúrré	sakóná
odólá	amútzé	gixéná
lagúné	asúrré	buskéntzá
saráná	magálá	akárrá

**Hiru silabakoak:**

alábié	urrúmié	afarídxé
gixédúé	arrábié	ernarídxé
ixérdídxé	bellégídxé	ganádúé
abádié	armósúé	mustrétxié
guntzúrrúné	asátzá	txakolíñé
aldáméná	gixeláná	ormásiñé
txarámélá	txiríntxólá	nabárméná
susúbillé	txiríntxíllé	egárrídxé

**Lau silabakoak:**

dardákádié	egúnséntídxé
eskillárió	sarrástádié
abásúsídxé	sapárrádié
abídxédié	garbíkúsídxé

Edozein modutan be, berba guztiak ez datoz bat hemen goian aitatu dogun ereduagaz. Berba batzuk azentu markatu bat dauke silaba jakin baten. Batzuetan, lehenengo silaba da markatzen dana; honeitan, osteko silaba guztietan tonua bajatu egiten da. Beste batzuetan, bigarren silaba markatzen da eta ondorioz, hirugarren silabatik aurrera dator tonu bajea. Azkenik, berba batzuk hirugarren silaban daukie azentuaren marka eta laugarrenetik aurrera tonua bajatu egiten da.

Esan dogun lez, eredu hau dauken berbak gitxienak dira. Salbuespen dira. Hau dala eta Fruizen esaten diran era honetako berba guztiak batzeko ahalegina egin dogu hurrengo orrietan. Berbok sailkatu egin doguz azentu markatua dauken lekuaren arabera. Lehenengo eta behin azentu markatua lehenengo silaban daukenak iminiko dira; ostean, azentu markatua bigarren silaban daukenak ... etabar. Azentu marka (´) ikurraren bidez adiazoten da. Berba bakotxaren ondoan erdarazko bere esangura be imini da, nahiz eta liburu honen atzeko aldean dagoan hiztegian be esangurok aurkitzeko era izango dozuen.

Hona hemen beste barik zerrendatxua:

**AZENTU MARKATUA 1. SILABAN: A-B-(B...)**

**ábidxie:** Nido.

**áittitte:** Abuelo.

**ákana:** Garrapata.

**ámama:** Abuela.

**ápatxa:** Pezuña.

**árbolie:** Arbol.

**árelie:** Cerda.

**árkoa:** Cerda con crías.

**ármerie:** Cornamenta. Semblante de persona o animal.

**árra:** Palmo.

**árrroa:** Arroba.

**árrrutzie:** Huevo.

**ártxoa:** Cordero/a.

**áskurie:** Rascazón.

**átzie:** Parte trasera.

**bárkue:** Barco.

**bárrie:** Risa.

**básue:** Baso.

**bátzarra:** Reunión.

**bélarridxe:** Oreja.

**bérroa:** Berro (Bot.)

**bértzoa:** Verso.

**béskaridxe:** Comida.

**béstie:** El otro.

**bígie:** Ternera.

**bíraue:** Maldición, blasfemia.

**búrkoa:** Almohada.

**dénporie:** Tiempo.

**dítxie:** Dicha, suerte.

**dómiñe:** Medallón.

**drúngulue:** Plato revuelto de bacalao y algunas especias. (Asko mugitzen diran eta «astokiloak» diran neskei esaten jake)

**égidxe:** Verdad.

**érderie:** Castellano.

**érie:** Modo, momento propicio.

**éskoa:** Húmedo.

**éumie:** Cabrito/a.

**éurberie:** Cuesta abajo.

**éurrie:** Parte delantera.

**éuskerie:** Euskara.

**gálbaie:** Cedazo, criba.

**gángalie:** Versión femenina de gandul.

**gánie:** Gana.

**gánie:** Cima, punta.

**gárie:** Flor de maíz, nabo...

**górtie:** Cuadra.

**górue:** Rueca.

**índdabie:** Alubia.

**íngerue:** Alrededores.

**íntxurre:** Nuez.

**káfie:** Café.

**káltzie:** Canal de agua de los molinos.

**kámarie:** Desván.

- kánpoa:** Exterior.  
**kántarie:** Cántara.  
**káñikie:** Canica.  
**káskue:** Casco.  
**kásue:** Cazo.  
**kókiñe:** Hipo de los niños/as.  
**kókoloa:** Bobalicón.  
**kópue:** Bocado.  
**láidxie:** Laya.  
**lándarie:** Planta.  
**lástidxe:** Granero, pajar.  
**lékue:** Sitio.  
**léngusue:** Primo.  
**líbrue:** Libro.  
**lúkidxe:** Zorro.  
**lúmeroa:** Número.  
**lúrmena:** Espacio de terreno cubierto de agua.  
**máidxe:** Mesa.  
**mállie:** Escalón.  
**mámalie:** Bobalicona.  
**mártzena:** Martes.  
**médikue:** Médico.  
**méndie:** Porción que cobra el molinero por su trabajo.  
**mérittue:** Mérito.  
**míxtoa:** Cerilla.  
**móldie:** Maña, destreza.  
**móltzoa:** Grupo, montón.  
**móndxorra:** Banquete que se da a los obreros después de puesto el tejado a un edificio.  
**mórdie:** Racimo.  
**múrkoa:** Vasija, jarra, cántaro.  
**músikie:** Música.  
**múskerra:** Lagarto.  
**nárdidxe:** Palo que se aplica a la pértiga de la narria para arrastrar piedras, maderas...  
**óllarra:** Gallo.  
**ólloskoa:** Pollo.  
**óperie:** Paciencia.  
**órroie:** Bramido, rugido.  
**órrotza:** Aguja.

**páloe:** Palo.

**pátatie:** Patata.

**pilloa:** Montón.

**pórtie:** Porte.

**rádidxo:** Radio.

**sáldarra:** Divieso. Costra que se forma en la piel a raíz de una enfermedad.

**sároa:** Gesto, mueca o actitud que llama la atención. Llámase «sárotzue» a la persona que por su forma de hablar y gesticular llama la atención.

**sártzaroa:** Vejez.

**séstelie:** Persona poco decidida, insustancial.

**síporra:** Terreno pantanoso donde habitualmente crecen los juncos.

**sórkidxe:** Paño de cocina.

**sótiñe:** Hipo.

**sótoa:** Hoyo.

**súlderra:** Gusanillo que se les cria a algunos animales bajo la piel.

**súndie:** Hedor, olor.

**sústue:** Susto.

**sútie:** Cocina.

**tábikie:** Tabique.

**táloa:** Torta de maíz muy delgada y de forma circular.

**táletue:** Tejado.

**tánkarr:** Bote de lata.

**tárie:** Paliza.

**tíñie:** Tinaja.

**tókidxe:** Lugar en el que habitan los cerdos y las gallinas.

**tútue:** Ano. Culo.

**txábolie:** Choza.

**txíndxorra:** Petirrojo.

**txírpidxe:** Brote del castaño.

**txístue:** Chistu.

**txólie:** Fajo de trigo, cebada...etc

**úkondoa:** Codo.

**úpatza:** Cierta seta fofa que en su interior contiene polvo de color marrón.

**úrdidxe:** Tocino.

**úsaba:** Amo, jefe.

**úsena:** Sanguijuela.

**úskidxe:** Ano.

**ústidxe:** Cierta hierba perjudicial para la agricultura.

## AZENTU MARKATUA 2. SILABAN: B-A-B-(B...)

- adikunie:** Mirada.  
**afrúntue:** Intemperie.  
**albáñie:** Respiración dificultosa.  
**améntala:** Delantal.  
**amúkoa:** Copo de lino.  
**anábakie:** Forraje que se da al ganado.  
**anbúloa:** Nudo.  
**arámoa:** Araña.  
**aríttoa:** Carnero.  
**arkóndarie:** Camisa.  
**arrákalie:** Grieta.  
**arrástidxe:** Tarde.  
**askónarra:** Tejón.  
**baríkue:** Viernes.  
**basérridxe:** Caserío.  
**belákidxe:** Tableta con mango en el centro que sirve para recoger escoria, broza...etc.  
**berákatza:** Ajo.  
**berésidxe:** Jaro.  
**biríkidxe:** Pulmón.  
**burrúntzidxe:** Asador, instrumento de hierro.  
**egúrdatie:** Mañana.  
**egúrdidxe:** Mediodía.  
**egúskidxe:** Sol.  
**egústena:** Miércoles.  
**errékie:** Río.  
**eskólie:** Escuela.  
**goróstidxe:** Acebo (Bot.).  
**illúndidxe:** Anochecer.  
**illúntzidxe:** Anochecer.  
**iñúrridxe:** Hormiga.  
**ipískidxe:** Cierta tipo de escobón que se utiliza para limpiar el horno.  
**ixúrridxe:** Arruga, dobladillo, pliegue.  
**ixérie:** Sábana.  
**kakánarrue:** Pequeñajo.  
**katíllue:** Tazón.  
**kapéridxoa:** Una de las vigas de madera que sustenta el tejado.  
**lapíkoa:** Puchero.

**mallúkidxe:** Fresa.  
**martítzena:** Martes.  
**masústie:** Mora.  
**miséridxe:** Miseria.  
**napárridxe:** Viruela.  
**okárana:** Ciruela.  
**osálie:** Comida de cerdo.  
**otzárie:** Cesta.  
**pekátue:** Pecado.  
**solúbie:** Viga.  
**sapátue:** Sábado.  
**txamíllotxa:** Alionín, pájaro de la especie de los paros.  
**tribúlidxe:** Carro para una o dos personas.  
**unédie:** Zona.

### AZENTU MARKATUA 3. SILABAN: B-B-A-B-(B...)

**aldestáridxo:** Persona insustancial, inútil, sin remango.  
**iñetásidxe:** Granizo.  
**iñoséntie:** Inocente. Tonto.  
**abarkétie:** Alpargata.  
**abiséridxe:** Huevo de madera u otro material que se utiliza como reclamo.  
**erremárie:** Paso para el ganado en los terrenos acotados.  
**enbarásue:** Estorbo.  
**seminttérie:** Seminario.  
**erremíñtie:** Herramienta.  
**estramíñie:** Especie de ventana que comunica la cocina o el pasillo con el pesebre.  
**tejabánie:** Tejabana.

#### 2.2.3. Deklinabide Atzizkiak

Deklinabide atzizkiak aztertzen badoguz hiru eratakoak dagozala ikusi lei azentuari jagokonez. Alde batetik, berbeari tonu bajua ezartzen deutse-  
nak daukaguz, hau da, atzizkiaren lehenengo silabaren aurrean dago azen-  
tua, lexemaren azken silaban hain zuzen. Hona hemen adibideak:

NOGAZ, NOGAIK eta NONDIK atzizki singularrak eta pluralak:

-(G)AS      «lagunégas», «alabiégas», «gixonágas»...  
-AKAS      «gixonakas», «artóakas», «lepóakas»...

- AITTIK «basoáaittik», «mutilléaittik», «aberatzáaittik»...
- AKAITTIK «gixónakaittik», «basóakaittik»...
- TIK «basótik», «lepótik», «etzétik»...
- ATATIK «basóatatik», «asálatatik», «begídxetatik»...

NORK, NORI, NOREN, NORENTZAT, NORENGANA, NON, NORA, NONGO, NORANTZA, NORAINO eta NORAKO atzizki pluralak:

«gixónak», «gixónari», «gixónan», «gixónantzat», «gixónakañe», «solóatan», «solóatara», «solóatako», «solóatarantza», «solóataraño», «solóatarako»...

Beste alde batetik, berbaren melodiari ezelango aldaketarik eragiten ez deuten atzizkiak daukaguz. Oinaren azken silabaren tonu berbera hartzen dabe atzizkiok. Hona hemen adibide gitxi batzuk:

NORK, NORI, NOREN, NORENGANA, NORTZAT, NON, NORA, NONGO, NORAKO ETA PARTITIBOAREN atzizki singularrak:

«gixonák», «gixonarí», «gixonán», «gixonaañé», «gixontzát», «soloán», «solo-rá», «solokó», «solorakó», «solorik»...

Azkenik, hiru atzizki konposatu daukaguz. Honeik, lehenengo silaban bakarrik eusten deutse berbaren edo oinaren doinuari; bigarren silaban tonua bajatu egiten da. Hona hemen adibideak:

NORENTZAT, NORANTZA eta NORAÑO atzizki singularrak:  
«errídxéntzat», «erriréntza», «erriréño»...

#### 2.2.4. Eratorbiderako Atzizkiak

Honeik be hiru sailetan banandu leiz. Alde batetik, berbearen azkenengo silabari tonu bajua ezartzen deutenak daukaguz:

- ALDI «egotáldidxe», «dxatáldidxe»...
- ARO «sártzaroa», «géuaroa»...
- DI/-TI «piñúdidxe», «sagárdidxe», «aréstidxe»...
- DO «ugérdoa», «bixérdoa»...
- ERA/-KERA «sakónerie», «lodídxerie», «dxókerie», «egókerie»...
- GAI/-GEI «emókei», «sálgai»...
- GARREN «sortzígarren», «saspígarren»...
- GURA «bílgurie», «íkúsgurie»...
- KA «sarátaka», «estúlke», «purrustadáka»...
- KI «txarríkídx», «barrúkídx», «andíkídx»...
- KIN «erdíkiñe», «ondákiñe»...
- KO «satárkoa», «sárkoa», «astókoa»...
- KOR/-OR «lótzorra», «sentíorra»...

-KUNE	«adikunie», «esákunie», «bílkunie»...
-KUNTZA	«istúkuntzie», «larrikuntzie»...
-MEN	«gosámena», «lúrmena»...
-NGO	«gorríngo», «suríngo», «potxíngo»...
-PE	«atérpie», «besápíe», «geríxpie»...
-TAR/-AR	«mórgarra», «gerníkarra», «gamíxtarra»...
-TE	«gerrátie», «sikétie»...
-TI	«lótídx», «txixétídx», «gusúrtídx»...
-TOKI	«ollótokídx», «txarrítokídx»...
-TXU	«askótxu», «mutilltxue», «gitxítxu»...
-TZA	«soldadútzie», «abadétzie», «alkatétzie»...
	«garótzie», «bedártzie», «basátzie», «laskintzie»...
-UNE	«atérrunie», «báltzunie», «útzunie»...
-ZALE	«umésalie», «gosósalie»...
-ZTO	«uléstoa», «sorrístoa», «sapástoa», «koipéstoa»...

Bigarrenik, berbaren melodiari ezelango aldaketarik eragiten ez deuten atzizkiak daukaguz:

-ADA	«tarratadié», «saparradié», sarrastadié»...
-ARI	«pekatari dxé», «dxantzarí dxé»...
-BERA	«minperá», «osperá»...
-BIDE	«eskabidié», «aginpidié»...
-DUN	«dxakittuné», «dxatuné», «billttuné»...
-DURIA	«kaskidurí dxé», «garbidurí dxé»...
-EZIA	«tristesí dxé», «flakesí dxé», «pobresí dxé»...
-GA	«inddergá»...
-GARRI	«aspigarrí dxé», «penagarrí dxé»...
-GIN	«biargiñé», «argiñé»...
-KARI	«barrekarí dxé»...
-KERIA	«alperkerí dxé», «txarrikerí dxé», «sorokerí dxé»...
-KIZUN	«eskakixuné»...
-LE	«igerlié», «dxagolié»...
-SKA	«gorrixkié», «baltzuskié»...
-SKIN	«gorriskiñé», «suriskiñé»...
-TASUN	«ixiltasuné», «berotasuné», «garbittasuné»...
-TERIA	«andraterí dxé», «umeterí dxé»...
-TSU	«urtzú», «osasuntzú», «uletzú»...

Azkenik, atzizkiaren bigarren silaban tonu bajua daukenak dagoz:

-KADA	«platerkádié», «besartekádié»...
-ERO	«urtéro», «astéro»...

### 2.3. ENTONAZINOA

Atal honetan, Fruizko berbetaren esaldi enuntziatiboen eta itaunezkoen entonazinoa aztertuko dogu. Ze eratako doinua dauke? Zer pasetan da atzenengo silabaren tonuagaz? Non egoten da esaldiaren tonurik altuena? Holango kezak izango doguz gogoan hurrego orrialdeotan.


Entonazinoaren ganeko datuak emoteko esaldi bat hartuko dogu adibide moduan. Esaldi honen sintagma guztiak hiru silabakoak dira eta sintagmok orden diferenteetan emongo doguz, modu honetara galdegaia be aldatu egingo dogularik. Hauxe da erabiliko dogun esaldi ereduá: «**sagarra saldutzo gixonak amari**»

Esaldi hori enuntziatibo moduan eta itaunezko moduan aztertuko dogu, biei jagokezan irudi melodikoak grafiko bardinean iminiko doguzalarik euren arteko desbardintasunak hobeto ikusteko. Itaunezkoari jagokon melodia berdez dago eta enuntziatiboarena urdinez. Galdegaia markatu egin dogu «fokua» berbeagaz eta bere posizinoa aldatuz joan gara.

#### 2.3.1. Galdegaia lehenego sintagma danean

«sagarra saldutzo gixonak amari»

«sagarra saldutzo gixonak amari»




Ikusten dan moduan, aditzaren aurreko sintagmaren atzenengo silabak dauka esaldi barruko tonurik altuena, hau da, «sagarrá» sintagmaren atzenengo silabak. Beste alde batetik, itaunezko esaldiak goranzko amaiera dauka -azken silaban- eta enuntziatiboak beheranzkoa. Azkenik, itaunezko esaldiko aditzaren bigarren silaba tonu altuagoan dago: «saldútzo» eta ez «saldutzó» enuntziatiboan lez.

### 2.3.2. Galdegaia bigarren sintagma danean

«gixonak sagarra salduzto amari?»

«gixonak sagarra salduzto amari»




Galdegaia bigarren sintagma danean be goian aitatu doguzan ezaugarri guztiak beteten dira: tonurik altuena galdegaiaren azken silabak, itaunezko esaldiaren goranzko amaiera eta itaunezko esaldiaren aditzaren bigarren silabaren tonu igoera.

### 2.3.3. Galdegaia hirugarren sintagma danean

«amari sagarra gixonak salduzto?»

«amari sagarra gixonak salduzto»




Honeitan be ezaugarri antzekoak dagoz, baina aditza bera azkenengo sintagma danez, itaunezkoetan ezinezkoa egiten da aditzaren bigarren silabaren tonu igoera, esaldiaren amaiera hurrengo silaban dagoelako eta goian esan dan moduan itaunezkoen amaierari goranzko tonua jagoke.

### 2.3.4. Aditza bera galdegai danean

«saldutzo sagarra gixonak amari?»

«saldutzo sagarra gixonak amari»



Aurrekoetan aipatu doguzanak aipatu leiz kasu honetan be baina aditza bera galdegai izakeran, enuntziatiboetan aditzaren atzenengo silaba dago tonurik altuenean eta itaunezkoetan, ostera, aditz nagusiaren azkenego silaba -goiko kasu guztietan lez- da tonurik altuena daukana, hau da, aditz osoaren bigarren silaba. Enuntziatiboetan «saldut**z**ó» eta itaunezkoetan «sald**u**tzo».



### 3. MORFOLOGIA

#### 3.1. DEKLINABIDEA

Atal honetan deklinabide atzizkiak aztertuko doguz. Lehenego eta behin deklinabide atzizkien taulak –paradigmak- agertuko dira, adibideak be iminiko dirala; gero, kasuz kasuko azterketatxo bat egingo da; amaitzeko, erakusle, zenbatzaile eta izenordainen ganeko ezaugarri edo berezitasun batzuk emongo dira.

##### 3.1.1. Paradigmak

#### GRAMATIKAZKO KASUEN MARKAK

- 1.- Nominatiboa (Absolutiboa).....
- 2.- Partitiboa ..... -(r)ik
- 3.- Ergatiboa ..... -k
- 4.- Datiboa..... -(a)ri

#### GENITIBO NOMINALIZATZAILEENAK

- 5.- Edutezkoa..... -n / -(r)en / -(r)e
- 6.- Leku denporazkoa..... -ko / -tako

#### OSTANTZEKOENAK

- 7.- Instrumentala ..... -s
- 8.- Soziatiboa..... -(e)gas
- 9.- Motibatiboa ..... -(e)gaittik / -(a)rren
- 10.- Destinatiboa..... -(e)ntzat
- 11.- Prolatiboa..... -tzat

#### LEKU DENPORAZKOAK

- 12.- Inesiboa ..... -n / -tan
- 13.- Ablatiboa..... -ti(k) /-tarik /-tati(k) /-(r)ik
- 14.- Adlatiboa..... -ra / -tara
- 15.- Adlat. bukatuzkoa..... -ra(i)ño / -tara(i)ño
- 16.- Adlat. bide zuzenekoak..... -rantza / -tarantza

ARTIKULU GRADU BAKOAREN OSTEAN

	Singularra	Plurala
1.-	-a-	-ak
2.-	...	...
3.-	-a-k	-ak
4.-	-a-ri	-ari
5.-	-a-n	-an
6.-	- -ko	-atako
7.-	...	...
8.-	-a-gas	-akas
9.-	-a-gaittik	-akaittik
10.-	-a-ntzat	-antzat
11.-	...	...
12.-	-a-n	-a-tan
13.-	- -tik/rik	-atitik
14.-	- -ra	-atara
15.-	- -ra(i)ño	-atara(i)ño
16.-	- -rantza	-atarantza

ARTIKULU GRADU HURREKOAREN OSTEAN

	Singularra	Plurala
1.-	-au- / -ori-	-ok-
2.-	...	...
3.-	-on-e-k / -orr-e-k	-ok
4.-	-on-e-ri / -orr-e-ri	-ori
5.-	-on-en / -orr-en	-on
6.-	- -ko	-otako
7.-	...	...
8.-	-on-e-gas / -orr-e-gas	-okas
9.-	-on-e-gaittik/-orr-e-gaittik	-okaittik
10.-	-on-en-tzat / -orr-en-tzat	-ontzat
11.-	...	...

12.-	- -n	-otan
13.-	- -tik	-otatik
14.-	- -ra	-otara
15.-	- -ra(i)ño	-otara(i)ño
16.-	- -rantza	-otarantza

LEKU DENPORAZKO BIZIDUNEN MARKAK

12.-	-gan
13.-	-gañik
14.-	-ga(i)ñe
15.-	...
16.-	-ga(i)ñentza

3.1.2. Izen-Adjetiboak

**BOKALEZ AMAITURIKO «TXIKI» ADJETIBOA**  
(MUGAGABEA)

- 1.- txiki
- 2.- txikirik
- 3.- txikik
- 4.- txikiri
  
- 5.- txikiñ
- 6.- txikiko
  
- 7.- ...
- 8.- txikigas
- 9.- txikigaittik
- 10.- txikintzet
- 11.- txikitzet

12.- txikitten	<b>Bizidunak</b>
13.- txikittik / txikittetik	12'.- txikigan <sup>1</sup>
14.- txikire	13'.- txikigañik
15.- txikire(i)ño	14'.- txikigañe
16.- txikirentza	15'.- ...
	16'.- txikiga(i)ñentza

(ARTIKULU GRADU BAKOAZ MUGATURIKOA)

<b>Singularra</b>	<b>Plurala</b>
1.- txikidxe	txikidxek
2.- ...	...
3.- txikidxek	txikidxek
4.- txikidxeri	txikidxeri
5.- txikidxen	txikidxen
6.- txikiko	txikidxetako
7.- ...	...
8.- txikidxegas	txikidxekas
9.- txikidxegaittik	txikidxekaittik
10.- txikidxentzat	txikidxentzat
11.- ...	...
12.- txikidxen	txikidxetan
13.- txikittik	txikidxetatik
14.- txikire	txikidxetara
15.- txikireño	txikidxetara(i)ño
16.- txikirentza	txikidxetarantza
<b>Bizidunak</b>	
12'.- txikidxegan	txikidxekan
13'.- txikidxegañik	txikidxekañik
14'.- txikidxega(i)ñe	txikidxeka(i)ñe
15'.- ...	...
16'.- txikidxega(i)ñentza	txikidxeka(i)ñentza

---

<sup>1</sup> Bizidunen tratamendurako Inesibo eta Adlatibo marka honeik, hiztun zaharrenak bakarrik erabiltzen dabez. Geroago jarriko diran adibideentzat be balio dau ohar honek.

(ARTIKULU GRADU HURREKOAZ MUGATURIKOA)

<b>Singularra</b>	<b>Plurala</b>
1.-	txikidxok
2.-	...
3.-	txikidxok
4.-	txikidxori
5.-	txikidxon
6.-	txikidxotako
7.-	...
8.-	txikidxokas
9.-	txikidxokaittik
10.-	txikidxondxat
11.-	...
12.- txikidxon	txikidxotan
13.-	txikidxotatik
14.-	txikidxotara
15.-	txikidxotara(i)ño
16.-	txikidxotarantza
<b>Bizidunak</b>	
12'.-	txikidxokan
13'.-	txikidxokañik
14'.-	txikidxoka(i)ñe
15'.-	...
16'.-	txikidxoka(i)ñentza



**KONTSONANTEZ AMAITURIKO «EDAR» ADJETIBOA**  
(MUGAGABEA)

- 1.- edar
- 2.- edarrik
- 3.- edarrek
- 4.- edarrerri
  
- 5.- edarren
- 6.- edarreko
  
- 7.- ...
- 8.- edarregas
- 9.- edarregaittik
- 10.- edarrentzat
- 11.- edartzat
  
- 12.- edarretan
- 13.- edarretik
- 14.- edarrera
- 15.- edarrera(i)ño
- 16.- edarrerantza

**Bizidunak**

- 12'.- edarengan
- 13'.- edargañik
- 14'.- edargañe
- 15'.- ...
- 16'.- edarga(i)ñentza

(ARTIKULU GRADU BAKOAZ MUGATURIKOA)

**Singularra**

- 1.- edarra
- 2.- ...
- 3.- edarrak
- 4.- edarrari
  
- 5.- edarran
- 6.- edarreko

**Plurala**

- edarrak
- ...
- edarrak
- edarrari
  
- edarran
- edarretako

<b>Singularra</b>	<b>Plurala</b>
7.- ...	...
8.- edarragas	edarrakas
9.- edarragaittik	edarrakaittik
10.- edarrantzat	edarrantzat
11.- ...	...
12.- edarrien	edarratan
13.- edarretik	edarratatik
14.- edarrera	edarratara
15.- edarrera(i)ño	edarratara(i)ño
16.- edarrerantza	edarratarantza
<b>Bizidunak</b>	
12'.- edarragan	edarrakan
13'.- edarragañik	edarrakañik
14'.- edarraga(i)ñe	edarraka(i)ñe
15'.- ...	...
16'.- edarraga(i)ñentza	edarraka(i)ñentza

(ARTIKULU GRADU HURREKOAZ MUGATURIKOA)

<b>Singularra</b>	<b>Plurala</b>
1.-	edarrok
2.-	...
3.-	edarrok
4.-	edarrori
5.-	edarron
6.-	edarrotako
7.-	...
8.-	edarrokas
9.-	edarrokaittik
10.-	edarrontzat
11.-	...
12.- edarrion	edarrotan
13.-	edarrotatik
14.-	edarrotara
15.-	edarrotara(i)ño
16.-	edarrotarantza

**Singularra**  
**Bizidunak**

12'.-  
13'.-  
14'.-  
15'.-  
16'.-

**Plurala**

edarrokan  
edarrokañik  
edarroka(i)ñe  
...  
edarroka(i)ñentza

**BOKALEZ AMAITURIKO «ANDEKO» ETA KONTSONANTEZ  
AMAITURIKO «BATIX» (BATIZ) LEKU IZENAK**

1.- andeko	batix / batixe <sup>2</sup>
2.- andekorik	batixik
3.- andekok	batixek
4.- andekori	batixeri
5.- andekon	batixen
6.- andekoko	batixeko
7.- ...	
8.- andekogas	batixegas
9.- andekogaittik	batixegaittik
10.- andekontzat	batixentzat
11.- andekotzat	batistzet
12.- andekon	batixen
13.- andekotik	batistik / batixetik
14.- andekora	batixera
15.- andekora(i)ño	batixera(i)ño
16.- andekorantza	batixerantza

---

<sup>2</sup> Azkeneko **-e** eta guztiko forma be baliokoa da.

**BOKALEZ AMAITURIKO «MARI» ETA KONTSONANTEZ AMAITURIKO «DXON» (JON) LAGUN IZENAK**

1.- mari		dxon
2.- maririk		dxonik
3.- marik		dxonek
4.- mariri		dxoneri
5.- mariñ		dxonen
6.- ...		...
7.- ...		...
8.- mariges		dxonegas
9.- marigaittik		dxonegaittik
10.- marintzet		dxonentzat
11.- maritzet		dxontzat
12.- marigan		dxonegan
13.- marigañik		dxonegañik
14.- mariga(i)ñe		dxonega(i)ñe
15.- ...	...	
16.- mariga(i)ñentza		dxonega(i)ñentza

3.1.3. Pertsona izenordain arruntak eta euren forma indartuak

**NI / NEU**

1.- ni		neu
2.- ...		...
3.- nik		neuk
4.- niri		neuri
5.- nire		neure
6.- ...		...
7.- ...		...
8.- niges		neuges
9.- nigaittik		neugaittik
10.- ni(re)tzat		neu(re)tzat
11.- nitzet		neutzet

**NI / NEU**

12.- nigan	neugan
13.- nigañik	neugañik
14.- niga(i)ñe	neuga(i)ñe
15.- ...	...
16.- niga(i)ñentza	neuga(i)ñentza

**I / EU**

1.- i	eu
2.- ...	...
3.- ik	euk
4.- iri	euri
5.- ire	eure
6.- ...	...
7.- ...	...
8.- iges	euges
9.- igaittik	eugaittik
10.- iretzat	eu(re)tzat
11.- itzet	eutzet
12.- igan	eugan
13.- igañik	eugañik
14.- iga(i)ñe	euga(i)ñe
15.- ...	...
16.- iga(i)ñentza	euga(i)ñentza

**SU / SEU**

1.- su	seu
2.- ...	...
3.- suk	seuk
4.- suri	seuri
5.- sure	seure
6.- ...	...

**SU / SEU**

7.- ...	...
8.- suges	seuges
9.- sugaittik	seugaittik
10.- su(re)tzat	seu(re)tzat
11.- sutzet	seutzet
12.- sugan	seugan
13.- sugañik	seugañik
14.- suga(i)ñe	seuga(i)ñe
15.- ...	...
16.- suga(i)ñentza	seuga(i)ñentza

**GU / GEU**

1.- gu	geu
2.- ...	...
3.- guk	geuk
4.- guri	geuri
5.- gure	geure
6.- ...	...
7.- ...	...
8.- guges	geuges
9.- gugaittik	geugaittik
10.- gu(re)tzat	geu(re)tzat
11.- gutzet	geutzet
12.- gugan	geugan
13.- gugañik	geugañik
14.- guga(i)ñe	geuga(i)ñe
15.- ...	...
16.- guga(i)ñentza	geuga(i)ñentza

**SUEK / SEUEK / SUOK / SEUOK**

1.- suek	seuek	suok	seuok
2.- ...	...	...	...
3.- suek	seuek	suok	seuok
4.- sueri	seueri	suori	seuori
5.- suen	seuen	suon	seuon
6.- ...	...	...	...
7.- ...	...	...	...
8.- suekas	seuekas	suokas	seuokas
9.- suekaittik	seuekaittik	suokaittik	seuokaittik
10.- suentzat	seuentzat	suontzat	seuontzat
11.- ...	...	...	...
12.- suekan	seuekan	suokan	seuokan
13.- suekañik	seuekañik	suokañik	seuokañik
14.- sueka(i)ñe	seueka(i)ñe	suoka(i)ñe	seuoka(i)ñe
15.- ...	...	...	...
16.- suekañentza	seuekañentza	suokañentza	seuokañentza

3.1.4. Izenordain zehaztubakoak: galdetzaileak

**NOR / NORTZUK**

1.- nor	nortzuk
2.- ...	...
3.- nok	nortzuk
4.- nori	nortzuri
5.- no(re)n	nortzun
6.- ...	...
7.- ...	...
8.- nogas	nortzukes
9.- nogaittik	nortzukaiitik
10.- nontzat	nortzuntzet
11.- nortzat	nortzutzet

**NOR / NORTZUK**

12.- nogan	nortzukan
13.- nogañik	nortzukañik
14.- noga(i)ñe	nortzuka(i)ñe
15.- ...	...
16.- noga(i)ñentza	nortzuka(i)ñentza

**SER / SERTZUK**

1.- ser	sertzuk
2.- serik	...
3.- sek	sertzuk
4.- seri	sertzuri
5.- seen	sertzun
6.- se(r)eko	...
7.- ...	...
8.- segas	sertzukes
9.- segaittik	sertzukaittik
10.- sentzan	sertzuntzet
11.- sertzat	sertzutzet
12.- setan <sup>3</sup>	sertzuten
13.- setatik	sertzutetik
14.- setara	sertzutera
15.- se(r)era(i)ño	sertzutera(i)ño
16.- se(r)erantza	sertzuterentza

**SEIÑ / SEINTZUK**

1.- seiñ	seintzuk
2.- ...	...
3.- seiñek	seintzuk
4.- seiñeri	seintzuri

<sup>3</sup> Bizidunei jagoken marka **-gan-** be hartu lei kasu bereziren baten: «segan dekona inñdabie?». Prezioa jakiteko erabilten da.

### SEIÑ / SEINTZUK

5.- seiñen	seintzun
6.- seiñeko	seintzuteko
7.- ...	...
8.- seiñegas	seintzukes
9.- seiñegaittik	seintzukaittik
10.- seiñentzat	seintzuntzet
11.- ...	...
12.- seiñetan	seintzuten
13.- seiñetatik	seintzutetik
14.- seiñetara	seintzutera
15.- seiñera(i)ño	seintzutera(i)ño
16.- seiñe(ta)rantz	seintzuterantz

#### 3.1.5. Erakusleak

##### Singularrak

au	ori	a
onek	orrek	ak / arek
onen	orren	aren
oneri	orreri	areri
onegas	orregas	aregas
onetan	orretan	atan / aretan
onetako	orretako	atako / aretako
onetara	orretara	atara / aretara
onetatik	orretatik	atatik / aretatik
onegan	orregan	aregan
onega(i)ñe	orrega(i)ñe	arega(i)ñe
onegañik	orregañik	aregañik
onegaittik	orregaittik	aregaittik / agaittik
onentzat	orrentzat	arentzat

**Balio erakuslea dauken adberbio kategoriako formak:**

amen	or	an
ameko/amengo	orke	ango
ametik/amendik	ortik	andik
ona	orra	ara
onantz(a)	orrantz(a)	arantz(a)
ona(i)ño	orra(i)ño	ara(i)ño
onako	orrako	arako
aulan	olan	alan
aulako/aulango	olako/olango	alako/alango

**Pluralak**

Plural guztien lehenego silaba tonu altuan dago azentuari jagokonez. Beraz, ónek, órrek, árek, ónen, órren, áren... eta abar ahoskatu behar dira.

onek	orrek	arek
onek	orrek	arek
onen	orren	aren
oneri	orreri	areri
onekas	orrekas	arekas
onetan	orretan	aretan
onetako	orretako	aretako
onetara	orretara	aretara
onetatik	orretatik	aretatik
onekan	orrekan	arekan
oneka(i)ñe	orreka(i)ñe	areka(i)ñe
onekañik	orrekañik	arekañik
onekaittik	orrekaittik	arekaittik
onentzat	orrentat	arentzat

ERAKUSLE INDARTUAK (-**XE**)

auxe	orixe	a(i)xe
onexek	orrexek	arexek
onexen	orrexen	arexen
onexeri	orrexeri	arexeri
onexegas	orrexegas	arexegas
onexetan	orrexetan	arexetan
onexetako	orrexetako	arexetako
onexetara	orrexetara	arexetara
onexetatik	orrexetatik	arexetatik
onexegan	orrexegan	arexegan
onexega(i)ñe	orrexega(i)ñe	arexega(i)ñe
onexegañik	orrexegañik	arexegañik
onexegaittik	orrexegaittik	a(re)xegaittik
onexentzat	orrexentzat	a(re)xentzat

**Balio erakuslea dauken adberbio kategoriako formak:**

amentxe	ortxe	antxe
amekoxe/amengoxe	orkoxe	angoxe
ametixik/amendixik	ortixik	andixik
onaxe	orraxe	araxe
onaxentza	orraxentza	araxentza
onaxe(i)ño	orraxe(i)ño	araxe(i)ño
onaxeko	orraxeko	araxeko
aulantxe	olantxe	alantxe
aulakoxie/aulangoxie	olakoxie	alakoxie/alangoxie

**Pluralak**

onexek	orrexek	arexek
onexek	orrexek	arexek
onexen	orrexen	arexen
onexeri	orrexeri	arexeri
onexekas	orrexekas	arexekas
onexetan	orrexetan	arexetan
onexetako	orrexetako	arexetako
onexetara	orrexetara	arexetara
onexetatik	orrexetatik	arexetatik
onexekan	orrexekan	arexekan
onexeka(i)ñe	orrexeka(i)ñe	arexeka(i)ñe

onexekañik	orrexekañik	arexekañik
onexekaittik	orrexekaittik	arexekaittik
onexentzat	orrexentzat	arexentzat

ERAKUSLE INDARTUAK (AU-)<sup>4</sup>

au	auri
aunek	aurrek
aunen	aurren
auneri	aurreri
aunegas	aurregas
aunetan	aurretan
aunetako	aurretako
aunetara	aurretara
aunetatik	aurretatik
aunegan	aurregan
aunega(i)ñe	aurrega(i)ñe
aunegañik	aurregañik
aunegaittik	aurregaittik
aunentzat	aurrentzat

**Balio erakuslea dauken adberbio kategoriako formak:**

auna	aurra
aunantza	aurrantza
auna(i)ño	aurra(i)ño
aunako	aurrako

<sup>4</sup> Lehenengo gradu bietan bakarrik emoten da. Erakusle balioa dauken adberbioetan, «ona, orra, ara» eta euretatik eratorritakoek bakarrik dauke indartze mota hau. «aulan, olan, alan» lit. **honela, horrela, hala** hirukotean, fenomeno bitxia daukagu. «aulan» bigarren graduako indartuak, lehen graduako jatorrizko «onan» -Fruizen ez da erabiltzen- ordezkatu dau eta ondorioz, ez dago aldaki indarturik hiru honeintzat, bigarren graduako indartua lehen graduako arruntarekin nahastauko litzake-eta.

### Pluralak

aunek	aurrek
aunek	aurrek
aunen	aurren
auneri	aurreri
aunekas	aurrekas
aunetan	aurretan
aunetako	aurretako
aunetara	aurretara
aunetatik	aurretatik
aunekan	aurrekan
aunka(i)ñe	aunka(i)ñe
aunka <span>ñ</span> ik	aunka <span>ñ</span> ik
aunkaittik	aunkaittik
aunentzat	aurentzat

### ERAKUSLE INDARTUAK (**AU-** + **-XE**)<sup>5</sup>

auxe	aurixe
aunexek	aurrexek
aunexen	aurrexen
aunexeri	aurrexeri
aunexegas	aurrexegas
aunexetan	aurrexetan
aunexetako	aurrexetako
aunexetara	aurrexetara
aunexetatik	aurrexetatik
aunexegan	aurrexegan
aunexega(i)ñe	aurrexega(i)ñe
aunexega <span>ñ</span> ik	aurrexega <span>ñ</span> ik
aunexegaittik	aurrexegaittik
aunexentzat	aurrexentzat

---

<sup>5</sup> Forma bereziki indartuak edo, izango litzatekez honeik. Hiru maila desbardin daukaguz:

**1.-arrunta**

onek

**2.-indartua**

aunek  
onexek

**3.-indartuagoa**

aunexek

**Balio erakuslea dauken adberbio kategoriako formak:**

aunaxe	aurraxe
aunaxentza	aurraxentza
aunaxeño	aurraxeño
aunaxeko	aurraxeko

**Pluralak**

aunexek	aurrexek
aunexek	aurrexek
aunexen	aurrexen
aunexeri	aurrexeri
aunexekas	aurrexekas
aunexetan	aurrexetan
aunexetako	aurrexetako
aunexetara	aurrexetara
aunexetatik	aurrexetatik
aunexekan	aurrexekan
aunexeka(i)ñe	aurrexeka(i)ñe
aunexekañik	aurrexekañik
aunexekaittik	aurrexekaittik
aunexentzat	aurrexentzat

3.1.6. Zenbatzaileak

**ZEHAZTUAK: BI eta BOST**

<b>mugagabea</b>	<b>plurala</b>
1.- bi	bidxek
2.- birik	...
3.- bik	bidxek
4.- biri	bidxeri
5.- biren	bidxen
6.- biko	bidxetako
7.- ...	...
8.- bi(g)es	bidxekas
9.- bi(g)aittik	bidxekaittik
10.- birentzat / bintzet	bidxentzat
11.- ...	...

12.- bitten	bidxetan
13.- bittik/birik/bitterik	bidxetatik
14.- bire	bidxetara
15.- bire(i)ño	bidxetara(i)ño
16.- birentza	bidxetarantza

**Bizidunak**

12'.- bigan	bidxekan
13'.- bigañik	bidxekañik
14'.- biga(i)ñe	bidxeka(i)ñe
15'.- ...	...
16'.- biga(i)ñentza	bidxeka(i)ñentza

**BOST**

**mugagabea**

1.- bost
2.- bostik
3.- bostek
4.- bosteri
5.- bosten
6.- bosteko
7.- ...
8.- boste(g)as
9.- boste(g)aittik
10.- bostentzat
11.- ...

**plurala**

bostak
...
bostak
bostari
bostan
bostatako
...
bostakas
bostakaittik
bostantzat
...

12.- bosten	bostan
13.- bostetik / bosterik	bostatatik
14.- bostera	bostatara
15.- bostera(i)ño	bostatara(i)ño
16.- bosterantza	bostatarantza

**Bizidunak**

12'.- bostegan	bostakan
13'.- bostegañik	bostakañik
14'.- bostega(i)ñe	bostaka(i)ñe
15'.- ...	...
16'.- bostega(i)ñentza	bostaka(i)ñentza

## **ZHAZTUBAKOAK: ASKO**

- 1.- asko
- 2.- askorik
- 3.- askok
- 4.- askori

- 5.- askon
- 6.- askoko

- 7.- ...
- 8.- asko(g)as
- 9.- asko(g)aittik
- 10.- askontzat
- 11.- askotzat

- 12.- askotan
- 13.- askotatik
- 14.- askotara
- 15.- askotara(i)ño
- 16.- askotarantza

### **Bizidunak**

- 12'.- askogan
- 13'.- askogañik
- 14'.- askoga(i)ñe
- 15'.- ...
- 16'.- askoga(i)ñentza

### **3.1.7. Deklinabide kasuen azterketa**

Paradigmak jarri ondoren, Fruizko euskeraren deklinabideak euki leikezan aspektu bereizgarrienak aipatuko dira. Horretarako, kasuz kasuko azterketa egingo dot lehenengo, bakoxtari jagokon forma, erabilera, funtzinoa... eta abar agertuz. Ostean, izenordain, erakusle eta zenbatzaileen deklinabideari buruzko zehaztasunak emoten ahaleginduko naz.

#### **3.1.7.1. Nominatiboa (absolutiboa)**

Formari jagokonez, ez dauka marka berezirik. Markarik eza izango litzake, beraz, bere ezaugarria: ( ).

Aztertu dagidan oraingoan zelango forma hartzen dabek -a gradu bako artikulua batu ondoren. Emaitzak, berben amaieren arabera-koak izango diranez, sei sailetan agertu geinkez:

1.- A + A

alaba + a = «alabie»

neska + a = «neskie»

mamala + a = «mamalie»

denpora + a = «denporie»

Familia arteko erlazinoa adiazoten dabek berba batzuk, izen bereziak balitzaz lez hartzen dira:

ama + a = «ama»

«aitte» + a = «aitte»

2.- E + A

«seme» + a = «semie»

«ume» + a = «umie»

«gaste» + a = «gastie»

«traste» + a = «trastie»

3.- I + A = IDXE

«asti» + a = «astidxe»

«erri» + a = «erridxe»

«ogi» + a = «ogidxe»

«abi» + a = «abidxe»

4.- O + A

«asto» + a = «astoa»

«ollo» + a = «olloa»

«arro» + a = «arroa»

«mosolo» + a = «mosoloa»

Erdal jatorrizko berba batzuetan, ostera, bestelako joerarik be badago: -OA amaiera barik, -UE egiten da. Beharbada, hurrengo sailean aipatu beharreko arazoa litzateke hau, -O amaieradun erdal berba askok, -U egiten dabelako Fruizko hizkeran, eta ondorioz U+A atalean aztertu beharko gendukez. Kontutan hartu behar da, edozein modutan be, aspaldiko mailuetan beti egiten dala UE, ->koñetue», «alletue», «pekatue»...- barriagoe-tan alternantzia dagoelarik: batzuetan OA, eta besteetan UE. Noiz bata, eta noiz bestea? Ez dago arau zehatzik. Inguruko herrietan be, emaitza desberdinak ditugu berba berarentzat. Fruizerako jarri dodazan ondorengo sei ereduok, Muxikan esate baterako, OA amaiera izango leukie:

vaso ... «basu» + a = «basue»    trago .. «tragu» + a = «trague»

puro ... «puru» + a = «purue»    fracaso «frakasu»+a=»frakasue»

cazo ... «kasu» + a = «kasue»    secreto «sekretu»+a=»sekretue»

5.- U + A

«katu» + a = «katue»

«lengusu» + a = «lengusue»

«akulu» + a = «akulue»

«saldue, galdue»

6.- KONTSONANTEA + A

Azkenaurreko bokala A, E edo O danean, A amaiera dogu beti, baina kontsonante aurreko bokala I edo U bada, E izango dugu azkenean:

«sospel» + a = «sospela»	«estul» + a = «estule»
«makal» + a = «makala»	«txistill» + a = «txistille»
«moskor» + a = «moskorra»	«fiñ» + a = «fiñe»

Euskal hiztegian **-a** amaieradun berbak be badaukaguzanez, nahasteak sortzen dira askotan, jenteak gradu bako artikulua dala pentsetan dau-eta, berbeari berari jagokon berezko **-a** dala ahaztuta. Ondorioz, forma mugagabeen erabili gura diranean, ohi dan lez, azkenengo -a bokala kendu egiten jake berbei. Arazo hau, -IA amaieradun berbetan gertatzen da batez be. Aztertu daiguzan nahaste-biderako aukera guztiak:

**1.- Erdal jatorrizko berbetan (-IA amaieradunak).**

Artikulu lez hartzen da azken -a bokala eta ondorioz, kendu egiten da mugagabeetarako:

«karnaseri bet»	«farmasi politte»
«olako famelirik!»	«geur badau feririk?»

Halandabe, entzun leiz honino «familidxe edarra» moduko esakunak, baina gehiengoak -a bakoak erabilten dauz.

**2.- IA amaieradun euskal jatorrizko berbetan.**

Joera biak dagoz: batzuetan, berezko -a moduan hartzen da eta beste batzuetan, artikulu lez:

- a) «anaidxe bi dekos» / «abidxie tope tzo»
- b) «egi bet esteu esan arrasti danien»  
«atxaki bakoa dok ori!»

**3.- Ostantzeko amaieradun berba batzuetan.**

Berba berak tratamendu desberdina euki lei erabileraren arabera:

- a) «burdiñie baño gogorraua da»

Adibide honetan, «burdiñe» + a = «burdiñie» fenomeno daukagu; -a eta guzti, beraz.

- a') «burdin bet tope dot»

Beste honetan, -a bako forma mugagabea daukagu, artikulutzat hartu dalako, hain zuzen.

- b) «katietu eiñ dxat sasi artien»

Hemen daukagun forma «katie» + tu = «katietu» izango litzake. Izen mugagabeak hartzen dira oinarritzat -TU atzizkidun partizipioak sortzeko: «umetu», «gastetu», «ñiosentetu» Beraz, «katie» forma be mugagabea da.

b') «kate lodidxe biko da ori txala lotzeko»

«kate» berbeari kendu egin jako -a amaiera. Artikulutzat hartu izan da nonbait.

#### 4.- Atzizki batzuetan (-keria, -duria).

Artikulu lez hartzeko joera nabarmena dago:

«astokeri edarra eiñ ddok!»

«dxakitturi andidxe deko orrek»

#### 5.- IA edo UA amaieradun leku izenetan.

Azkenengo -a barik egiten dira gehienak:

«Donosti», «Mañari», «Aspeitti», «Foru», «Ermu»... eta abar.

Fruizko berbetara moldatu ez diranak, gorde egiten dabe -a hori eta ez dauke asimilazio bokalikorik: «Bedia», «Sumaia»... eta ez «Bedidxe», «Sumaidxe»...

Kontsonante amaieradun leku izen askori -e batzen jake. Edozelan be, komenigarria deritxot bereizketa bat egiteari:

a) -IZ amaiera dauken euskal leku izenetan, beti emoten da fenomeno hau:

-Herri batzuen izenetan: «Gorlix» (Gorliz), «Gamix» (Gamiz), «Nabarnix» (Nabarniz), «Pru(i)x» (Fruiz)...

-Herri barruko auzoen izenetan: «Mandalu(i)x» (Mandaluiz), «Batix» (Batiz), «Gerekix» (Gerekiz) -Morgako auzoa-...

b) Ostantzeko amaieradun leku izenetan:

-Herri izenetan, ez da -e gehitzen normalean: «Eibar», «Saraus» (Zarautz), «Irun»...

d) Atzerriko leku izenetan, bi joerak dagoz:

- «Madrille», «Parix»...

- «Londres», «Berliñ», «Badajos»...

Absolutibo kasuaren atal honeri amaiera emoteko, berari jagokon funtzinoetariko bat aipatu gura neuke: bokatiboa. Ezagun da pertsona izen, izenordain... eta abar erabili leitekezala bokatiborako, baina honeitatik aparte, izaten dira bokatibo funtzinoa dauken halako berba bereziak. Bermeon, esaterako, oso ezagunak dira gizonezkoantzako «txo» eta emakumezkoantzako «alabatxi».

Fruizko berbetan be, badago gizonezkoei jagoken bokatibo funtzinoa betetan dauan berba berezi bat: «**txotxo**»<sup>6</sup>

«es, txotxo, ori esta egidxe»

«belu etorri as, txotxo!»

Umeentzat, ostera, «poli» daukagu:

«etorri ona, poli»

«miñ engosu poli!»

### 3.1.7.2. Partitiboa

Bere forma **-(r)ik** da, deklinatzen dan berbaren bukaeraren arabera:

«estulik» / «astorik»

Kasu honek, nominatiboaren zelango-halango baliokide edo izanda, ondorengo erabilera guztiak ditu:

#### 1.- Ezezko esaldietan:

«estekosu lotzarik!»

«oneskero estau euririk»

«etxostiek gusurrik esango»

«es i dxok bixerrik kenduko»

#### 2.- Itaunetan:

a) Bai ala ez saileko itaunak:

«ikus dere ollogorrik?»

«badakadie bidan beste dxatekorik?»

b) Sakoneko ezeztapena proposatzen daberen itaunak:

«nos ikus dosu suk busten bako astorik?»

(Zuk ez dozu inoz buztan bako astorik ikusi)

«selan berba ei(n) lei dxakin barik?»

(Jakin barik, ezin lei barbarik egin)

#### 3.- Baldintzazkoetan:

«laguntasiñorik biar basu, neuri deittu»

«orrenbeste edango es pasenke, esintze lodittuko»

«au dxakiñik, enintzoan etorriko»

#### 4.- Konparaketetan:

«eu (g)as, i, iñosenterik andidxena»

«suen semie da nire lagunik onena»

<sup>6</sup> Batzuetan, etxe bateko umerik txiena izendatzeko be eralbilten da: «gure txotxo makali(k) tau».

**5.- Zelan galdetzaileagaz erlazonaturiko esaldi batzuetan:**

«suririk eskondu de»  
«altari(k) tau gure astoa»

Hona hemen modu honetara sorturiko beste adberbio batzuk be: «sutunik», «gordiñik», «ortosik», «makalik», «billosik», «aratiñik»...

**6.- «Asko» eta «gitxi» adberbioakaz egiten diran esaldietan:**

«sarrik, gitxi egon da»

Beste alde batetik, partitibo kasuan deklinatzen diran berba batzuen esangura aldatu egiten da. Adib: «sarata», gaztelerazko «ruido» da berez, baina partitibo atzikia batzen jakonean, «zeozeren barri izan», «zeozeren entzutea izan» edo antzekoaren adierazle da:

- a) Ezezkoetan:  
«urten, basoasie konbidu ala?  
-esta saratarik.»  
(Ez da/dogu horretaz ezer entzun)
- b) Itaunetan:  
«erregiek seusertxu ekarkoskue guri!  
-bada saratarik ala?»  
(Ezer entzun dozue horretaz?)»

**3.1.7.3. Ergatiboa**

Formari jagokonez **-k** dogu kasu honen marka. Ergatiboaren erabilera dala eta, ondorengo hiru puntuok aipatuko neukez:

1.- Ergatiboz deklinaturik dagoen izen sintagmak gehienetan absolutibozko -hau da, objetua- beste bat eskatzen dauan arren, hau ez da beti holan izaten:

«txarto urten dost biarrak»  
«esniek irikiñ en bideu edan orduko»  
«nik, ordu lauren ariñau urten dot»

2.- «BARDIÑ IXEN» aditzak ergatiboa eskatzen dau beti:  
«bardiñ ddost suk se (e)itte sun»  
«sueri bardin tzue edoser eiñdde be»

**3.1.7.4. Datiboa**

Bere forma **-(e)ri** da, kontsonantez amaitzen dan berbari ezartzera-koan, **-e-** tartekatzen dalarik.

Hiru berezitasun aipatuko neukez:

1.– Nor eta Nork kasuekaz gertatzen dan lez, datiboak be beti zainduko dau aditzagazko komunztadura:

«aittek ostikadie emon tzo katueri»

«intxurrek emon netziesan Santageda batzien etor sienari»

2.– Posposizino askoren lehenengo atalean agertzen da:

«gordosolari eskerrak eskara busti»

«seri adi saus?»

3.– Esakune batzuetan:

«xarrari emonda dau»

«bilttieri emonda dau»

### 3.1.7.5. Genitibo Edutezkoa

Atzizki bereizgarria **-(e)n** da. Pertsona izenordainentzat, ostera, **-(r)e**. Kontsonantez amaitzen diran berbetan, mugagabea, singularra eta plurala forma bardinegaz egiten dira:

«senbat lagunén ardurie dekosu ba?» MUGAGABEA

«lagunén ardurie dekot» SING.

«lagúnen ardurie dekot» PL.

Berba bokalez amaitu ezkerro, sinkretismo desbardinak aurkitu geinkez:

**sing. = pl**

«seiñ aston popaskadie»

«astoán popaskadie»

«astóan popaskadak»

**mugagabea = pl.**

«seiñ alaban umie?»

«alabién umie»

«alában umiek»

Pertsona izenordainei jagoken **-re** atzizkian izan ezik, ez dago **-r-** epenetikorik. Halandabe, eleizan ikasitako esamolde –berba- batzuetan, **-r-** eta guztiko formak be entzuten dira.

«aittieren da semieren eiñ orduko»

Ezagun danez, Fruizko berbetari jagokon esakunea «aitten ixenien» da eta ez «aittieren ixenien».

Azter daiguzan ondoren edute genitiboaren erabilerak dituen berezitasunak:

1.– Izenlagun funtzinoa beteten dauala, atzetik daukan izena isildu egin daiteke:

«kristonak ein sitxusen»  
«dakidxen txue esango tzu orrek»

2.- Nonoren etxea adiazoteko, «etxe» izena isilduz, **-(e)n** edute genitiboaren ganean egiten da deklinabide atzizkia:

«Dorotionera dxoan da»  
«sueneko txalak gurie paño oba tie»  
«Patxoneko mutillek balientie tie»

3.- Ia gehienetan jabego-erlazinoa adierazten badau be, kasu batzuetan ez:

«bota eidxosu mille pesetan gasoliñie»  
«bost ogorlokon karameloak gudotes»

4.- Esakune batzuetan:

«posan posagas barbari pe etzo urtetan»  
«surren surregas tontoa da ori»

5.- «Bat edo beste», «bat edo bat», «batzuk»... adiazoteko:

«batan bat etorko soan»  
«lukidxen bat ibill ddelakoa dekot»  
«umien baten negarra ixengo san»

Atal honen barruan, alkarren ondoko edute genitibo biren ganean egiten diran erlatiboazko esaldi txertatuak be aitatu beharko litzakez:

«dxoan sanan batek esan i tzon»

Kontuan hartu behar da «dxoan san bat» eta «dxoan sanan bat» ez dira la gauza bardina. Bigarren forma, zehaztubakoagoa da, zalantzazkoagoa. Hona hemen euren gaztelerazko itzulpenak:

«dxoan san bat» = alguno que fué.  
«dxoan sanan bat» = alguno que debió de ir.

6.- Beste kasu batzuen atzizkiak be batu leioz edute genitiboari:

«aittenik es takixue suek»  
(aitaren barririk, aitaren konturik...)  
«gerrako konturik badakixu?»  
-es  
-eta sorgiñenik?»  
(sorginen konturik?)

### 3.1.7.6. Leku-Denporazko Genitiboa

Bere ezaugarria **-ko** dogu. Kontsonantez amaituriko berbei batzera-koan, **-e** sartu daiteke bitartean. Mugagabeen eta pluralean, **-ta** elementua daukagu.

Kasu honen bidez, «nongo», «nosko», eta «setako» itaunei emoten jake erantzuna:

- 1.- NONGO:           «askako bedarra egostute dau»  
                          «ankako miñegas nabill aspaldidxon»

Izenak be sortu daitekez kasu honen ganean: «eskekoa», «burkoa», «leku-tekoa», «gortakoa»...

Gorputz ataletan emondako zartadak adiazoteko: «kokotekoa», «lepo-koa», «arpikoa», «matraillekoa»...

- 2.- NOSKO:  
a) Izenlaguna:       «sasoneko lorie dakastek!»  
                          «atzoko dxatorduek kalte eiñ ddot»  
b) Destinatiboa:   «bidxerko en biko die buskentak»  
                          «domekarako gudot erropa barridxe»

- 3.- SETAKO:         «ikusteko geuse tie onek»  
                          «enas esetako geuse»

Aditz nominalizatueta oinarrituz, izenak sortu daitekez: «dxatekoa», «olgetakoa», «esatekoa», «emotekoa»...

Azter daiguzan beste berezitasun batzuk:

- 1.- Adberbio esapide batzuetan be erabilten da :  
                          «politte, esateko, esta ori»  
                          «etor sara daburduko?»  
2.- Prolatibo kasua batu leio:  
                          «etzekotzat dekie a umie»  
                          «estot atakotzat artu»

3.- Kontsonante amaieradun leku izenetan, **K** ez da inoiz ozentzen. Gehienetan, **-e** epentetikoaren bidez lotzen da berbea **-KO** atzizkiagaz: «Eibar(re)koa», «Leonekoa», «Londresekoa»...

4.- Kasu bakarren baten, **-KO** atzizkia isildu egin lei aurreko berbaren amaiera be **-KO** bada:

- «gurien lapikoa dxan bida geur»

Ez dogu inoz «lapikokoa» esaten. Beste eskualde batzuetakoek barre egiten deuskue sarritan, lapikoa bera **-sukalderako tresna**- jan behar ete dogun itaunduz.

### 3.1.7.7. Instrumentala

Kasu honen atzizkia **-z («-s»)** dogu. Bere erabilerari jagokonez, forma mugagabe klitxetuetan bakarrik agertzen dala esan behar da.

Ondorengo testuinguruetan aurkitu lei instrumentala Fruizko euskeran:

1.- Gorputzeko atalei lotuta, ZEREZ galderari erantzuteko:

«garidxe eskus dxote(n) san»

«burus dakittes bertso danak»

«belarrix ikis deu sonue dxoten»

2.- Posposizio batzuetan:

«dirus dxositte dau ori»

«ankas gora dxeusi dok agurie»

«arreskero estot geidxau ikusi»

3.- Adberbio eta lokuzio adberbialak sortuz:

-SELAN: «oñes», «euskeras», «erderas», «billurres», «dandarres», «ardures», «...-n porasus», «...-n les», «euspes», «artes», «trabes»...

-NOS: «geubes», «egunes», «egurdis», «sasoix», «astis»...

-KONPARAKETAN: «askos andidxaua»...

-SENBAT BIDERRES: «saspi biderres ein biarra euki dot»

4.- Aditz izenakaz:

«ixetes, maixue da ori»

«egotes estau txarto baia...»

Goian aipatutakoetatik aparte, ez da erreza instrumentala dauken adibide askorik aurkitzea, bertakoa ez dan bateri bestelakorik iruditu arren. Kontutan hartu behar da bizkaieraren soziatibo ezaugarria **-gas** dala, eta bokalarteko -g- galdu ostean, instrumentalaren forma bera hartzen dauala. Hau dala eta, nahaste handiak sortzen dira kasu bi honein artean, baina goiko adibideok kendu ezkerro, ia segurutzat emon geinke beste guztiak soziatibo kasukoak dirala.

Ikus daigun, bada, zelan ordezkutzen dogun instrumentala:

#### 1.- **-N GANIEN**

Zerbaitez, zerbaiti buruz berba egitea. Ia beti erakusleakaz egiten da:

«denporien ganien berbetan ibil gara» (Eguraldiaz)

«orren ganien ñok esteu barbarik ein gure» (Horretaz)

«ñok badaki eser onen ganien?» (Honetaz)

**2.- -N**

Iraupena adierazteko:

«ordu bidxen egon giñen berari begire» (Bi orduz)

«bost urtien falta ixen da ametik» (Bost urtez)

**3.- -GAS**

Lan edo ekintza baterako erabiltzen dan tresnari ezartzen jakola:

«eskuberiegas batu du bedarra» (Eskuberaz)

«malluegas dxosi dot untzie» (Mailuaz)

«sardiegas kargetan da gurdidxe» (Sardaz)

**4.- -N**

Erabilitako garraio mota adiazoteko:

«autobusien etor gosak partidutik» (Autobusez)

«trenien ariñau eitten da» (Trenez)

«saldidxen etor da onaño» (Zaldiz)

**5.- -N PREGUNTIE**

Norbaitez galdetzerakoan:

«sure preguntie eiñ ddeu» (Zutaz galdetu)

«semien preguntie eiñ ddosku ospittelien» (Semeaz)

Instrumentalari, leku-denporazko genitiboa be batu leio, materiala adiazoten daben izenlagunak sortzen dabezalarik:

«egurreko txabolie»

«arrisko etzie»

«urregorrisko erlojue»

**3.1.7.8. Soziatiboa**

Kasu honeri jagokon atzizkia **-(e)gas** dan arren, askotan ez da -g- ahoskatzen, gorago aipaturiko nahasteak sortzen diralarik.

Pluraleko forma **-akas** da. Oso bitxia da **-ekiñ** moduko forma entzutea baina gitxitan baino ez bada be entzun ahal dira. Gernika inguruko herrietan, ostera, nahiko arrunta da. Olabarrin -Errigoitiko auzoa, Fruiztik hiru Km. eskasera dagoana-, esaterako, parra-parra erabiltzen dira **-giñ** nahiz **-kiñ** formak singularrerako eta pluralerako. Guk «suges» esango gendukena, hareik «sugiñ» esango leukie; guk «suekas» esaten doguna, hareik «suekiñ».

Hona hemen soziatiboaren erabilerak eskaintzen dituen aukera guztiak:

1.– Kidetasuna adiazoteko:

«amagas dxoan nas karneta ataten»

«orrekas es kabix ondo»

2.– Denpora adiazoteko:

«egunokas es tot esebe entzuten»

«nora satos orduokas?»

3.– Instrumentalaren ordezt:

«taloa, arto-urunegas eitten da»

«suekas asko akordetan gara»

Kasu honeri, leku-denporazko genitiboa batu leio:

«aittegaskoak akabe dxakos areri»

«gugeskoa eiñdde dekosue»

### 3.1.7.9. Motibatiboa

Bere forma **-(e)gaittik** da. Ez da inoz edute genitiboaren ganean egi-ten eta, beraz, beste era batera bereizten dira singularra eta pluala:

«gure astoagaittik libre dau naboa»

«gure astoakaittik libre dau naboa»

**sing.:** -agaittik      **pl.:** -akaittik

### 3.1.7.10. Destinatiboa

Atzizki bereizgarria **-(e)ntzat** da. Ikusten danez, genitiboaren ganean eginda dagoan kasua dogu. Bere erabilerak arazoak sortu leiz, **-(e)ntzako** atzizkidun izenlagunakaz nahastau lei-eta:

a) Izenlaguna jarri beharrekoetan, beti **-(e)ntzako** erabilten da:

«suentzako erregaluek es tie oniño allegeu»

«non daus aittentzako frakak?»

b) Aditzlaguna jarri beharrekoetan sortzen da nahastea. Bata zein bes-tea erabilten dira ezelango arau barik. Lagun berberak be, batera nahiz bestera esango leuke ondorengo esaldia:

«gure txikidxentzat ekar dot»

«gure txikidxentzako ekar dot»

Bizidunak ez diranakaz be erabili lei kasu hau. Halan be, ez da nahas-tetan **-rako** atzizkidun formakaz, bakotxak bere esangura dualarik:

- (1)»bekosue ona da etzientzat (etzientzako)»  
 (Beheko-suak on egiten dio etxeari)  
 (2)»bekosue ona da etzerako»  
 (Etxean izateko ona da)

### 3.1.7.11. Prolatiboa

Mugagabeen bakarrik deklinatzen da **-tzat** atzizkia eta amaiera kontsonantikodun berbetan be, ez jako **-e-** epentetikorik ezartzen, beste deklinabide atzizki gehienetan ez lez:

«surtzet euki dot baia...» (Zuhurtzat)

«beti egon da gixontzat gerol»

Atzizki hau hartzen dauan sintagma, predikatu osagarria izaten da. Bi esangura desberdin euki leiz:

«kridxedatzat artu dere»

- (1) Euren zerbitzari izan daiten hartu dabe.  
 (2) Zerbitzaria dala -ogibidez- pentsatu dabe.

### 3.1.7.12. Inesiboa

Kasu honen galdetzaile nagusiak NON eta NOGAN dira. Lehenengoa bizibakoentzat eta bigarrena, bizidunentzat. Atzizkiak be, **-(e)n** edo **(e)tan** bizibakoentzat eta **-(e)gan** bizidunentzat. Halandabe, bereizketa ez da beti hain zintzo beteten:

«se ikuste su olako neska baten»

(«Neska» biziduna izanik be, -(e)n atzizkia hartu dau.)

Beste galdetzaile bi be euki leikez:

NOS: «goixien»...

SETAN: «biarrien»...

SER galdetzaileak, **-gan** bizidunentzako atzizkia be hartu lei, goian aipaturiko fenomenoaren alderantzizkoa osatuz: -gan atzizkia bizi bako bati ezarri. Prezioa itauntzeko erabilten da:

«segan dekosu inddabie?»

«A» amaieradun berbak, forma berezian deklinatzen dira mugatu singularrean. Ez da A + A batuketari jagokon emaitzarik gertatzen. Adib.:

- (1) «etze» + a + n = «etzien»  
 (2) «arkondara» + a + n = «arkondaran»

Lehenengo ereduari, itxaron eitekean fenomenoak gertatzen da, baina bigarrenean, ->a» itsatsidun hitzean- ez. Hona hemen beste adibide batzuk: «bernan», «saman», «errotan», «askan»...

Artikulu bako formak be erabilten dira:

«atxurren dabill ori»

«sailten tope leis olakoak»

Gradu hurreko artikuluaugaz mugaturiko forma singularrak asko erabilten dira:

DENPORA

LEKUA

«aspaldidxon»

«goidxon»

«goixion»

«atzion»

.....

.....

Kasu honen erabilerari jagokonez, oso oparoa dala esan behar da. Seguru asko, guztietan joriena dogu. Hona hemen, laburrean, inesiboak euki leikezan jokaera eta esangura desbardinak:

### 1.- Lekua adiazoteko:

1.a. Posposizinoan:

-(-n ... -n): «esanan ganien», «anaidxen artien»...

-( ... -n): «gixon artien», «ume antzien»...

1.b. Adierazkortasunez:

«lekuten dxauk ori mutill!»

1.d. Kasu sistematik urten eta aditzondo moduan:

«alboan dxesarri dxat»

«ser dekona aspidxen gordeta?»

### 2.- Denpora adiazoteko:

Zeozer **noz** gertatu dan adiazoteko be erabili lei inesiboa. Batzuetan forma mugatuen bidez: «sartzaroan»... Besteetan, mugagabeak erabiliz: «gastetan», «nobidxotan»...

Hara, bada, zenbat era desbardineta adiazo daiteken denpora:

2.a. **Noz** galdekariari dagokiona:

«egurdidxen dakadie ospitteleti»

«datorren astien il biko da txarridxe»

2.b. Zenbat denporan:

«bost urtien ibilli de tesidxe eitten»

«iru orduen edonok abrosidu lei»

2.d. Zenbatetan, zenbat bider:

«iruten ikus deu pelikulie»

«es tosu birritten esango!»

2.e. Ze ordutan:

«amabi tt'erdidxetan beskalduten da gurien»

«sortzirek eta laurenatan urtetan deu trenak»

2.f. Aditzondo bihurturik:

«geu be dxoaten gara batzuten»

«artien, se eitten egon san ba?»

Aditzondo honeik itxura desbardinak daukiezan arren, ez dot hemen sailkapenik egingo: «bertan», «derrepentien», «askotan», «gitxitten», «txitxien-pitxien», «lantzimiñien», «nosipeiñien»...

### 3.- Jarduera adiazoteko:

Zertan galdekariari lotzen jakozanak izango litzatekez honeik:

3.a. Singularrean:

«biarrien», «dxokoan»...

3.b. Mugagabeen:

«txori-abitten», «uretan», «bedarretan», «andratan»...

3.d. Aditz nominalizatuakaz:

«neurri barik edaten dabill»

«esta lotzatu ori esaten?»

### 4.- Modua adiazoteko:

Zelan galdekariari erantzuten deutesenak:

4.a. Singularrean:

«eskien ikus neuen lengoan»

«ixertzan etorten da basoti»

«edanalien dabill»

4.b. Mugagabeen:

«suten», «ketan», «ixerditten», «amesetan», «baketan», «ernegetan»...

### 5. Beste erabilera batzuk:

5.a. Zerbaiten balioa -preziosa- adiazoteko. Zenbatean edo zegan galdekariari jagokezanak:

«iru mille ta bostunien saldu dot sekorra»

«ogorlokoan be, karue da ori!»

5.b. Esamolde bihurturiko esaldi laburretan, askotasuna edo ugaritasuna adiazo lei:

«andratan egon soan an!»

«eurtengo neguen euritten eiñ ddeul!»

#### 3.1.7.13. Ablatiboa

Kasu honen marka oinarria **-ik** da: «nosik», «geurrik»... Halan be, oinarri honen ganean **-rik** eta **-ti(k)** be badaukaguz. Mugagaberako eta pluralerako, ostera, **-tarik/-tati(k)**.

Arazoa, ondorengo hau izango litzake: noz erabilten da -rik eta noz -ti(k)? Ez dirudi banaketa konplementario orekaturik dagoanik, sailkatzeko edozein definiziori akatsak aurkitu leioz-eta.

Azkueren aburuz, **nosik** galdekariari erantzuten deutesenek -denporazkoak- dauke -rik: «atxiñerik», «geurrik», «atzorik»... **Nondik** galdekariari erantzuten deutesenek -lekuzkoak-, ostera, -tik dauke: «urretik», «betik», «goititik»...

Argi dago honek ezin dauala erizpide bakarra izan, lekuzko askok -rik daukelako: «aterik ate»...; eta denporazko batzuk, -ti(k): «pasadan illetik»...

Beste alde batetik, izena errepikatzen danean edo destinoa zelanbait esplizitoki agertzen bada, badirudi -rik imini beharko dogula: «oirik ara», «egunerik egunera», «moskorrik moskor», «etzerik etze»... Baina ezelango izen errepikatzerik edo destino aitatzetik ez dagoanetan be, aurkitu geinke -rik atzizkia:

«betirik ixen da ori olan»

«lenaurik dabix orrek erdi trabes»

Beraz, oso zaila da esatea noz erabilten dan bata eta noz bestea. Zeozer aipatzekotan, **-rik** ablatibo zaharraren erabilera oparoa eta bizia azpimarratuko neuke.

**-Tarik** atzizkia ez da pluralerako erabilten. Mugagabeei bakarrik batzen jake eta oso forma gitxitan ganera:

«gastetarik gabix onetan»

«iruteri(k) p(b)aten utz eitten deu»

**Zuek** pertsona izenordainagaz be, bizidunei jagoken **-ganik** atzizkia egokitu behar dala pentsau leiteken arren, -tarik daukagu:

«suetari(k) p(b)atek»

Goian aipatu dan lez, **-ti(k)** eta **-tati(k)** aldakiak be baditugu ablatiborako. Honeitan bietan, -ik/-rik/-tarik hirukotean ez lez, ez da beti azken -k ahoskatzen: «emeti», «Bilboti»...

Pluralerako **-tati(k)** daukagu, eta ez -etati(k): «moltzoatatik», «arroatatik»... Edozelan be, asimilazino bokalikoaren ondorioz, pluraleko forma gehienek -etatik daukela dirudi: «etzietatik», «mendixetatik», «barkuetatik», «erridixetatik»... Ikusten danez, **-o** amaieradun berbek izan ezik, beste gutziek -etati(k) hartzen dabe.

Mugagaberako, bestalde, oso arraroak dira **-tatic** atzizkidunak, ia beti -ta- kendu egiten dalako: «seiñ etzetik?», «sein basoti?»... Baina badago -tagordetzen dauan formaren bat:

«soloan erdittetik pase da»

Hitz bakar baten -hirugarren graduko erakusleari lotuta-, bizkaieraren ablatibo marka zaharra be gorde da gaur eguneraino. Atzizki hau **-rean**

da, asimilazino bokalikoa dala-eta **-rien** forma hartu dauala:

«badekosu dirurik? -arien be estekot»

«sustririk, arien be esteko!»

Aldaki lez, **-txu** atzizki diminutiboagaz be agertu lei:

«arientxu ekar doskue»

Hiru balio desbardin hartu leiz ablatiboak:

-NONDIK: «asaurik», «gortatik», «goittik», «ondotik»... Beste batzuetan, esamolde bihurturik be: «atzerik ara», «alborik ara», «oirik ara»...

-NOS(T)IK: «atzorik», «geurrik», «lenaurik», «goixerik», «pasadan asterik»...

-SETATIK: «onetati(k)», «orretati(k)»...

Ablatibo zaharreko forma (-rik) dauken berba guztiak -tik atzizkiagaz be hornidu leiz gehienetan. Kasuren baten, -rik fosilizatuta lez geratu jake berba batzuei eta honekaz guztiz gatxa egiten da -tik erabiltea. Adib: «lenaurik».

Bizidunei jagokenez, **-gañik** forma zaharra -Leizarragak eta F. Bartolomek be holan darabile- jarri dot tauletan. Normalean holan izanik be, badi-ra salbuespen oso erabiliak: «geurgañik». (Bizidunei jagoken marka denpora adierazten dauan aditzondo bateri lotuta.)

### 3.1.7.14. Adlatiboa

Bere forma **-(e)ra** da, kontsonante amaieradunentzat -e- tartekatzen dalarik. Mugagaberako, oso arraroak dira -ta- dauken formak -ikusi kasu honen erabilerari buruzko 4. eta 7. puntuak-. Gehienetan, singularra lez egiten dira, hau da -(e)ra batuta: «bost errire», «sei(n) mendire?», «lau solora»...

Pluralerako, barriz, **-atara** gradu bako artikuluagaz eta **-otara** gradu hurrekoagaz.

Bizidunentzat, **-ga(i)ñe** marka oinarria daukagu, **noga(i)ñe** galdekariari jagokona, hain zuzen. Kontsonantez amaituniko berben mugagabeetan, -e- tartekatzen da. Singularerako: **-aga(i)ñe**. Pluralerako: **-aka(i)ñe/-oka(i)ñe**.

Eguneroko erabileran, sarritan ez da -g- ahoskatzen eta ondorioz honako honein antzekoak entzun leitekez: «amaiñe», «medikueañe», «laguneañe»... Dana dala, tauletan, atzizki osoa jartzea erabagi dot, hizkera zaindua-goetan holan erabilten dalako.

Bizidunen deklinabidean, hauxe dogu seguru kasurik erabiliena. Beste guztiak urrituz doazen une honetan, honek bizi-bizirik eta indartsu dirau.

Aztertu dagidan, besterik barik, kasu honeri jagokon erabilera. Hona hemen puntu batzuk:

1.- Izenki adberbializatuak:

«ganera», «gora», «albor»...

2.- Aditz bihurturik:

Kasu bakar bat bilatu dot erabilera honegaz eta ganera, esangurak, murrizketa semantikoa euki dau:

«oiretu sanien, berrogeiko kalenturie euki uen»

«Oiretu» dinogunean, ez dogu oheratzearen esangura zabala adiazoten, lagun bat, gaixotasunaren ondorioz ohera sartzeari jagokon ekintza baino. Bestela, «oire dxoan da» esango genduke eta ez «oiretu eñ dde».

3.- Denpora adiazoteko:

«ametik aurrera», «oñik geubera»...

4.- **Zelan** galdekariari jagokozan forma mugagabeak:

«eratar», «okerretara», «iruntzi(r)etara»...

5.- **Zertara** galdekariari jagokozanak:

Fruizko hizkeran, ez dogu **zertara** galdekariari jagokon helburuzko esaldi txertaturik ezagutzen. Beraz, ez genduke esango «su ikustera nator», «su ikusteko nator» edo «su ikusten nator» baino.

Beste alde batetik, «biarrera noa» dinogunean, ez dogu adiazoten zertara noan, nora noan baino: «biarra dauen lekure».

6.- **Notara** galdekariari jagokozanak:

Bizidunentzat izanik be, **-tara** atzizkia daukagu honeitan. Lagun batek noren antza daukan adiazoteko balio dau eta gehienetan, **emon** ala **etorri** aditzakaz lagundurik joaten da:

«orretan aittetara emon deu»

«ume-umetarik amatara dator»

7.- **Nora** galdekariari jagokozan erabilera mugagabe batzuk:

«surtera», «uretara», «esnetara»...

8.- Inesiboa edo instrumentalaren orde:

«geubera espabille eitten da ori»

«goixera erresau eingus»

Edozein modutan, «geubes/geubien» edo «goixes/goixien» formadunak, ez litzatekez goiko esaldi bi honein baliokide osoak. Beraz, adlatiboaren erabilerak, badauka zelanbaiteko nabarmentze bat inesibogaz eta instrumentalagaz konparatu ezker. Lehenengo eredian adibidez, ez da adiazotura, hain justu, **gabaz** -gauean- biztuten danik, **gaua heltzen dan neurrian** baino. Bigarren adibideari buruz be, beste hainbeste esan lei.

Beste kasu batzuri lez, leku-denporazko genitiboa gehitu leio adlatiboari be:

1.- **Norako** galdekariari jagokona:

«atzo suk eroan sendun etzerako ordie»

«partikeran sagar bat artu (e)ik biderako»

2.– **Nosko** galdekariari jagokona:

Bitarteko -ra- daukalarik nahiz bape barik agertu lei. Barriagoak dira -ra- dauken formak eta ondorioz erabilera urria dauke hiztun zaharrenen artean.

(1) «etziko eiñdde eon bideu»

«etzireko eiñdde eon bideu»

(2) «es itxi geroko»

«es itxi gerorako»

(3) «olako geusek betiko die»

«olako geusek betireko die»

3.– Adberbio esapideetan:

«se (e)sango tzut nik kasu beterako?»

«ori, kasu beterako, esta amen esan biarreko geusie»

### 3.1.7.15. Adlatibo Bukatuzkoa

Kasu honeri jagokon galdekaria **nora(i)ño** dogu. **Nora** galdekariaren konposatuetarikoa, hain zuzen. Bere atzizkia **-ra(i)ño** da.

Kasu honek euki leiken arazo handienetariko bat, **-ra(i)ño** eta **-rarte** atzizkien arteko bereizkuntza da. Ikusi daigun, bada, noz erabili daiteken bata, noz bestea eta noz biak:

1. -RA(I)ÑO:

1.a. Lekua adiazoteko bakarrik erabilten da atzizki hau: «errire(i)ño», «Bilbora(i)ño», «munera(i)ño»...

1.b. Inoz denpora adiazoteko erabiliko bada, **-no** eta **-iño** formak hartzen ditu:

«eguno esta etorri gurera»

«oniño estaitt etorko bada be»

2. -RARTE:

2.a. Denpora adiazoteko, beti erabiliko dogu -rarte, 1.b. ataleko salbuespenak aparte: «bidxerrarte», «bostatararte», «belurarte», «goixalderarte», «sasoirarte»...

2.b. Erabili lei lekua adiazoteko be, baina ez dauka zeregin honetan denpora adiazoteko daukan indar bardina. Halan be, gazteen artean zabalduz doala esan behar da:

«errekararte», «biderarte», «elixararte»...

Leku-denporazko genitiboa gehitu leio kasu honeri be:

«belunetara(i)ñoko basie egoan»

«suturaño atza dator gortati»

### 3.1.7.16. Adlatibo Bide Zuzenezkoa

Bere atzizkia **-rantz(a)** da berez, baina ia beti bukaerako -a daroanez, tauletan forma osoa imintea erabagi dot.

Pluralerako, **-atarantza** dogu gradu bako artikulua mugaturik dagozan formetarako eta **-otarantza** gradu hurrekoagaz lagundurik dagozanantzat. Hona hemen adibide batzuk:

«arrimeko sara su be askarantza»

«esnie(k) k(g)orantza eiñ ddeu»

«seiretarantza dxoango da, illunduten asitte dau te»

Leku-denporazko genitiboarekin, atzetik doan izena isildu egiten da, ondorengoak lango adibideak emonez: «beraskoa», «goraskoa»...

### 3.1.8. Erakusleen Azterketa

Normalean, izenaren aurretik joaten dira erakusleak. Hau holan dalarik, izenak beste mugatzaile bat be hartzen dau, aurreko erakusleak daukan kasu marka berberatik aparte:

«au etzie», «oneri txakurreri», «arekas gixonakas»...

Forma pluraletan, lehenengo gradu bietako erakusleekaz hornituriko izenek, gradu hurreko artikulua hartu leie:

«ónekas gixonokas», «órrekañe beidxoka(i)ñe»...

Beste askotan, erakusle bi izango ditu izen berak: bata aurreko aldean eta bestea, atzean:

«au etzi eu», «oneri txakur oneri», «onek bide onek»...

Kasu batzuek ez dauke singularreko erakusle propiorik ezagutzen -era-biltzen-. Honein lana, adberbio kategoriadun formek betetan dabe. Pluralen, ostera, ez dago ezelango arazorik:

«an etzien»            baina            «áretan etzietan»

«andik etzetik»      baina            «áretatik etzietatik»

«ara etzera»            baina            «áretara etzietara»

Esapideak osatzeko erreztasun handia dauke erakusleek; batez be hirugarren graduak. Ondoren aztertuko doguzanak, asko erabilten dira eguneroko hizkera bizian:

#### 1.- **ATAKOTZAT («artu»):**

**a)** Nonori merezi dauan garrantzia eta ohorea emon. Aintzat hartu:  
«atakotzat artzie gustetan dako»

**b)** Ezezekoan dagoanean, zeozer edo nonor ikusi, eta nor edo zer izan dan ez konturatzeari jagoko:

- «- fraka gorridune Anton ixen dok.
- etxoat atakotzat artu!»

## **2.- ATAÑOKOA:**

Hainbestearainokoa. Uste edo itxaron daiteken baino neurri handiagokoa. Ez jagoko neurriari bakarrik. Gehienetan, pertsona edo gauza baten izaera adiazoteko ahalegina izaten da:

- «atañokoa ixen leidxela lagunek!»
- «atañoko lagune ekarri eiñ eittiel!»
- Gaztelerak be badauka honen pareko esapiderik:
- «cómo se puede ser tan...», «que traiga un amigo tan...(así)»...

## **3.- HORRETAN (egon):**

Uste bera izan:

- «- etxoat pentzetan euridxe (e)in bideuenik.
- neu be orretan nau»

## **4.- A(G)AITTIK:**

Hortaz. Lokailu balioa dauka.

(Berandu da.)

«esatosie aaittik»

(Oporretatik zuri-zuri etorri dira.)

«denpora illunek euki sues aaittik»

## **5.- BERA(K) BERATARA:**

Nonork bere kontura ekin. Bere kabuz:

- «bera beratara ibilttie gustetan dxako»
- «berak beratara ata(r)ako asmue da gero!»

## **6.- ATAN:**

Karta jokoan, palu jakin bateko karta bat mahai ganean dagonean, palu bereko batekoagaz edo hirukoagaz jateari, «atan eukittie» deritzo:

«atan deko euki be gero!»

## **7.- ANDIK ARA:**

Gauza bat ahaztu edo gehiago aipatzen ez danean esaten da. Batez be, zeozer emon eta bueltetan ez danean:

(Nonori dirua itxi eta bueltetan ez dauanean)  
«nire mille peestak andik ara die»  
«kodañie itxi netxen da..., geidxau andik aral»

### 8.- Galdetzaile batzuen ostean:

**8.a).- NORA EDO ARA:** Nonora.

«nora edo ara mogidu en bidu!»

**8.b).- NON EDO AN:** Nonon.

«topeistesu non edo an, jainkoarren!»

**8.c).- NONDIK EDO ANDIK:** Nonondik.

«nondik gusu ekartie ba?

-nondik edo andik!»

NORA EDO ARA, NON EDO AN, NONDIK EDO ANDIK esapideak nonora, nonon eta nonondik formen bidez definitu doguzan arren, honeik baino askoz be adierazkorragoak dirala esan behar da. Indar berezi bat edo bilatu gura danean erabilten dira.

**8.d).- SETAN EDO ATAN:** Zeozertan.

«setan edo atan, beti topetan deu biarra gerol»

Honi jagokon forma ez-adierazkorra «seusetan» da. Aurreragoko atalean aipaturiko oharrak, balio deusku honako be.

### 3.1.9. Zenbatzaileen Azterketa

#### 3.1.9.1. Zenbatzaile zehaztuak

Zenbatzaileei jagoken arazo garrantzitsuenetarikoa, «bat» eta «batzuk»-en deklinabidea dogu. Gehienetan mugagabe lez erabilten badira be, forma mugatua be onartzen dabe **-beste** berbaren eraginpean dagozanean:-

(1)«gixon bat etor soan»

(1')«bata txikidxe soan eta bestie koxoa»

(2)«txakur batzuk ikus nidxuesan»

(2')«batzuk eusi baiño etxuen eitten, eta bestiek...»

1s							
2s							
3s	balakast /-es		balakatzo /-s	balakasku /-s	balakatzu /-s	balakatzue /-s	balakatzie /-s
1p							
2p							
3p							
4p	balakastie /-s		balakatzie /-s	balakaskue /-s	balakatzue /-s	balakatzue /-s	balakatzie /-s

**ONDORIOA / ORAINA-GEROA / NOR  
IZAN / \*EDIN**

**IZAN**

1. nintze
2. intze/-na
3. litze
4. gintze(s)
5. sintze(s)
6. sintzie
7. litzes

**\*EDIN**

- |               |           |
|---------------|-----------|
| 1. nitteke    | nitte     |
| 2. intteke    | intte/-na |
| 3. litteke    | litte     |
| 4. ginttekes  | gintte(s) |
| 5. sinttekes  | sintte(s) |
| 6. sinttekies | sinttie   |
| 7. littekes   | littes    |

**ONDORIOA / ORAINA-GEROA / NOR  
IZAN / \*EDIN (ALOKUTIBOAK)**

**IZAN**

1. nintzok / -na
2. intze / -na
3. litzok / -na
4. gintzosak / -na
- 5.
- 6.
7. litzosak / -na

**\*EDIN**

1. nittok / -na
2. intteke // intte/-na
3. littok /-na
4. ginttosak / -na
- 5.
- 6.
7. littosak /-na

<b>ONDORIOA / ORAINA-GEROA / NOR-NORI / EUTSI (IZANen ordez)</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s							
2s							
3s	list(e) ----- listek <sup>1</sup> /-na			lisku ----- liskuk /-ne	litzu/ lixu	litzue/ lixue	
1p							
2p							
3p							
4p	listes ----- listesak /-na			liskus ----- liskusek /-na	litzus/ lixus	litzues/ lixues	

<sup>1</sup> Alokutibo formak be kuadro honetan jarri dodaz, oso gitxi dira-eta.

<b>ONDORIOA / ORAINA-GEROA / NOR (ZER)-NORK / EDUN</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			neuke/ neke				neukes/ nekes
2s			eunkek /-na enkek /-na				eunkesak /-na enkesak /-na
3s			leuke/ leke	gendukes	sendukes		leukes/ lekes
1p			geunke/ genke				geunkes/ genkes
2p			seunke/ senke				seunkes/ senkes
3p			seunkie/ senkie				seunkies senkies
4p			leukie/ lekie				leukies/ lekies

<b>ONDORIOA / ORAINA-GEROA / NOR (ZER)-NORK / EDUN (ALOKUTIBOA)</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			nekek /-na				nekesak /-na
2s			eunke/ enke /-na				eunkesak enkesak /-na
3s			lekek /-na				lekesak /-na
1p			genkek /-na				genkesak /-na
2p							
3p							
4p			lekiek /-na				lekiesak /-na

<b>ONDORIOA / ORAINA-GEROA / ZER-NORI-NORK / EUTSI</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			neskidxo /-s		neskixu /-s	neskixue /-s	neskidxue/ neskidxie
2s							
3s	leskist /-es lixt(e) /-s		Leuskidxo leskidxo/ lidxo/ litzo	leskigu/ lixku/ losku /-s	leskixu/ litzu/ lixu /-s	leskixue litzue/ lixue /-s	leski dxie/ lidxue/ litzie <sup>2</sup>
1p			geuskidxo /-s		geuskixu /-s	geuskixue /-s	geuskidxue /-s
2p	se(n)skit /-es lixtesu		senkidxo /-s	lixkusu /-s			senkidxie/ litzesue /-s
3p	lixtesue lostesue /-s		senkidxie /-s	lixkosue /-s			senkidxie/ litzesue /-s
4p	leskis tie/ lixtie /-s		leskidxie lidxie/ litzie /-s	lixkue/ loskue /-s	leskixue litzue/ lixue /-s	leskixue litzue/ lixue /-s	leskidxie/ lidxie/ litzie

<b>ONDORIOA / ORAINA-GEROA / ZER-NORI-NORK / EUTSI (ALOKUTIBOA)</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			neskidxok /-sak /-na				neskidxuek /-sak /-na
2s							
3s	leskixtek/ lixttek /-sak		leskidxok/ lidxok /-sak /-na	leskiguk/ lixkuk/ loskuk /-sek			leskidxiek/ lidxuek /-sak
1p			geuskidxok /-sak /-na				geuskidxuek /-sak /-na
2p							
3p							
4p	leskixtiek/ lixtiek /-sak		leskidxiek/ lidxuek /-sak	lixkuek/ loskuek /-sak /-na			leskidxiek/ lidxuek /-sak

<sup>2</sup> «Litzie»/«letzie»/«lotzie», «lixkue»/«loskue»... etabar bezalako alternantzia ugari dago. Seguruenik, ez nituen guztiak jarriko.

### 3.2.3. Subjuntiboa

**SUBJUNTIBOA / ORAIN ALDIA / NOR / \*EDIN**

**\*EDIN**

1. neitten / nitten
- 2.
3. deitten / ditten
4. geittesan / gittesan
5. seittesan / sittesan
6. seittesien / sittesien
7. deittesan / dittesan

**SUBJUNTIBOA / ORAIN ALDIA / NOR-NORI / \*EDIN**

	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			nakidxon		nakixun/ naitzun	nakixuen naitzuen	nakidxien/ nakidxuen
2s							
3s	dakidan/ daixten		dakidxon	daixkun	daitzun	daitzuen	dakidxien/ dakidxuen
1p							
2p							
3p							
4p			dakidxosan	daixkusen	daitzusen	daitzuesan	dakidxiesan/ dakidxuesan

<b>SUBJUNTIBOA / ORAIN ALDIA / NOR (ZER)-NORK / EGIN</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			deidan				deidasan
2s							
3s	neidxen		deidxen/ didxen	giesan	siesan	siesan	deixen/ dixen
1p			deigun/ digun				deigusen digusen
2p	neixun/ nixun		deixun/ dixun	geixusen			deixusen dixusen
3p	neixuen/ nixuen		deixuen/ dixuen				deixuesan/ dixuesan
4p	neidxien nidxien		deidxien/ didxien				deidxiesan/ didxiesan

<b>SUBJUNTIBOA / ORAIN ALDIA / ZER-NORI-NORK / EGIN</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			deitzodan deidxodan /-san		deitzudan /-san	deitzuedan /-san	deidxuedan /-san
2s							
3s	deixten/ dixten /-san		deitzon/ ditzon/ didxon /-san	deixkun/ dixkun /-sen	deixun/ deitzun/ ditzun /-sen	deixuen/ deitzuen ditzuen /-san	deitzien/ ditzien/ didxuen /-san
1p			deidxogun /-sen				
2p	deixtesun/ dixtesun /-sen		deitzesun/ ditzesun/ deidxosun /-sen	deixkusun/ dixkusun /-sen			deitzesuen/ deidxosuen
3p	deixtesuen/ dixtesuen		deitzesuen/ deidxosuen	deixkusuen/ dixkusuen			deitzesuen/
4p	deixtien dixtien /-san		deitzien deidxuen /-san	deixkuen dixkuen /-san	deixuen/ deitzuen ditzuen /-san	deixuen/ deitzuen ditzuen /-san	deitzien ditzien didxuen /-san

**SUBJUNTIBOA / IRAGANA / NOR / \*EDIN**

**\*EDIN**

1. nintten
- 2.
3. eitten
4. ginttesan / gintxesan
5. sinttesan / sintxesan
6. sinttesien / sintxesien
7. eittesan

3.2.4. Ahalera

**AHALERA / ORAINA-GEROA / NOR  
\*EDIN / IZAN**

**\*EDIN**

- |               |           |
|---------------|-----------|
| 1. nitteke    | nitte     |
| 2. intteke    | intte/-na |
| 3. litteke    | litte     |
| 4. ginttekes  | gintte(s) |
| 5. sinttekes  | sintte(s) |
| 6. sinttekies | sinttie   |
| 7. littekes   | littes    |

**IZAN**

1. nintze
2. intze/-na
3. litze
4. gintze(s)
5. sintze(s)
6. sintzie
7. litzes

**AHALERA / ORAINA-GEROA / NOR  
\*EDIN (ALOKUTIBOA)**

**\*EDIN**

1. nittok / -na
2. intteke // intte/-na
3. littok / -na
4. ginttosak / -na
- 5.
- 6.
7. littosak / -na

<b>AHALERA / ORAINA-GEROA / NOR-NORI / EUTSI (*EDINen ordeze)</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s							
2s							
3s	Paradigma hau ez dot bete <b>Ondoriozko</b> NOR-NORI paradigmaren parekoa dalako. EUTSI aditzak IZAN ordezkatzan eban ondoriozkoetan. Ahalezkoetan ostera, *EDINen funtzinoa betetzen dau.						
1p							
2p							
3p							
4p							

<b>AHALERA / ORAINA-GEROA / NOR (ZER)-NORK / EGIN</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			nei/ neike/ nike				neix/ neikes/ nikes
2s			einke /-na				einkes /-na
3s			lei/ leike/ like				leix/ leikes/ likes
1p			g(e)iñei/ geinke/ ginke				g(e)iñeix/ geinkes/ ginkes
2p			s(e)iñei seinke/ sinke				s(e)iñeix/ seinkes
3p			seinkie				seinkies
4p			l(e)idxie leikie				l(e)idxies/ leikies

<b>AHALERA / ORAINA-GEROA / NOR(ZER)-NORK / EGIN (ALOKUTIBOAK)</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			neidxek/ neikek /-na				neixek/ neikesak /-na
2s			einke /-na				einkes /-na
3s			leidxek/ leikek /-na				leixek/ leikesak /-na
1p			geinkek /-na				geinkesak /-na
2p							
3p							
4p			leidxiek/ leikiek /-na				leidxiesak/ leikiesak /-na

<b>AHALERA / IRAGANA / NOR(ZER)-NORK / EGIN</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			neiken				neikesan
2s							
3s			eiken				eikesan
1p			geinken				geinkesan
2p			seinken				seinkesan
3p			seinkien				seinkiesan
4p			eikien				eikiesan

<b>AHALERA / ORAINA-GEROA / ZER-NORI-NORK / EGIN</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			neidxo/ nidxo/ neikidxo/ n(e)itzo /-s		neixu/ nixu/ neitzu/ nitzu /-s	neixue/ nixue/ neitzue/ nitzue /-s	neidxue/ neidxie /-s
2s							
3s	leixt/ lixt /-es		leidxo/ lidxo/ leikidxo/ litzo /-s	leixku/ lixku /-s	leixu/ lixu/ leitzu/ litzu /-s	leixue/ lixue/ leitzue/ litzue /-s	leidxue/ lidxue/ leidxie/ lidxie /-s
1p			geiñidxo/ geinkidxo /-s		geinketzu geinkixu /-s	geinketzue geinkixue /-s	geinkidxue /-s
2p	seinste/ seinst/ seinkist /-s		seiñidxo/ seinkidxo seintzo /-s	seinsku /-s			seiñidxue/ seintzie /-s
3p	seinstie seinkistie /-s		seiñidxue seintzie /-s	seinskue /-s			seiñidxue/ seintzie /-s
4p	leixtie/ lixtie /-s		leidxue/ lidxue/ leidxie/ lidxie /-s	leixkue/ lixkue /-s	leixue/ lixue/ leitzue/ litzue /-s	leixue/ lixue/ leitzue/ litzue /-s	leidxue/ lidxue leidxie/ lidxie /-s

<b>AHALERA / ORAINA-GEROA / ZER-NORI-NORK / EGIN (ALOKUTIBOA)</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			neidxok/ nidxok/ neikidxok /-sak /-na				neidxuek neidxiek /-sak /-na
2s							
3s	leixtek/ lixtek /-sak /-na		leidxok/ lidxok/ leikidxok /-sak /-na	leixkuk/ lixkuk/ /-sek /-ne			leidxuek lidxuek leidxiiek lidxiiek /-sak
1p							
2p							
3p							
4p	leixtiiek lixtiiek /-sak /-na		leidxuek/ lidxuek/ leidxiiek/ lidxiiek /-sak	leixkuek lixkuek /-sak /-na			leidxuek lidxuek leidxiiek lidxiiek /-sak

<b>AHALERA / IRAGANA / ZER-NORI-NORK / EGIN</b>							
	1s	2s	3s	1p	2p	3p	4p
1s			neidxon/ nidxon/ neikidxon /-san		neixun/ neitzun /-sen	neixuen/ neitzuen /-san	neidxuen /-san
2s							
3s			eikidxon /-san				eikidxuen /-san
1p			geiñidxon geinkidxon /-san		geinketzun geinkixun /-sen	geinketzuen geinkixuen /-san	geinkidxuen /-san
2p	seinkisten /-san		seiñidxon seinkidxon /-san	seinskun /-sen			seiñidxuen /-san
3p	seinkistien /-san		seiñidxuen /-san	seinskuen /-san			seiñidxuen /-san
4p			eikidxuen /-san				eikidxuen /-san

### 3.2.5. Aginte Era

#### \*EDIN (NOR)

- |                         |                        |
|-------------------------|------------------------|
| 1. ....                 | neitten /nitten        |
| 2. adi /-ñe             |                        |
| 3. ....                 | deittela / dittela     |
| 4. ....                 | geittesan / gittesan   |
| 5. seittes / sittes     |                        |
| 6. seittesie / sittesie |                        |
| 7. ....                 | deittesela / dittesela |

#### \*EDIN (NOR-NORI)

	NI	HA	HAREIK
NIRI		dakidala	
HIRI			
HARERI	nakidxola	dakidxola	dakidxosala
GURI		daixkule	daixkusela
ZURI	nakixule	daitzule	daitzusela
ZUERI	nakixuela	daitzuela	daitzuesela
HAREI	nakidxuela	dakidxuela	dakidxuesala

**EGIN** (NOR-NORK)

	HA	HAREIK
HIK	eik/-ñe	eixek/-na
ZUK	eixu	eixus
ZUEK	eixue	eixues
HAREK	deidxela	deixela
HAREIK	deidxiela	deidxiesala

	NI	GU
HIK	neik/-ñe	geixek/-na
ZUK	neixu	geixus
ZUEK	neixue	geixues
HAREK	neidxela	giesala
HAREIK	neidxiela	.....

**EGIN** (ZERSing.-NORI-NORK)

	HARERI	HAREI	ZURI
HIK	eidxok/-na	eidxuek/-na	.....
ZUK	eidxosu/ eitzesu	eidxosue/ eitzesue	.....
ZUEK	eidxosue/ eitzesue	eidxosue/ eitzesue	.....
HAREK	d(e)idxola/ d(e)itzola	d(e)idxuela/ d(e)itziela	d(e)ixule/ d(e)itzule
HAREIK	d(e)idxuela/ d(e)itziela	d(e)idxuela/ d(e)itziela	d(e)ixuela/ d(e)itzuela
NIK	deidxodala	deidxuedala	d(e)itzutela
GUK	deidxogule	.....	.....

	NIRI	GURI	ZUERI
HIK	eixtek/-na	eixkuk/-ne	.....
ZUK	eixtesu	eixkusu	.....
ZUEK	eixtesue	eixkusue	.....
HAREK	d(e)ixtela	d(e)ixkule	d(e)ixuela/ d(e)itzuela
HAREIK	d(e)ixtiela	d(e)ixkuela	d(e)ixuela/ d(e)itzuela

**EGIN** (ZERplur.-NORI-NORK)

	<b>HARERI</b>	<b>HAREI</b>	<b>ZURI</b>
HIK	eidxosak/-na	eidxuesak/-na	.....
ZUK	eidxosus <sup>3</sup> / eitzesus	eidxosues/ eitzesues	.....
ZUEK	eidxosues/ eitzesues	eidxosues/ eitzesues	.....
HAREK	d(e)idxosela/ d(e)itzosela	d(e)idxuesala/ d(e)eitziesela	d(e)ixusela/ d(e)itzusela
HAREIK	d(e)idxuesela/ d(e)itziesela	d(e)idxuesela/ d(e)itziesela	d(e)ixuesela/ d(e)itzuesela
NIK	deidxodasala	deidxuedasala	d(e)itzutesela
GUK	deidxogusela	.....	.....
	<b>NIRI</b>	<b>GURI</b>	<b>ZUERI</b>
HIK	eixtesak/-na	eixkusek/-na	.....
ZUK	eixtesus	eixkusus	.....
ZUEK	eixtesues	eixkusues	.....
HAREK	d(e)ixtesela	d(e)ixkusela	d(e)ixuesela/ d(e)itzuesela
HAReiK	d(e)ixtiesela	d(e)ixkuesela	d(e)ixuesela/ d(e)itzuesela

**EGON** (NOR)

1. ....
2. au
3. dauela
4. ....
5. saus
6. sausie
7. dausela

**ETORRI** (NOR)

1. ....
2. etor
3. datorrela
4. ....
5. satos
6. satosie
7. datosela

**IBILI** (NOR)

1. ....
2. abill
3. dabilela
4. ....
5. sabix
6. sabixie
7. dabixela

**JOAN** (NOR)

1. ....
2. oa
3. doala
4. ....
5. soas
6. soasie
7. doasela

3 «Eidxosus», «eidxosues», «d(e)idxosela»... etabar lako formak, zaharragoen artean nagusitzen diran bitartean, «eitzesus», «eitzesues», «d(e)itzosela»...eta antzerakoak, apurka-apurka, gazteen artean zabalduz doaz. ZER singularra dauken formetan be, beste hainbeste gertatzen da.

**ERDU (NOR)**

**TIRATU (NOR)**

- |             |             |
|-------------|-------------|
| 1. ....     | .....       |
| 2. erdu     | tirok / -na |
| 3. ....     | .....       |
| 4. ....     | .....       |
| 5. erdu     | tirosu      |
| 6. erdu(i)e | tirosue     |
| 7. ....     | .....       |

**EUTSI (ZER-NORK)**

HIK	eutzok/-na	eutzosak/-na
ZUK	eutzosu	eutzosus
ZUEK	eutzosue	eutzosues

**ADITZ DEFEKTIBOAK**

**ERITXI**

1. de(r)itxet // de(r)itxot // de(r)itxat
2. de(r)itxek/-na // de(r)itxak/-na
3. de(r)itxo
4. de(r)itxegu
5. de(r)itxesu
6. de(r)itxesue
7. de(r)itxie

**JARIO**

3. da(r)idxo

**IRUDI(TU)**

1. ....
2. dirudik/-ñe
3. dirudi
4. ....
5. dirudisu
6. dirudisue
7. ....



## 4. SINTAXIA

Kapitulu honetan, ESALDI alkarketa besterik ez da aztertuko, esaldi bakunari buruzko hainbat zehaztasun morfosintaxiari eskainiriko kapituluetan emoten da-eta. Beraz, Fruizko hizkeran erabilten diran esaldi koordinatu eta menpekoen inbentarioa eta sailkapena egiten ahaleginduko naz.

### 4.1. ELKARKIDETZA EDO KOORDINAZIOA

#### 4.1.1. Juxtaposizinoa

Hona hemen adibide batzuk:

- «arek asko daki, etxako ba(t) pasetan»
- «os dxauk, enodxoak partidure»
- «anaidxek (g)osak, ondo konpondu bidxuk»

#### 4.1.2. Juntagailuakaz

##### 4.1.2.1. *Kopulatiboak*

### **ETA, TA, DA**

- «etor sien soldaduek eta andra gustidxek saataka asi sien»
- «aitte paroan dekie ta estekie se dxanik»
- «suk egidxe esan da etzue (e)ser eingo»

– Elipsia gertatzen danean:

- «berakatzak eta kinpulek (k)aru daus»
- «osasune ta dirue ona tie»
- «geur de bidxer estau biarrik»

– Zergaitizko kutsua hartu lei:

- «goasok, belu (d)ok eta!»
- «esik gusurrik esan, surre lusetuko dxate ta!»
- «esiñ ddot olgeu, estakitt eta»

– Esaldi bakunen atalen ugaritasuna adierazteko:

- «Miren-da estados eurten»
- «billosik-eta ibil soasen»

## **BAITTE...BE**

Juntagailu honen erabilera urria dala esan geinke. Adierazkortasuna bilatu gura danean erabilten da, batez be. Bakarrik be agertu daiteken arren, gehienetan BE bategaz lagundurik joaten da:

- «ondo ibilli. Baitte seue pe»
- «gu ikus gosues? Bai. Eta Kepa? Baitte»
- «iru ankako txala dxaidxo dxakuk.-Baitte sera be!»

## **ESTA...BE**

Arteragoko juntagailuari buruz esandakoak honentzat be balio dau.

- «estekie borondaterik, esta diruri pe»
- «badekosu ollorik? Es. Eta konejurik? Esta»

Adierazkortasun edo indar berezia eman gura danean birritan errepikatzen da ESTA juntagailua, bere atzetik etorri beharreko guztia isilduz:

- «estere meresidu, esta, esta...!»

## **BE, BERE**

Lehenengoa -BE- dogu Fruizko forma zabala. Halan be, Mandaluiz auzoan ez da bape arraroa BERE entzutea.

- «nik ondo dakitt ori, sue pe ondo dxakin biko senkie»
- «dánari emon (n)etzien, seuri be agiñddu nitzun»

## **BE BAI**

Aurreko erreferentzia enuntziatua datorrenetan, BAI-k bete lei predikazinoaren zeregina:

- «artuten baki, emoten be bai»
- «os dauenien kikiillddute oten da, bero dauenien be bai»
- «Kepak ingles dxakik, Igone(k) pe bai»

## **BES**

- «aitte esta etorko, ama bes»
- «nik estot entzun, sue pe esenduen entzungo»

## **ES ESE...BE**

ES ESE-k, BE -ren bitartez beste topiko bat sortzen dau, topiko hau lehenengoaren kide izango dalarik. Beraz, topiko-bikote sortzailatzat jo geinke ES ESE partikula.

- «olge esese, biar be eitten deu orrek»
- «gaste esese, irebasi be politto eitten deu»
- «inglesa esese beste iru berbeta klase be i dakix»

«lo esese, putze pe edarrak eitten txus orrek»

### **ES...ES...**

«estoskue (e)mon es beskaririk, es beridxendarik»

«esteu gure es estudidxorik, es biarrik»

«etzie (e)saten es baietzik, es esetzik»

### **4.1.2.2. Disjuntiboak**

#### **EDO / ALA**

Partikula bi honein erabilera nahiko ondo finkaturik dago. Halanda be, ez neuke esango beti «asmazen» dogunik. Honen ganean asko idatzi dan arren, ez dirudi gauzak guztiz argi dagozanik. Noz bata eta noz bestea? . Lehenengo, ALA «termino markatua» dala esan behar da. EDO-k, beraz, arlo zabalagoa hartzen dau; ia beti erabili lei.

Itaun bat dagoanean ia beti ALA erabilten dan arren, ezin dogu esan baldintza bakarra hori danik. Badirudi ALA juntagailuak «aukeratu behar bat» erakusten dauala; alternatiba bat eskatzen dauala.

ALA: «dxoan soas ala etorri satos?»

«gorridxek ala suridxek (g)ustetan dxatzus geidxau?»

«asko falta dako, ala?»

«ser deko Mirenek, mutille ala neskie?»

Itaunezkoak ez diran esaldietan be aurkitu geinke ALA, esapide klitxetuen osagai moduan:

«ill ala bixiko operasiñoa eiñdde dau ori»

EDO: «biximoduek kanbidxe en bideu edo estau se (e)iñik»

«aixे gogorran bat ixen da edo umiek ibill ddie amen»

«amari kasu eiñ edo etzien lotu»

#### **EDO...EDO**

«edo juergie edo lapurretie, besterik estekosu gogoan!»

«edo formal ibilli edo etzien lotu, bidxetati pat!»

«edo estudidxeu edo biarrien asi, mogidu en bida!»

#### **NAI (NEI), SEIÑ**

«kanpoan egon seiñ kartzelan egon, bardin-bardin tzie»

«urrera nai atzera eitten deu orrek»

«bata sein bestie artu esta diferentzi andirik egongo»  
«orreri esan nei txakurreri esan, kasu bardiñe»  
«ixerak, sobrekamak, mantak nai edoser ekarte seuen»

#### 4.1.2.3. *Distributiboak*

BATA..., BESTEA...  
BATARI..., BESTIERI...  
BATEKO..., BESTEKO...  
BATAK..., BESTIEK...  
BATIEN..., BESTIEN...  
...-LA, ...-LA  
BAI..., BAI...  
«batien euridxe dala, bestien eguskidxe, kamiñerue peti geldi»  
«batak estekolako, bestiek emon gure (e)steuelako...»  
«batien lar ekarten deu, bestien bapes»  
«bai semiekas, bai lobakas, ondo pasetan da danakas»

Orain arte aipaturiko jokoei, beste bi gehitu behar jakez:  
NAI..., NAI... (NEL..., NEL...)  
SEIÑ..., SEIÑ...  
«biar asko eiñ nai bapes eiñ, bardin pagetan doskue»  
«seiñ okelasalie ixen seiñ arrainsalie ixen, danantzako elejidxe dau»  
«nei olan eiñ nei bestetara eiñ, beti topetan deu atxakidxe»

#### 4.1.2.4. *Adbersatiboak*

Juntadura adbersatiboaren bidez loturiko esaldiek, alkarren arteko kontraktotasun bat izaten dabe. Juntagailu asko dogu erlazio mota hau adiazoteko, eta ondorioz, ez dago esangura aldetiko batasunik: kontraposizinoa, ñabardura ezbardinakaz egin daiteke eta juntagailu bakotzak bere berezitasunak daukaz.

### **BAIA**

«aittek ondo esaten tzo, baia ama negar da negar dabil»  
«aspaldixon esteu euririk eiñ, baia estau siketarik»  
«belu de, baia eskoas etzera»  
«astu eiñ dxako, esta makala baial»  
«dxoan en bikot, esto kure baia»

### **BA(D)ÑO**

- «artotzie esteu askonarrak triskeu, basurdie paño»
- «etzut suri esan, umieri ba(i)ño»
- «enas etzetik etorri, tabernati paño»

### **BARIK / BIARRIEN**

- «olgetan barik, benetan dabix órrek»
- «neuk artu biarrien berak (k)oixu deu»
- «dánari esan sentzien ixilik egon biarrien»

### **ESPADA SE**

- «ori esta makiñieas en biar, espada se eskuekas»
- «árek esoasen Ameriketara dxoan, espada se Brasillera»
- «aldatzien estau peligrurik, espada se eurberan»

### **ESPABE / OSTANTZIEN / OSTIEN**

- «musturre garbittu, espabe esatos guges»
- «formal ibilli, ostantzien etxatzue eser ekarko»
- «parka eske etor soasen, ostien an lotuko soasen»

Beste juntagailu batzuen arrimuan:

- «estulapur bet (d)eko, baia ostantzien ondo dau»
- «a tontoa da, edo espabe moskortute egongo da»

### **OSTERA / BARREIX**

Ezin lei esan partikula bi honeik guztiz baliokideak diranik. Lehenengo -»ostera», askoz be neutroagoa da, erabilera zabalagokoa. Bigarrena -»barreix», ostera, adierazkorragoa da. Termino markatua dala esango genduke; juntagailu betebeharrak aparte, «beste» era bateko eginkizun bat be badauka-eta:

- «sarragas estekie pos andirik, gastie barreix on utze da»
- «ama ondo dekie oniño, aitte ostera erdi makali txabikie»
- «beran denpora danien arantz-orrantz ibilli de, andrie ostera, biar da biar»

### **ESIK / ESIEN**

- «beste dana txoan die seuek ixen esik»
- «geu etorri esien, amen estau seiñik»
- «lengusu-lengusiñek ixen esien, danak eroan txus bodara»

**BESTALA** -lit. BESTELA-

Ez dogu juntagailu betebeharretan erabilten. Gure hizkeran, adberbioa -aditzondoa, nahi bada- da. Elkarrizketa baten, aurrerago aipatuniko zeo- zergaz konparazinoa egiten dau, beti be, egoera hobeago bat proposatzen daualarik. Leku-denporazko genitiboa be gehitu leio:

«bestala gaus amen»

(Leku bateri buruz berba egiterakoan, han baino hobeto gagozala adierazteko.)

«Bestalako denporie deku geur»

(Aurreko eguneko -egunetako- eguraldiaren ganean berba egiterakoan, gaurkoa askoz hobe dala adiazoteko.)

## 4.2. MENDERAKUNTZA

### 4.2.1. Konpletiboak

#### **-(E)LA**

##### **1.-Indikatiboan:**

– Nagusia baiezkoan:

«etor dala esan dosku»

«semieri emon bitzola pentzetan deu»

«aixen biderela sartu dxakie buruen»

– Nagusia ezezkoan:

«estakidxie amen dauela»

«orrek estaki bidxer txarrixek ilkusela»

«estosue pentzetan asko dakittela»

– Baiezko itaunetan:

«egidxe da aitte ixen sarala?»

«baki kalte eiñ ddotokule?»

«estatosela esan tzue?»

– Ezezeko itaunetan:

«enitzun esan neuk ekarkotela?»

«es as kontuututen alperri tala?»

«estosue pentzetan ogoto ixengo dala olan eittie?»

## 2.- Ondoriozkoan:

«jente asko etorko litzela pentzetan dot»

«bera pe apur bet dxango lekela esan dosku»

«esta gusurre agiñetako bat emongo neskixule»

## 3.- Ahalezkoan:

«littela etorri entzun dot»

«esamiñe aprobe neidxela esan dostie»

«esan doskue erretiek umieri kalte ein lidxola»

## 4.- Subjuntiboan:

«dxoan dittela esan tze(t) k(g)ure badeu»

«formal ibil sitiesela diñotzu(t) k(g)ero!»

«arexeri lagundu deidxola bakarrik eskatuten dot»

## -(E)NA

Perpau txertatuko ekintza hitzunarentzat ezaguna danean -egia danean-, -(E)NA atzizkia behar dau; ostantzean, -(E)LA:

«igerritte nau belu en bidxatzune»

«esun de estakidxena»

«urte asko da ardaurik edan estotena»

«ikusten deu se (e)ñnik estekona»

«grasidxek etor sarana»

Badago arazo bat hemen aipatu beharrekoa: -(E)LA zein -(E)NA erabili daiteken esaldietan, azentu aldaketa be nabaritu daiteke:

«igerritte nau belu en bidxatzúne»

«igerritte nau belu en bidxatzulé»

## -(E)NIK

Perpau bateri ezezeko nahiz galderazko transformazioa ezartzen jakonean eta perpau horrek bere mendean -(E)LA atzizkiaz osaturiko konpletiboa daukanean, gehienetan -(E)NIK agertuko jaku:

«entzun dosu eiñ ddeuenik?»

«esto txakiñ amen biarrien sabixenik»  
«esto(t) pentzetan txarrau ein littenik»  
«eneuen dxakiñ ainbeste en bisanik»  
«esendun pentzeko euskeras dakidxenik»

### **Menpeko adizkia subjuntiboan (-N)**

«esto kure dxoan sittesan»  
«billur nas kalte ein didxon»  
«geldi egon sittesien gudot»

### **SELAN...-N**

«akordetan (n)as selan esan seuen»  
(«akordetan (n)as esan seuela»)  
«ikus (s)enduen selan gusurre esan seuen»  
(«ikus (s)enduen gusurre esan seuela»)  
«ulertu dot selan bidxer satosen»  
(«ulertu dot bidxer satosela»)

### **Aditz izen deklinatua**

-TIE

«txurku-txurku edatie gustetan dxako»  
«Euskelerridxe askatutie gure neke»  
«errenterue(k) p(b)otatie esta erresa»

-TIEK

«agirika eittiek etzo ardure orreri»  
«iñori barre eittiek estekotzu bentajarik»  
«asko dxokatutiek esteu eser esan gure»  
«grasidxe emoten dost olan ikustiek»

-TERIK

«esto kure eser apurtuterik (g)ero»  
«estekosu emen erretarik»  
«elixa barruen estau berba eitterik»

-TEKO

«sagarra patzeko esanda nau»  
«geidxau es etorteko agiñdu doskue»  
«munarridzek imiñtten lagunduteko eskatu tzie»

-TIERI

«garidxe eraittieri itxitte daus»  
«Bermiora dxoatieri esteritxo ondo»  
«barre eittieri emonda dau»

-TIEN (-TE-A-REN)

«asko dxatien kontue tosak órrèk»  
«larrei dxakittien arasue tekosus»  
«ori apurtutien errue seue tekosue»

**Aditz partizipio deklinatua**

«damutu dxat mille bider esana»  
«penie dekot es ikusidxe»

**Zehar galderak**

1.- Zati itaunak (Galdetzaille bidez osatunikoak)

- Esaldi asertiboan:

«nok eiñ ddeuen dxakin gure neke»  
«seaittik estosun saludeu pregunte deu»  
«seuk esan bikosu se gusun»  
«arek estaki nondik ibilli»

- Inaunezko esaldietan:

«estakixu se pase dxakon?»  
«esan tzesue nondik asi?»  
«baki nor dan a mustur lusie?»  
«beittute daus selan en bidan?»

- Aginduzkoetan:

«esaistesu se gusun!»  
«pentzeixue ondo selan eiñ»  
«neuk esango tzut se (e)karri»

Atal honetan sartu beharko gendukez esapide bihurturik dagozan beste honeik be:

- «sagarra nos dxeusiko dau»
- «andidxaua nok eingo dabix órrek»
- «or dau seuser nok emongo»

Askotan, «**ia**» partikula agertu lei txertatuaren atarian, itaunezkoetan izan ezik:

- «ia seaittik estosun saludeu pregunte deu»
- «pregunte (e)itzesu ia seme(t) p(b)ideuen»

## 2.- Bai / Ez itaunak

Aditz nagusiak eskatzen dauan erantzuna baietza ala ezetza izaten da. Honein ezaugarria be **-n** dogu, «ia» indartzaile eta guzti agertu daitekezalarik:

- «ia asiko garan esnie saltzien (esaoskuen)»
- «egidxe dan pregunte tzo»

Halan be, era honetako itaunak, **-n** daukenak, zaharren artean bakarrik erabilten dira. Gazteen artean BA- aurrizkia nagusitu da:

- «estakitt badator»
- «estostie esan ein badie»
- «ia ikis badere pregunte tzie»

Menpeko esaldiek ETE partikula hartu ahal dabe:

- «begire daus as(i)ko ete garan»
- «obie es ete dan ixengo pentzetan nau»

## **-LAKO, -LAKOA, -LAKOAN, -LAKOTAN...**

- «amengoa estalakoa entzun dot»
- «nosonos dxoan dalakoa dekot»
- «Españeko banderie gorridxe ta beillegidxe dalakoa dekot»
- «etor dalakoan nau»
- «surre dalakoan daus beran etzekoak»
- «seuser astu dxatelakoa dekot»

### **-NA + Genitiboa**

- «esteko kartzelan egon danan antzik»
- «satzetan ibill ddanan usiñe dekosu»
- «geixorik dauenan tipoa dekosu»

Itxura baten goiko egitura horren oso antzerakoa den -NA+REN  
BAT aipatu gura neuke:  
«dxoan sanan batek esan tzon»  
«dakidxenan bateaiñe eroan seden»

Azken adibide biak erlatibozkoak dira zalantza barik. Perpaus nagusi-ko IS eta erlatibaturikoarena erreferentziakide dira. Azaleratu daiguzan lehenengoaren sakoneko egituraren egongo litzatekezan perpaus bakun biak:

- a) «batan bat dxoan san»
- b) «batan batek esan tzon»

Argi dakusagu lehenengoaren «batan bat» eta bigarrenaren «batan batek»-en arteko kidesuna.

Era honetako egitura, zalantza kutsua erantsi nahi denean erabiltzen da: «etor san bat» askoz be mugatuagoa da «etor sanan bat» baino.

## 4.2.2. Erlatibozkoak

### 4.2.2.1. Aditz jokatudun erlatiboak

#### **-(E)N**

NOR

- «belu etor dan gixona esta emengoa»
- «guriakas olgetan dabillen umie trasto da gerol!»

NOK

- «astoa saldu doskun tratantiek esan deu ori»
- «txarren esaten tzon osabiek (g)utzo geidxen»

NORI

- «olgetie gustetan etxakon umie esta umie»
- «biarra eskatu tzeten gixonari es eser esan!»

NOGAS

«neu berbetan egon nasen medikuegas dabil»  
«atxiñe ibilltten giñen lagunekas batu gara»

NO(RE)NTZAT

«pastillek ekar tzetesan andrientzako da bajie»  
«biar eitteko ganie dekon umientzat dakates artaburuok»

NO(G)A(I)ÑE

«ni dxoaten nasen medikueaiñe dxoan da»  
«gu ixen garan astueaiñe dabix áre pe»

NO(G)AITTIK

«seuk eiñ ddotun motiboagaittik eiñ ddot»  
«neu(k) pregunte nitzun etzieaittik pregunte dee»

NON

«gu egon gintzen lekuen daus bakasiñoatan»  
«berba asko eitten dan etzien, biar gitxi»  
«gu egon garan otela ondo dxagonda dau»

NONDI(K)

«gu etor garan lekutik estabill jente askorik»  
«sue pase sarien bideti enitte paseko!»

NORA

«gu goasen erre dxoateko kapas estie árèk»  
«arrankaritten goasen erre kara txarrikeridxe pota txues»

NORA(I)ÑO

«neu egoten nasen lekureiño allege die» (edo «lekurarte»)  
«astoa etor dan lantzarraraño etor dosak»

NONGOA

«au dan errikoak gara gu be»  
«óne(k) t(d)ien parajekoak etor die atzo»

### **Erlatibo libreak**

«suges etor dana esta lar santue ixen»  
«ein gure deuenak bako non eiñ»  
«kalte eitten tzonari oba emon es»  
«kantetan datorrenagas egon (n)intzen»  
«geidxen eitten deuenantzat (d)a txupatxuse»  
«gu dxoan garanagañe dxoan die»  
«atzo pregunte tzienagaittik pregunte tzie barridxen be»

### **Aposizioa**

«ori Basilin semie da, Galdakon bixi dana»  
«bistarreko txala il bidu, larogei erralde ingeru dekosena»  
«erriko testularidxe dok ori, beti erdi moskortute dabillena»  
«seme neusidxe dere, atzo Ameriketatik etor dxakiena»  
«esi bako astoa da, atzes estakidxena»

### **Joskera berezi bat**

Erlatibo librean «erdi-bideko» joskera litzateke aipatu gura dodana. IS burua isildu egiten da, baina mugatzailea eta kasu-marka -(E)N erlatibizatzaileari gehitu beharrean, lexikalizaturik antzera gelditu dan -TXU atzizki txikitzaileari batzen jakoz:

«dakidxen txue esango tzu orrek»  
«estekot nekerik dekoten txue emoteko»

#### **4.2.2.2. Aditz jokatu bakoa dauken erlatiboak**

### **Aditz partizipioa + -KO**

«atzo erreko pilloa suten dau oniño»  
«amak eiñeko jarsie dekot soñien»  
«fraille artien ibilliko gixonari itxi en bidxako»  
«baserritik etorrikoakas berba ei(n) lei»

«a umie, atzo etorrikoa, guges posi tabill»  
«iges ekarrikoak usteldute daus»

....

Adibide guztiak baiezkoak dira. Ezezkoa adiazko gura danean, BAKO partikularen bidez egiten da:

«bixerra kendu bako gixona itxure txarrien oten da»  
«esnie edan bako txalak esteu probarik eitten»  
«iñok ukutu bakoa gudot»

....

### **Aditz partizipioa**

«neuk ekarridxe da ori»  
«sárrak ikusidxe dala diñue»  
«iñok emonagas majo bixi de ori»

### **Aditz izena + -KO**

«ikusteko geuse(k) taus an»  
«derrigorres eitteko biarrak etxates gustetan»  
«asko gastetako juergie esta ona»

Ostekoa isildu lei:

«eskus eittekoa da ori»  
«nonori esatekoa dala pentzeta(n) su?»

Esaldi erlatiboa azken posiziora pasatzen danean eta aditz nagusia eta txertatua bardinak diranean, adierazkortasunez beteniko esamoldeak sortzen dira:

«arek eiñ txusen eittekoak!»  
«nik ikus dot ikustekoa!»  
«esan tziesan esatekoak!»

### **Galdetzailekaz osaturikoak**

«badeku oniño se ikusidxe»  
«se dxagonik estau amen»  
«se astue badeko gixajiek»

**«Biar» eta «esiñ»-egaz**

- «ikus biarreko geuse tie órrek»
- «eiñ esiñeko geuserik es niri eskatu»
- «esan biarreko kontue da ori be gero!»

4.2.3. Baldintzazkoak

4.2.3.1. Adizki jokatuekaz

**a) Alegiazko adizkiak daukezanak:**

ORAIN ETA GEROALDIRAKO

- \* BA- + adizki trinkoa / -KO + -KE
  - «diru asko baneko, etze barridxe erosko neke»
  - «bidan moduen balabill, eleskidxos olako geusek paseko»
  - «nebarreba dana palatos, ama posik ongo litte»
- \* Partizipioa + -KO, BA- + laguntzailea / -KO + -KE
  - «txoridxek lumetuko basenkies, neuk imingo nekes»
  - «eskatuko baleust, posik emongo neskidxo barreix!»
  - «gurpideti ibilko espasiñe, gitxiau loittuko sintzes»

IRAGANERAKO

- \* Partizipioa+(ixen)+BA-+laguntzailea / -KO + Indik. (Iragana)
  - «gure amak ikus baleu, esango tzuen»
  - «ni olan ibilli (i)xen banitte, gorridxek ikusko gendusén»
  - «aitte etor balitzok, semie dxongo soan»

Ondorioa ez eze, baldintza be indikatiboan egiteko joera dago gehienetan; batez be, gazteen artean. Zaharrek hobeto eusten deutse oraindik baldintzazko adizki jatorrei.

- Hona hemen gazteen artean entzun daitekezan eredu batzuk:
  - «ondo ein baseuen iñok etzon eser esango»
  - «egidxe (e)san batzen etxaken asarratuko»

## **b) Alegiazkoak ez diran adizkiak daukezanak**

«esaneko moduen eitten basu, euko su saridxe»  
«konbiduek sasoix badatos, iruretan dxangu»  
«ori egidxe bada, esteko geuse onik»

Batzuetan, baldintza eta zergaitia lotu daitekez IZAN aditzaren bidez:

«ori ein badeu, biarrixena euki deuelako ixengo san»  
«platera goraño bete badie, gose dielako ixengo da»  
«gordosola badaroadie, euridxe dalako da»

### **4.2.3.2. Jokatu bako adizkiekaz**

#### **ESKERO / ESKO / ESKIÑO**

«ori pastan da asko dxan eskero»  
«belu ibilli esko estau seiñik»  
«bastarrak ikusten ibilli eskiño estau esetako astirik»

#### **ESIK / ESIEN**

«ikisi esien estau aprobetarik»  
«geidxau dxan esik, esta beingoan lodittuko»  
«norberak eroan esik, elite beran konture dxoan»

#### **-TEKO(T)AN**

«guges etortekotan, esaten yatzune en biko su»  
«esatekoan, egidxe esan gero!»  
«artutekotan, eskuek (g)arbittu»  
-E amaiera dauken partizipioetan, -TAKO(T)AN egiten da disimilazio bokalikoaren ondorioz:  
«eskure pagetakotan, merkiau engo tzut»  
«dana guretzat ixetakotan ixtutu lei apur bet»  
«olgetakotan, txopinke olgeko neke»

#### 4.2.4. Kontzesiboak

##### 4.2.4.1. Adizki jokatuekaz

###### **BA...BE**

«goixien basatos be estosu ikusko»  
«soldatie idxen batzue be etxatxu suri allegeko»  
«ondo esango balidxo be eleskidxo kasurik eingo»

###### **-LA...BE**

Erabilera mugatua dauka egitura honek; «gure», «biar», «esiñ» eta «al-egaz bakarrik osatzen da:  
«gure (e)steuela be barriek urtetan tzo»  
«bera pideuela be iñori emongo leskidxo orrek»  
«esiñ ddeuela be alegiñe en barik esteu itxiko»  
«berak eroan al deuela be iñontzat itxiko leke»

###### **BAIA**

«aberatzales ibilltten da, diru askorik esteko baia»  
«estosku egirik esan, esta gusurtidxe baia»

##### 4.2.4.2. Jokatu bako adizkiakaz

###### **ARREN**

«goixeti dxagi arren esiñ ddus biarrak akabe»  
«kanpokoia ixen arren euskera ikis deu»  
«pentzue dxan arren esta lodittuten»

Esaldi kontzesiboari indar berezia emon gura jakonean, BE partikulagaz hornidu lei:  
«etorri arren be esteu trikutik eitten»  
«danak agirika eiñ arren be esta doliduko»

###### **NAI TTE**

«nai tte danak (g)aldu dxokatu en bidu»  
«nai tte belu ixen eskoas etzera»  
«nai tte negar eiñ etxatzu parkatuko»

### **Partizipioa + -TA + BE**

- «geuges batera urtenda be estie kapas allegetako»
- «esamiñe eurretix dxakiñdde be enei aprobeu»
- «emonak emon eiñdde be esta espabilletan»

### **Partizipioa + ES DA BE / BARI(K) P(B)E**

- «dxoan es da be bardiñ ddoSKU guri»
- «Bilbo ikusi es da be, estau se galdu andirik»
- «angule txan bari pe gebona(k) pase leix»
- «munduko surrena ixen bari pe ikis lei»

### 4.2.5. Zergaitzkoak

#### **-(E)LAKO**

- «neuk esan tzietelako eiñ ddere»
- «astoak arrantza eiñ ddeuelako ixartu nas»
- «Bilbora daroadielako asarratute dau»
- «oneidxe dalako pastan dxakos olakoak»
- «sustri bakoa dalako galdu de»

#### **Aditz izena + -A(G)AITTIK / -ARREN**

- «egidxe esatie(g)aittik kartzelan sartu nede»
- «baragarri dabix geusek bidan moduen eiñ es eittiarren»
- «aman esanari kasu eiñ es eittie(g)aitti tau olan»
- «umie les ibillttiarren pastan yatzues»

#### **ETA / TA / DA**

- «sausie ixilik, eser estakixue ta»
- «órrek esiñ dxan leix, loi daus de»
- «selan erosko dxuek, bape dirurik etxekiek eta!»

#### **-(E)LA TA**

- «gose diela ta dxaten estosak asi ba!»
- «estoskue (e)itten itxi guk estakidule ta»
- «gastiena dala ta eurreti imiñi gudere»

**-LES** (-N LEZ)

«es eitteko esan dosules, estu eñ»  
«kanpokoa dales, estaki euskerarik»  
«beti olgetan dabixeles, gero estakidxie se en bidan»

**SE**

«enoa, se euridxe en bideu»  
«eroaixu etzera, se pentze lei moskortute dauela»  
«es euki damurik, se esteu meresidu»

4.2.6. Denporazkoak

*4.2.6.1. Esaldi nagusiaren prozesua aurretik emoten danean*

**BA(D)ÑO ARIÑAU / ORDUKO / AURRETIK (AURRIEN)**

«nik esetu baiño ariñau emendik dxoanda egon san»  
«su ixartu orduko txarridxe ill ingu guk»  
«eskondu eurretxutik eñ txusen órre piarrak»  
«total apurtu baiño ariñau kargutu gara»  
«dana alperrik (g)aldu orduko gorde digun»  
«ill eurrien esan tzesan órrèk (k)ontuek»

**-NERAKO**

«argidxe etor danerako danak oyen eon gara»  
«esan tzetenerako akabeta euki deu»  
«biarrak eñ ddusenerako geube ixen da»  
«etor dxakusenerako belu ixen da»

*4.2.6.2. Prozesua une berean emoten danean*

**-NIEN**

«geixotu danien asi da elixara dxoaten»  
«usaba etor dxatzunien larrittu sara su be»  
«gedar da gedar ibl gintzesenien estoskuen entzun»

**-NATAN**

«au etorten danatan galdu eitten deu atletikek»  
«gu dxoaten garanatan ondo pastan du»

**-N BAKOTXIEN / -N GUSTIDXETAN / -N DANATAN...**

- «ikusten doten bakotxien dardakadan paretan (n)as»
- «su satosen gustidxetan euridxe eitten dosku»
- «etor dan danatan diskusiñoa egon da»

**-(E)LA**

- «etzera noala etxatek (g)aldu ba!»
- «beskaritten nauela entzun dot ori saratie»

**-N ARTIEN / -N BITTARTIEN**

- «suk bi eitten dosusen artien nik lau eitten doas»
- «artaburuek garantan doasen bittartien telebisiñoa ikusten dot»
- «dxesarritte dauen bittartien ankieri eraitten tzo»

**-KERAN**

- «arnasie artukeran miñ ddekot bularrien»
- «tejabanan sartukeran mailletu dot kotxie»
- «sartena artukeran erre nintzen»

**4.2.6.3. Prozesua atzetik emoten danean**

**-NIEN**

- «gidxau ikisten dosunien erosko dxatzu bixikletie»
- «dxan seuenien maittik altzeu ein sen»
- «seuek gusuena eitten dosuenien etorten sarie etzera»

**-NERAKO**

- «ikus neuenerako esetu neuen»
- «esan netzenerako, negarres asi san»
- «deittu dxatzuenerako amen egon sarie»

**ETA GERO / (ETA) OSTIEN**

- «beskari edarra dxan da gero logurie oten da»
- «eiñekoak eiñdde ostien parkatuteko esan!»
- «siestie (e)iñ dde gero batukus bedarrak»

**BARRITTEN**

- «eskon parritten dana ondo ixetan da»
- «dxaidxo barritten astoa pe politte tie»

**ETA LASTER / ETA LASTERRERA / ETA ARA / ETA BEINGOAN / -RIK ARA**

- «suek esan da laster kontutu nitten»
- «asidentie ixen da lasterrera il sen»
- «esniek eratzi tte ara dxoan ginttesan»
- «ardaba edan da beingoan moskortuten da»
- «oirik ara nau»

**4.2.6.4. Prozesuaren hasiera edo amaiera markatzen danean**

**-NETIK**

- «eskondu saranetik ikusi be (e)sara eitten»
- «karneta atara deuenetik lotu esiñi tabill»
- «nagarres ikus neuenetik etxat astu be eitten»

Atzizki hau, prozesuari amaiera emoten deutson berba bategaz lagunduta joan daiteke. Orduan, gehienetan -NIK agertuten da:

- «karrerie akabe sunik ona urte asko pase die»
- «esan tzutenik eta geidxau, enas dxoan»
- «osabie etor danik ona biximodue kanbidxe en dxaku»

**ARTE / AREK ETA...ARTE / ARTIEN / AREK ETA...ARTIEN**

- «neuk esan arte amen egon biko su»
- «non dxesarri bisuen esan artien, sutunik egon»
- «itxaron en biku árèk eta geube eiñ artien»
- «árèk eta koputxu bet eiñ arte lotu adi gixona!»

**4.2.7. Moduzkoak**

**-N LES**

**-N MODUEN / MODURE**

**-N ANTZIEN / ANTZERA**

**-N KLASIEN...**

- «dakixules en bisu euskerie»
- «esan tzuten moduen eitten basu neikoa su»
- «Pruixen eitten dun antzera eitten dere an be»
- «asko dakidxen klasien eitten deu berba orrek»
- «geuk eitten dusen antzien gardostuten txues buskentzak»

Batzuetan, aditza ixildu egiten da:

«ñok es les daki berbetan»

«ume txikidxeri les emoten tzo dxaten»

**SEIÑDDE -N LES**  
**-N MODUEN**  
**-N KLASIEN**

«seiñdde eser estakidxeles eitten deu berba»

«seiñdde sorra tekotzetesan moduen beittuten dost»

«seiñdde soratute dauen klasien paretan da»

**SEIÑDDE...Aditz izen mugatua + LES**

«seiñdde kontu bet kontetieles ixen da»

«seiñdde umieri berba eittieles eitten tzie»

**BA-...LES**

«bereskoa balitzeles eitten deu berba»

«seruti balatorles bixi die»

**SEIÑDDE...BA-...LES**

«seiñdde munduko aberatzena balitzeles bixi de»

«seiñdde geixo txarran bat balekoles dabill»

**Partizipioa + -(E)KO LES**  
**MODUEN / MODURE**  
**ANTZIEN**  
**KLASIEN...**

«esaneke les eitten txus biarrak»

«geuk itxiko moduen tope gendun etzie»

«bera(k) pentzeko klasien konpondu deu etzie»

«agiñdduko les bete deu berbie»

**Aditz izena + KO MODUEN**  
**ANTZIEN**  
**KLASIEN**

«ondo ulertuteko moduen ein berba gero!»

«barridxen erabilltteko antzien itxi»

«gustetako klasien imiñdde daus pintxoak»



**-TA (-DA, -DE, -DDE, -TTE)**

«euspes dxeusitte tope du»

«sigarroan sigarroas musturre  
erreta dau»

«pilloan imiñdde danak erre  
txusen»

«bide erdidxen itxunde ikus  
neuen»

**-(R)IK**

Forma klitxetuetan baino ez da erabiltzen. Ondorengo hirurak dira erabilienak:

«banoa plagiek arturik»

«or daus gosek illik»

«dardakadan dau otzak illik»

**-KA**

«alkarrari sakaka dabix beti»

«sarataka etor die goixion»

«gurien, dxatekoari usinke ibilltten die»

**BARIK / ESIÑIK**

«txapela kendu barik esta dxaten»

«burue ondo goberne esiñi(k) t(d)abill»

**ALA / ALIEN**

«emonala gasteko leke»

«euridxe etxala (botala) da»

«geuse bardiñe esanalien dabill»

**-IDXES**

«tirona kontu batzuk esanidxes»

«kafe bat artuku sigarroa erreidxes»

**-(E)LA**

- «purue musturrien deuela eitten deu biar»
- «ser eiñ estakidxela ikus dot»
- «etzieri deutzola txabolie deko»

4.2.8. Helburuzkoak

*4.2.8.1. Aditz jokatuagaz*

- «ixilik egon sittesan esan tzu gusurre»
- «afaridxe page dixkun lagundu tzet»
- «galdu estakidxon ein tzet sarata»

*4.2.8.2. Jokatu bako aditzagaz*

**-TEKO**

- «sueri emoteko ekar dot»
- «bakotxari bana partiduteko ekar nitxusen»
- «esniek erasteko etor nas goixau»

**-TEKO(T)AN**

- «bidxer dxoatekoan nau»
- «aspaldixon gabix txarridxe illttekotan»
- «paraje polittauak ikustekotan dxoan ginttesan»
- «suen semiegas olgetakotan etor da gurie»
- «danak (g)astetakotan emoten tzutes»

**Aditz izena + -ARREN / -E(G)AITTIK**

- «tabernari(k) taberna ibillttiarren biarrak ein barik»
- «erremere dxoatie(g)aittik goixau afaldu deu»
- «agiñddukoa emon es eittearren estie etorri»

**-TEN**

- «bedar ebaten dxoan da»
- «geuse barridxeik ikusten etor dosak»
- «soridxonak emoten arrime dxakos»
- «ondo dauena apurtuten etor da»
- «olgetan etor die»
- «goixetik etor da gastañek erretan»

## 4.2.9. Konparatiboak

### 4.2.9.1. *Bardintasuna adiazoten dabenak*

#### **Izena + -N BESTE / -RE BESTE**

- «aitten beste daki umiek»
- «sure beste politte enas ni antzi pe»
- «euki gure neke suen beste diru»
- «Joseñ txalak estie gurien beste onak»

#### **Izena + -N      izena + -KO**

- «sindikatoan plasako merke daus»
- «gurien sueneko politte(k) taus»

#### **Izena + -N      BESTEKO(A) BESTIEN**

- «etziñ besteko mutille eiñ dde»
- «txalan besteko txakurrek ein tzo ainke»
- «aitten bestien bakixus eitten»

#### **-KO      BESTE(KO) BESTIEN**

- «pasadan urteko besteko otzak estaus»
- «gastetako beste alegrentzirik esteko»
- «atzoko besteko barriek eittie kosteko dxatzue»
- «goixeko bestien engo sus arrastidxen be»

#### **Aditza + -N      BESTIEN BESTE(KO)A**

- «abadiak eitten deren bestien geu pe engo genke»
- «esiñ ekar nei agiñddu dostien beste»
- «sue takixuen beste baiño espaneki»
- «suek ikus dosuen bestekoa estot (t)ope»

#### **Aditz izena + -KO      BESTIEN BESTE(KO)(A)**

- «etze-bete lagun neikotuteko beste arraiñ ekar du»
- «bixitteko beste bakie»
- «arkondara utziñ ibilltteko besteko beroa estau»
- «guges olgetako bestekoa bada»
- «tratora manajetako bestien baki orrek txofer»

### **ONEN / ORREN / AIÑ**

- «onen posik eskara iños bixi (i)xen»
- «orren lerdoa ixen leidxenik lagunek!»
- «ain lotzatidzek urtetako, estaitt nondik urten deren»

### **ONENBESTE(KO)(A) / ORRENBESTE(KO)(A) / AINBESTE(KO)(A)**

- «guri etxaku toketan onenbeste diru»
- «elei kalkuleu nondik atara deren orrenbestekoa»
- «ainbeste ixerdi botatie alperrik ixen da»
- «gripiek elei orrenbesteko kalenturerik emon»

#### **4.2.9.2. Desbardintasuna**

### **BA(D)ÑO...-AU(A)**

- «guriak suena paiño okerraua(k) t(d)ie»
- «urte-txarridxe kanpotik ekarrikoa baiño obie da»
- «txakurreri guri baiño geidxau gutzo»

Ordena aldatuta be:

- «umetan baño sarridxau dxoaten gara oiñ»
- «eskolan baño geidxau ikis gendun kanpoan»
- «alperraua da agiñddute eiñekoa baño»

Esaldi txertatu osoa emoten dalarik:

- «ni pentzetan ixen doten baño andidxaua da»
- «sue kure senkien baño edarraua da ori»
- «tratantiek esanekoa baño esne gitxiaukoa da beidxe»

#### **4.2.9.3. Ostantzekoak**

### **AL DANIK (ETA)...-EN**

- «al danik andidxena engostesu gero!»
- «al danik eta gitxien loittu bastarrak»

### **ALIK ETA...-EN**

- «alik eta polittenak erosi umientzat»
- «alik eta geidxen eroan bija baten»

**SENBAT ETA ...-AU(A), (AINBET ETA)...-AU(A)  
(ORDUEN DA)...-AU(A)**

«senbat eta suridxau pintteu, argidxau lotuko dxatzu»

«senbat eta geidxau esan, kasu gitxiau eitten dosku»

«senbat eta geidxau prepareu, ainbet gitxiau gustetan dxat»

«senbat eta geidxau esaten dxakoen, orduen da ixillau egoten da»

**SELAN...ALAN**

«selan bixi, alan ill»

«selan esan, alan ixen»

**Partizipioa + -AU(A) TA...-AU(A)**

«esanau te txarrau de ori»

«egonau te sarrau eitten da ardaba»

**4.2.10. Kontsekutiboak**

**AIN...(-(E)LA)**

«ain lotza gitxi deko etxakola arpidxe be kanbidxetan»

«ain dau triste berbari pe esteuela eitten»

«ain deku diru gitxi...urten be estu eitten»



## 5. LEXIKOA

### PASIO TRATANTIE

Pasio difuntue sea ixen san, tratantie. Ak ekarte seuen beti enjeneral e... naparridxe ta... Geixoak gustidzek ekarte txusen e... bestaldekoari. Bestaldien ba... nire ama eta Joseto. Eta ser da ta... naparridxe beti tte, beti asarres Joseto Pasiori: -Or dekosus suk txarrikeri gustidzek, su sarala ta estala gu tekusen kaltiek amen! Da beti olan. Gero, klaro,



Pasio gixajoa il san, da tratante kontue akabeu ein sen. Eta ser da ta... Jose-tori ba beidxen bat geixotu dxakon da ekartzien sera... betrenaidxoa. Eta ser da ta... asi gintzen Joseto ta ser da ....?..... naparridxe.

Bestaldeko Te(r)esa entzuten e... betrenaidxoa etor danielen se (e)saten tzon, ser dan estan. Esan tzonien naparridxe dekola, dxoan san betrenaidxoa, Tesa bestaldekok artu txusen tapa bi, tapa pakixu tartera sabalana(k) ta... da beko kantoire dxoanda, tanborra dxo olan, arkalagas dxota:

«Fandango, fandango Jose da lelango  
Teresa bigarren, Petra irugarren»  
(*Musikagaz abestuten dau*)

Da dxantza itzelak eiñdde. Joseto tripetako miñekas an!

### EMILIO, AMA ETA TRUGUIEK

Bueno denpora txarra eon san, total txarra; truguiiek eta iñestuek eta ba... ama koittedie ba... ikeatu eitte san ba. Da semie berandu etorritte oyan. Beranduetararte ortik urtenda... Eta ama ba... artu .....?..... inkeu kandelatxue ta, atxiñe olan ixetan san da, Kandelak bixtute olan imiñi. Ur bedeinketue artute olan e... etze gustidxen beittuten urten deidxien parte txar gustidzek eta. Etzie bedeiketute, Santa Barbarari sera emoten... Da bera esaten: -Bai ama, danak atako sus baia au amen dauenak etzu urten-go ariñik arin ba!

8	BARRI-EMOLEA: <b>Timoteo Larragan Legarretaetxebarria</b>
	JAIOTURTEA: 1926                      LANBIDEA: Nekazaria
	AUZOA: Fruizko kaskukoa (Bizitza osoan)



### **EMILIÑ ETA LEGOA**

Emilin ba..., Emiliñek sapateru eitteuen Olabarrin bier ba, seranien Luis taberneruenien. Eta... bueno, an biarrien dabillega, egun beten fraille bat a..., lenau fralliek ibilte sien batzien ba ta..., bertakoak solotik i... bierrien ba. Da Emiliñek urte tzen, da oño! Emiliñeri esautzen ba fralliek ba... limosnie batzien dabillegata...: -Ba bai, ensegida. Estaus u... emen baia soloan daus de. Untxe ensegida ba esango tzieta eta etorko dxatzus. Ni emen e... biargiñe nas. Ni enas bertokoa ta biargiñe nas da ba... eutzi au umie. Umie negarres an da, umie eutzitte:

-Eukixu au umie apurreten -esan tzen frallieri- errekadue eitten (n)oa ba... areri solora ta. Ta frallie umie euki esiñik aulan. Emiliñek a emotzenien... kittu! Frallie umie euki esiñik. Da Emiliñek eskape tzen da kittu! Gero, negarretik eta, umien negarretik eta etzekoak entereute saratetik etorri artien, frallie an.

9	BARRI-EMOLEA: <b>Bartolo Sagasti Hormaetxe</b>
	JAIOTURTEA: 1914                      LANBIDEA: Nekazaria/Suhiltzailea..
	AUZOA: Fruizko kaskua/Bilbo (24 urte)/Fruizko kaskua

## IKESGIÑEK

Imiñi olan egurrek da gero soidxekas ein tailletue busti esteidxen saparrada bateattik. Da irek barruen imiñi tte irekas lo. Da gu ara dxoaten gintten arek seuser... ondakiñe edo emoten badere. Kollarak eta orrek e... olan astieri tte buelta bat edo bi emonda ta, kollarak



emote (e)uskuesan. Gero dxoan sien. Bai, orrek or... plantak eon sien. Olako plantak eta eurek txabolak eiñeko lekuek.

(*Baia selan eitte eden? -itauntzen deutso?*). Iketza, lelengo karien modu antzien eitten da iketza be. Lelengo kargie bota, gero egurre da gero tapeu. Ondo tapetan da. Ori tapetan da, bai. Da gero suloak eitte tzies e..., lantzien sulo bat tiroa euki didxen, sue eiñddidxen; ostantzien itto.

## SOLDADUSKIE ETA GERRIE

Soldaduskera dxoan (n)itzen ni amasortzi urteas, da amasortzi urteas soldadu dxoan da gero, Ferrolen eon gintzesan bost illebetien edo. Enbarkeu en gu(re)xen gendun. Da emen Mundakan e... kapitanan bat erretirekoa eon san da arek seuse eingoskule ta. Baia keba. Da Ferrolen e... asko eon gintzesan da soldadu asko dauen lekuen e... dxateko gitxi eoten da enjenealien. Da gero etor sen «Kuartel de San Fernando»... ara dxoateko. Sei illebetetik kendukoskuesela, ara dxoan eskiño boluntaridxo. Da ara dxoan gintzesan. Da an estaitt senbat denporan eon gintzesan. Gero dxoan gintzesan «Karrakas», Barselonan. Ara presoak dxagoten. Presoak

ibillte sien e... mariñelko presoak or «Kuatrotorres» kartzelie. Da presoak ibillte sien kaliek garbittuten da arek e... Eskolta eitten gu ibillten gintzesan. Da gero itxosoan ba... uger edo. Uger eiñdde an gero, ure... gatzta eitten dales, an kresala deko itzela. Da etze(r)a etorritte gero, kuartelera etorritte, dutxeu. Da antxe, an ein gendusen e... amairu illebete edo etzea etor barik. Amairugarren illebetien etzea etorri, permixoas, da atzera dxoan da gero Julioan amaseidxen, gerriek urte (e)uen. Da guk u..., Julioan asikeran lisensidxe artu. Andik etzera, posik! Da gero, allegeu ona. Iru egun edo eon gintzesan Madrillen, orko Amorebi(e)tako lagun betegas da... dirutxuek akabe gendusenien, etzera. San Kristobal ingeru edo olan ixte san etzera etor gintzenien. Da gero, ba... olan ibil gintzesan ba. Bedarsikuek ebaitte, bestie eiñdde. Da gero, or Galdakoko pariente batzukes amistade apur bet euki nuen nik. Da Txomin difuntue ibil sen e... orregas biarrien. Diego «Ponpos». Oniño bixi de; Gamixen. Da gabonillen edo ikisteko, seuse ikisteko; ofisiotxue ba. Biar ixen gendun de! Da an asi gintzen gero peoitzen Bilbon; asi nintzen. Da... bixi(k)letan dxoan da bixi(k)letan etorri... eitten gendusen. Da gero, bonbardeoa lelengokoa Bilbon artu gendun. Da gero ba... ixeko difuntie Destun euki gendun u..., ama difuntien aixte bat, da ara dxoaten ba... eon gintzesan egun batzuten. Egunien, egunien etorri esiñ etzera ta. Da gero emen Mugidxen forme san a..., onek Antonio Arroako difuntue, Sotero -oniño Sotero bixi da-, Batxi tte Simon, Alejandro, Andres Ganboa da au... Ixena selan euki euen... arena? Turko edo deittute tzien areri... Txatoa, Txatoa. Da orrekas. Orrek... amar pes(e)ta edo. Da an sortzi pesta te iru erriel bakarrik. Eta or amar pes(e)ta biarrik ein barik! Orra gero be dxoan enbiixen gendun soldadu guk, lelengo kinttoak gintzesan da. Da orra gero ta, or gero istrusiño apur bet, .....?..... bakarrik! Or ...?... edarto!

Da gero dxoan gintzesan, San Andres egun beten, Otxandixora... autobuse ta sonue dxoten. Gerrara sonue dxoten! Da gero an, istrusiño apur bet, bakixu suk soldausken selan esaten dien: -Kuerpo a tierra!-ta. Da Otxandiora allegeta, Otxandiotik Billarrealea, sei kilometro ingeru edo. Olangoan bat egongo dire. Oiñes. Geroau te tristiau, geroau te tristiau, geroau te tristiau. Da alango baten olako bala bat: .....(**Balek egiten daben zarataren antzekoa egiten ahaleginduten da bera be**). Danak lurre-ra! Allege gintzen ara da lelengo, nik estaipa se ordu ixengo san, da fren-tien edarto! Lelengo asikeran. Da geubien e..., eurreratu sienien gure eskerreko alderrittik i... batalloi batzuk da geubien gero moimentue itzela argidxekas da serakas a... Billerrelen andiko alderrittik. Gu eon gintzesan emetiko alderrittik. Da asten dire urrungo goixien e... tirotean. Mekauen..., astillotza an. Da ein gendusen aldan moduen, pagoak eon

sien da, pagoan atzien da pareute, ostute. Da gero, olango trintxera antzeko batzuk, olan a... mantzo unedatan. Gerriek beti esteu eukitten sera, atakie. Lantzien mantzo uneda batetan ein gendusen ....?.... antzeko batzuk eta antxe. Da tabakoa, kanario sigarroak eta txokolatie ta... montoiak eon sien orduen. Da oniño bixi de Juan «burrerue», bai Mugidxeko Kosmen da anaidxie, panaderue. Oniño be lengoan ikus neuen karnaseridxen da: -Selan gabix ba? Da: -Ondo, ondo -esan eusten da. Sarri ikusten dot ori Mugidxen. Da gero Billarrelie e..., urrungo egunien e..., asi sien e... orrek ainbeste tiro. Abioiape iru edo bai. Da baju-bajutik. Klaro eseen euki nok serik eiñ. Abuelo ukitten gendun guk ba... abioi sar bat. Estekosu entzuterik? Entzutie okosu. Abuelo. Axek lantzien bonba bat... nosonos; baia keba, eurek an eon sien e... Billerreleko torre baten da andik edarto koixte (e)uskuen. Tarra, tarra. San Andres egune san.

Gero, urrungo geubien, trintxerak eitten; leña! Ein gendusen trintxerara batzuk an. Da antxe arik eta relebeu artien. Ixen gintzesales gu «batallón Ibaisabal», txoke moduko batalloie san gurie. Da gero ekarri eskuen atzera barridxen Otxandianora. Da Otxandianotik eroaskuen «Ollerias», Barasarreti dxoan eurrera ta Bitturidxera sartu baiño lenau, barrio bat, «Ollerias». Da antxe eon gintzesan aldie-(e)tze baten, ainbet (d)enporan eon gintzesan an. Da an ya kalmadutxuau eon sien ordureko frentiek. Da an au... rantxeru Sotero. Soterok eitteoskun... sentallien rantxoak. Da orduen dirue non gasteurik es da..., e(g)unien amar pes(e)ta, joder diru itzela soan! Da serbesape akabeu. Batxi, Batxi Seberidxotik eta ara eroaten da, mulo bategas. Serbesie t'olangoa eroaten. Joolin! Olantxe. Da gero, ortik eroaskuen Lemonarako mendire dxoateko ....?....., da eroaskuen. Eubara eroaskuen. Euban eon gintzesan beste denporaldi beten da gero Eubatipe ataraoskuen. Arek e..., iru bider edo ataraoskuen an. Geubetan guk artu da egunes eurek atzera barridxen kendu. Da gero, or emontzienien ofensibie, arek eta Bilborarte etor gintzesan. Bilbon euki gendun guk u... sera... kuartela edo, arkalagas batzeko lekue. Ba... a kalien ixena esta(k)itt, elixie antxe serien dau, Matiko baiño berau dau ori elixiori. Or oki gendun sea..., atzera barridxen batzeko sera... Frenteti eskapadie eitte sanien, etzeaiño etorten gintzesan. Bata batetik eta bestie bestetik... etzera danak. Da gero etzien e... garbittu edo sera apur(b)et eiñdde, ostabe barridxen ara. An errepartoa, ostabe destinetako. Da gero Eubatik nora dxoan gintzesan? Eubatik i... Artxandara ekarteko idea..., es Artxandara orduko serien eon gintzesan..., ba... Arratidxera. Arratidxera eroaskuen: Lamindano. Lamindanora eroaskuen. An a..., beste ser bat, safarrantxo bat ein gendun. Da gero andik eroaskuen..., gu konpañie..., batalloien eon sien arratidxarrak konpañi osoa. Da emekotarrok beste konpañi osoa. Da

olan. Da .....?..... Gorbean on san lutzie. Orrek Gorbea esetute (e)deles guk au Fruxe esauten dun moduen, gu eon gintzesan a..., an a... Castillo de Elejabeitian eskoako aldarritik; aldie-(e)tze baten, mendi altu beten. Orren konpañie eoten sien e... Gorbean lutzien. Reketiekas edo trastiokas. Orduen e..., gerrillek moduen, parapetoak ein barik antzien da. Elgetan ein gendusen parepetorik onenak. Elgetan eon gintzesan..., bastante denporan eon gintzesan. Elgetan e..., zazpi illebete eon gintzesan Ermuan, da ara dxoan egunes, da geubes ona. ....?..... emen eoten gintzesan. Txintxortatik eta serera bittartien..., Eibarrera bittartien. Da gero, ofensibie emouenien an, ba... Martiartu koixu eden e..., atzeti sartu sien Udalatik. Frentiek euki gendusen..., an parapetoak, parapetoan atzeik atzera, atzeik atzera, atzeik atzera... Atzeti sartu dxakusen. Da Martiartu koixuskuen an presoeneru. Da gero, gu eon gintzesan...: Txintxorta or, Kirkiñitun (e)otieles, da... Irimietan otieles gu. Da orti(k) bittartetik eieden orrek. Da gero, urrungo..., Artxandarako sera, Artxandara gu... eskintzesan dxoan. Artxandara barik, ona serera etor gintzesan...; or Loiuko mendi bet e... Gastañaga! Aiartzan estasiño bat (d)au, da Aiarsan ganeko mendire. Da an frentie..., eseu euki patxadarik an, da se andi etorrintzesan da. Andik i... etorrintzesan. Da eroaskuen Euskaldunara. Euskaldunan eon gintzesan gu; ametralladoitan. Da Euskaldunan gu gausela, tiroka seetik Jose Antoniotik, andik seetik ba..., Santamaiñetik i..., es, Santamaiñetik es. Beste..., selan deko ixena? Pagasari! Pagasarritti bajatu sien. Euskaldunati urten gendun... andik serera: Euskaldunako sera... arkupe betetik, errekaondorik, errekaondorik, errekaondorik errekaondo. Dxoan gintzesan gero Barakaldora. Barakaldon guk u..., aitte ta osabie ta orrek eon sieles, an lotu. Da batalloie andik eurrera gero... ya etziek galdute. Da ya Bilbo galdu gendunien e... ya esan eon esetako modurik. Da gu lotu (g)intzesan, Segundo ta ni, difuntue ta ni, serien Barakaldon lo eitten. Da lo ein gendunien, urrungo egunien, bajatu sien erreketiek bertara. Da gu ba..., berbetan eurekas ia non ibil garan da. Olan berbetan. Papela imieden, papel bat imieden gero amente..., armarik edo olan iñok dekonik, entrege deidxela. Da arek entregetan a..., pistolie nik euki nuen: «nuebe largo». Da arek entregetan dxoan gintzesan Barakalkora. Da Barakaldon... asko! An geusek sertzien. Da an berbetan: Non ibil garan da bestien ibil garan da..., olan da..., Segundori olan seña bat ei(n) nitze(n) nik da. ...?... Estoskuen artu ixenik es eser da. Seiña bat olan eiñde, kanpora!. Da kanpora urtenda, atzera etzea. Etzien seuser dxan da oiñes andik gero ona Fruxera. Frentiek emen eon sien da pentzeteot o..., Berrenkon da Lekeriken da... sera il sen orduen... Mola! Mola il sanien. Se ni dxoan nitzen e..., Larrekora dxoa(n) nitzen ni emendik. Frentie etor sen Larrekoti. Da Larrekon seuse artute, Murtzebarrire

gero. Murtzebarrin be seuse artute ...?... seuse eroaten. Ementxe eon sien e..., ainbe(t) denporan eon sien e... emen frentiek.

*(Olan akabe san dana? -itauntzen deutsot)* Emeko... olan akabeu..., oniño gero emen e..., sera... andik etorri etzea ta, emen ibilli tte gero, deidxe euki gendun ostabe komandantzire, Bilbora. Da mariñetik serbiute eon nintzeles ni, barkurik es, eta gu mariñeruek atzera etzera. Bost illebe-te ei(n) nitxusen olan. Da gero, Teruel eon san ixtu. GorrIDXek koixuko deela, esteela; esteela, badeela... Da orduen eroaskuen mille lagun ingeru edo. Panplonara. Panplonan ostabe barridxen istrusiño apur bet eiñ, da Teruelera. Da Teruelen e... gose bat! Kristolako! Ese esin topeu dxateko! Prisione(r)u moduen dxoan gintzesan da. Da solo baten imioskuen forma ta da... kapitana karabiñeruetako bat. Etor sen. Da ak esaskun: -Aber, badau gorrIDXen alderritti eon estanik? Emon ixena, peusu bet eurrera. Da lau bakarrik! Beste danak a..., gorrIDXetan ibillikoak. Da gero, nik estaitt nondik, oniño orregas enteretako nau ondo, batabatek berba euskeras eiñ. Euskeldunek enjeneal e... kuadrillexu antzien. Da batabatek euskera be eiñ da nor ixen dan kapitanak entzun. A berbie. Da etor sen da:

-Nor ixen da ori berba eiñdeuena euskera emen? Da danak ixilik! Da gero, ostabe barridxen fuertiau! Da esteuela kastigurik oko, ta esan deid-xela. Da ixilik. Bueno ba, orduen emendik asi da ona, batalloi bet ingeru, «batallon de disciplinarios». Monreal de Kanpos. Benga istrusiñoa ta benga istrusiñoa! Da joolin! Gixona be marieute dxeusi, edurtzen istrusiñoa eiten. Sarjento bat! Erregularretako a txikerra; okerra! Jooder! Da an en gendusen gero, orduen san emen sabaldu sana selan kotoien barruenda naue-la ni. Otzagas an gose; gosie itzela! Da gero en gendun abansada bat a... gorrIDXen aldarritti .....?..... Da gaubetan ixilik, gosie dekonak tranpie asko dekota, eskapadak eitte gendusen ara da areri kontuek konteta, a be posik eta gu be posik! Ardaba sikan be edaten gendun de. Da antxe ein gendusen e..., trintxerak eitten da, istrusiñoak eitten. An ein gendusen..., semet denpora? Saspil lebetete edo sortzi. Da gero eroaskuen..., Kaminreal! Eskolta ta gusti. Batallon de ..., italianuen ....?..... Baia italianuen batalloi orrek, gu allege gintzen orduko beste leku batera eskapeuen. Atzea barrid-xen Monreal de Kanposera! Da antxe eioskuen gero, artu danok eta osta-be Darokara ekarri. Da Darokan ein gendusen e..., siñe baten eon gintze-san gu beste...; ainbeste gu. Gero, istrutore! Gu istrusiñoan e..., buruko ulien e... dekun beste istrusiño ein gendun guk. Darokan gero, «la kinta kuarentai...uno» istrusiñoak eitten. Da gero, Binaros .....?.....-nien, ori dana on san oniño gorrIDXen aldarritti. Ara eroaskuen, Binarosera.. Da Binaro-sen, se eioskuen? Ni..., tertzio bat gerrara, gure kuadrille bat; beste kuadri-llle bat..., beste..., soldaduekañe da beste batzuk abanzetara: Danak erre-

partidu! Se..., *gudaris* esateoskuen guri. Artxandan..., bixi bada Jose Luix, motoriste serien ibilli sana... Da an, da gero Terueleko frentera eroaskuen guri... Dxoan gintzesan gu. Sera..., Baliño jeneala, gogorra san ori! Bataillon de txoke antzien. Teruelen ein gendusen tiro antzeko batzuk. Da enjenealien e..., ori tte ni atzenengo beti, geldiro. Beñ i..., deskubertatan pare esko, estau mandorik. Bein tiroteotan asi esko, estau mandorik. An ..., edoseiñek mandoa an. Da atzetik beti, atzetik beti! Nosonos o..., bisten badaus eurek edo, ariñ arinke bat edo eitteko ba...; ariñ arinke eiñ ordusko ia non ete dauen lekue! Aratxan bat edo..., arrien bat edo..., olan a..., dxanba! Ara eitteko.

Gero, Sierraspadan. Balentziatik edo dxoan gintzesan orra. Andik Teruel kruseu, ortik..., Kastellon, Onda da Sierraespadan a..., Sierraspadan eon sien mendi bi olan. Da bat erdidxen Kirkiñitu modukoa. Da a koixu guixetan gendun. Lelengo reketiek. Eiden atakie ta esebes. Gero, soldaduek. Arepe (e)sebes. Gero, lejionaridxoak da arepe (e)sebes! Da orduen ori olan dauela, one(k) nabarroak a..., etzera sarri dxoate sien se orreri libertadie..., guk u... gorridxen aldarritti euki gendun moduen. Mekauen la mar! Orre padoas da guk emen selan eon bidu ba? Da Patxo Olagortako andik urrien, San Marsialen. Da Patxori esan e...: -Patxo, emoidxok seillu bet oneri sobrieri emen ganién. Ofisiñen. (*Ofisiñen egon san -itauntzen deutso!*). Ofisiñen edo..., an fasilltxuau reketiekas baiño. Tapetan be gaxau neu gero!

Sei illebete eiñdde, gero... egalak ebai da amen letra batzuk eiñ: «Fulano de tal se traslada a Bilbao con permiso de quince dias.» Olan. Artu ori papelori boltzan da oñes andik eta..., arik eta kamiñoa koixu artien. Da kamiñoa koixu, da gero Alkañiserartien eon san ferrokarrille. Da Alkañistitik etzera gero. Da rebisadorie sartze sanien ortiko aldarritti, beste alde batetik urten, da beste bagoi betera. Da gero estasiñoan lotzen sanien, an bajetute a pase dan lekure atzera! Arik eta Orduñerartien olan. Da gero, Orduñen ...?..... eskiñon ya..., kasuipes Orduña eskiñon. Etzera etorri da illebete justu justuen etzien eiñ. Da karneta atara. Frente ingerue txarra dauela ta. Ia seuse eitten badu ikusteko. Karneta atara da dxoan gintzesan, ori Artxandakoa ta bidxok... da diru apurtxu bet eroan gendun, San Sebastianera. San Sebastianen iru egun edo ein gendusen. Ikusten a be. An guri etxoskun ardure ixen koixu arren, se frentien baiño oboto eon san kartzelan. Jooder! Frentie..., orduen ademas, Ebro. Ebro koixu eden e..., errekie pase eden Ebrokoa gorridxek ostabe barridxen da Sierraespadan eon san dibisiño dana, orra pase eden. Da orra dxoan biixen gendun gupe. Da dxoan gintzesan, da or iru egun eiñ da gero serera, ona... Saragosara. Saragosan a..., orrek lagunek esunen bat kamioyakas, serien ...: automobilis-

mon. Da aregas, kamioye artute, pratike antzeko batzuk eitten an da... Gero deittu deixkuen txofer eitteko. Da allege gintzesan ona Saragosara ta...saata txarra: Or baja asko dauela ta... Baia an be diruek akabe sienien e...

Gero dxoan gintzesan frentera. Frentera dxoan gintzesan gero. Frentien gero, eon soan a..., oniño matza ainbet, sea Ireille san da. Da matza dxan da an ostabe billurregas eurrera dxoateko. Baia berdure utz utzegas be triste da..., derrigor dxan biarra deku! Allegeu gintzesan ara ta... «mekauen la mar»! «Aquí bienen los gudarix» -esaoskuen. Da ori konpañi batera da nik, bestera! Antxe gero asi gintzesan rantxoa dxan da ostabe barridxen e... gerrara.

Da gero an egun batzuk eiñdde, prakape apuurte (e)perdidxen. Eperdidxe agiidxen da an a..., lelengo atakiek emote sienien e..., atze antzien ibilltte gintzesan gu. Da are(k) prakak ba..., batzuk ia prisioneruen bateri edo kentzien batzedas... Eurretik orduen egunien suerteu. Da nik estaitt nondik barrabas a..., ara etor sanien e..., bonba bat da... areas eridu. Da eridu nintzenien gero ba..., onantza. Prakarik es esebe barik. Lelengo Saragosara. Saragosatik gero ba... Bilbora da Bilbotik Galisidxera eroateko baia..., emen ni euskaldune nasela ta, emekoa nasela ta, emen Pedernalesen edo badauela seuser da... Bai. Nora? Orra dxoan gusula? Ta, bai. Da or gero. Or Koloniasen eon san ospittela. Au musloa destroseu en bidala ta..., atara barik itxi! Nik i..., au enuen atara atzea barridxen frentera dxoateko (e)on banas, an erreklametako atzea barridxen ostabe miñ eitten dostela. Ba estosteles molestetan oiñartien iños o..., kasuripes. Gero akabe sien orrek (k)ontuek.

Gero ba..., tersidxoa..., dxoan san a..., serera..., ni ospittelien oniño kure bari nauela..., Siuda Realera. Da an estasiñoan, naranjak asko eoten sien edoselan be. Naranjari..., paluen puntien imiñi gantxoa da andik bentanatik sartu isiñ i... seataus de, burriñe taus de. Da paluen imiñi kutxilloa da arekas a..., suloa eiñdde, kanpo(r)a ekarri tte dxan. Da ardaba..., oniño gu..., .....?..... eon sien. Da ni arantza dxoan atzera barridxen da tersidxoa ona, Bilbora destineta. Da gero, an apurtxu bet ei nue da andik ekarri eskuen..., Tudela! Tudelan lisentzidxe gintzesan gero.

## **ERMANDADIEK**

Botelen eoten san, Askarren eoten sa a..., sera... batzarra eitteko lekue. Da ara eroate sien ba... beidxek eta... ganadue. Estaitt urtien iru bider edo birriten san ori. Da gero, an imitte sitxuesan ba... maordimoak, maordi-

moak deitzen dxakien orreri, da... listeruegas; Diego listerue. An balorak imiñi, iñosko denporan beidxen bat deskalabreu edo, adarra bota edo, txala galdu edo... orrek despajoak. Da gero danan kantiedetik, or Diegok eitte sitxusen likidasiñoak. Eskota onen beste batzen san. Da gero ori pagetan. Ara dxoaten san gero ori, da ara danok ostabe ori..., eskota emon.

Gero errebistie pas(e)tan be etorte sien orrek maordimoak, etzerik etze, ia badaus e..., olango tranposoak eoten sien orduen be: ganadue apur bet txatxarra ekarri, balore asko geidxau emonda. Erre eiñ dxakola edo esan gero! Olakorik eiñ esteidxién edo, arek... espidxe moduen dxoate sien orrek serak. Orrek eote sien illebetien ala orixe estaitt fijoia; illebeta ala iru illebeta sien. Gero beste batzuk. Danak pase bixeta eden.

Batzarrak, eser dauenien, abixuek! Da onen ordureko. Maordimuek eukieuen ordenie abixetako ermandada dana. Orduen ara dxoate sien da gero an a..., parte mayorrak esaten deuená edo... An gero se balor euki deuen tasasiñoak. Tasasiñoak eiñ. Da tasasiñoatan gero erremata. Orduen olako geixorik..., karnaseruepe igual a... menespresidxoan edo olan. Da sarritten e..., betrenaidxoá abixeu te betrenaidxoak a..., analixeu edo serak eiñ eta dxan leidxela esan eskiñoan, bertan errematan bota. Baia erremata botateko..., ardaba, kantara bat ardau edo olan edo. Ardaba edan lelen-go dana eiñdde, da gero subastie.

10	BARRI-EMOLEA: <b>Juanita Mallona Llona</b>
	JAIOTURTEA: 1913                      LANBIDEA: Etxeko lanak
	AUZOA: Botiola (Bizitza osoan)

### **BIDE-KURTZIETAKO ORIDXO USIÑE**

Gu emeti dxoaten giñen Fruxera, egunero mesara. Gasteri dana oniño eta eskola ondoan kurtzie dau ba... danatara. Eta goxien, olan bakarrik dxoanda, oridxo usiñe. Itzela! Erreseu purgetoridxoko arimeri aitte-gure bat eta kendu. (*Eta bide-kurtze orretan bakarrik ixeta san? -itauntzen deu -tsot*). Eta goiko kurtzien be bai.



*Juanita gaztetan.*

### **LETANIDXEK**

Gure aitte difuntuek esateuen, bera gastie sanien, ona San Migelera etorten i sen geubetan letanidxe. Eta iñok es i sitxusen ikusten. Da geu gusti gustidxetan. Lenau letanidxepa..., bakixu, suk estosu esetu. Baia errogatibe egunetan San Mielera ta, Sallebantera ta olan eitte sien baia ona geubes etorten i sen. Baia abade barik e.. ein bako serak... Eta gero, bateri akordeu i dxakon o..., Boteleko seleidxen an a... erdidxen, intxur ganera idxen da ikustie. Eta intxur ganiien pareu i sen. Eta akaburengo etorri i sen koxoa. Lelangokoak es itzien e..., ikusi badie bes! Esebes! Da akaburengo etor san koxoak esan itzen: -Gerkoagaittik parkatuten datzu, baia oin diñotzut: gidxau paretan basara, kontuek atara! Eta gidxau ape eseuenela iñor ikusi, esala bistera etorri. Iñope etzie(n)la urtetan. Billur ixeta sien.

### **IDE(L)TXOAK (IRATXOAK)**

Dxeuriko alabie geure ama be ixen san ba. Da geubien urtenda emetik. Eta estakipa, berton nonon ala gero presente dxakon ba. Orixe estaitt, amak esateuen baia astute nau. Kontxille gorri bet burutik. Igual euridxe

ixenda emon engotzien alangoen bat? Se lenau esan oten gordosolik. Eta Dietxetan or o..., orrek eukiuen famie itzela segurul Ori Goma baiño arau dau, Jose Mielen e..., a..., lantzarra paseta. Eta an sertu sen antza; da olango seran batzuk urtetan ideren. Nik estaitt selango ixena be esateuen. Bai! Idetxoak! Eta buelta ta buelta ta buelta geu gustidxen. Da akabuen San Juanen urrungo egunien edo, beran burue esetu. Da artien antza..., estaki nondi dabillen.

## **SAN JUANEKOAK**

Dxakingo su lenau ona San Juanea etorten..., baia su umie ixen sa(r)a orduko denporan. Ona beluko mesara, San Juan egunien e... etorte siena. Jentie Arretatik eta Meñekatik eta Larrorittik eta... Ollo geixoakatti be bai, domekatan da etorten san jentie. Olloan saindari moduen euki dien ollogeixoakatti San Juan andrak. Da etorten sien kandelak edo oridxo... Se or oridxo imitte san serien ba..., argidxe eitteko. Da botillekada oridxoakas da etorte sien. Eta gero, suk esendun ama esetuko txitxek ataten etzien iños (*Baietz erantzuten deutsot*) Da selan imitte sitxusen? (*Ez dakidala erantzuten deutsot*) Eukouen sekretotxue ba! Gure amak beti lelango, da niri be sarri imiñi eraiñ, artu arrutze bat. A! Lelango abidxe imitte sanien, aspittik burdiñe sati bet. Seraaittik..., trugoiak sertu estidxen, abixeittu estixen arrutzek. Eta gero, imiñi abidxe prest da artu arrutze bat eta: Dxandonixen ixenien, San Juan esta esaten e! Dxandonixen ixenien olloskotxu (b)et, Dxandonixen ixenien ollendatxu (b)et. Da alantxe. Amabost edo amasaspi arrutze ejenealien.

Eta gero, esan dotena, geixoak olloa pakies... da domeka atzaldietan ara, errosaidxo erresetan. Andra kuadrillie dxoate sien! Eta kandelak edo oridxo botillek eroate txusen. Da an bistute itxi.

## **SALUTADORIEK**

Gure aitte difuntuek esateuen Batiz-barrenengon ba..., egon sala lenau sera, salutatorie. Salutatorie ser dan bakixu? (*Ezetz erantzuten diot*). Lelango dxaidxo bier sien saspi anaidxek. Segidukoak. Bittartien estidxela nesarik ixen. Da saspigarrena dxaidxotan i de..., miñen kurtze bat da eskuetan kurtziek. Eta gero, arek eukitten i deu, beres, doya... Ona Riojatic eta asauetatik... txakur amurrutuen e... Amurrutute etorri, de artes osatuten i sitxuesan. Labasue eitten eon esta? Su andidxegas. Ein putz eta amateu! Eta Batixera jentetan asko etorten i sen.

11	BARRI-EMOLEA: <b>Martzeliñ Lekerika Goirizelaia</b>
	JAIOTURTEA: 1911                      LANBIDEA: Nekazaria/Etxeko lanak
	AUZOA: Botiola (Ezkondu arte) / Eleizaldea

## GORUTEN

Arek (*bere amak*) eitten seben, soloan koisten seben bedarra: liñe edo. Da a eitten seben e..., siketu de dxo. Eta gero eitten seben... a sertu. Dxo da galtzue. A(r)en galtzue bigun, bigun, bigun eitten san. Da a eitten sanien, gero eitten seben dxo, dxo eiñ eta sertu..., kardatu. Kardieas kardatu. Da eit-



ten san fin, fin, fin, fin. Da arek kardatuko areas seraas aridxe eitten seben. Goruegas. Emetik imitte seben e..., sera amarreute eta olan..., selan euki seben ixena apa? Gure gixonak saldu be entzesan Ibergunekoari edo... arek aparatoak. (*Ardatza edo? -itauntzen deutso!*) Ardatza! Da an batuten seben, eitten seben aridxe. Da andik gero beste bola bat eitten seben. Da a bolie, esueles fiñ urtetan, barridxen beste bola bat eitten seben, fiñaua. Da aregas gero eitten seben ba... telie. Ge(r)o ba Katike(r)a edo; nonora orra eroaten seben. Sakukeda bolie. Da an eitten tziesan, kirrue esaten tzien, aridxe eta an eitten tziesan telak. Gero arekas eitten seben dxosi, dde ba... ixera osoa. Iru sati igual eitten tzen ixerieri. Da ixerak..., miesaskoak. Da auñ ontzurarte be ixerak .....?..... erakusteko moduen be.

## ERROPAK SELAN GARBITU

Lelengo dxagoneu, gero tiñe baten imiñi. Tiñe ganien imiñi saku bet ta surteko eutze bota ara da ure. Bai, ure. Da arek eutzek botaten deuen labanagas, erropak urrengo egunien suri, suri, suri. Da laban, laban.

A esetu dot nik e..., eskondu ordusko Askarren krixeda nauela be. Da Anastasiok, urte bidxen eon nintzen, esateuen e... a balda bete surten e(g)osteko, eraiñotza pota, da surteko eutze aratxana edo: garbidxe. Eta bota a. Sakue be suri. Artillerie esatetzien. A sakue gero be errekan erropakas batera garbittute suri, suri eitten san.

## **FRUIXKO ERROMERIDXEK**

Aste san atzalde erdi ingeruen eta Gamix aldie..., gustidxe be ona etorte san, Fruixera. Da gero erromeridxe eitte sanien, illundidxen e... .....?..... A eitten sanien, bakotxa etzera. Da erromeridxe akabe eitten san se belurartien eoterik esan eoten antza edo. Aemaittekoata eskero, etzera etorte san. (*Nok eskatzen seuen dxantza eitteko? -itauntzen deutso?*) Gixonak. Da neskatoak alkarreas be bardiñ. Da neskatoagañe etorri tte sera esan: -Mesedes erdu. Da neskatoak dxantzan posik! Emetik Sebastianen seretik..., Sebastianena artute ara jardiñetik, da ara Palasidxoko ormara oten san erromeridxe. Da Urte-barri egune ta, Sallebantetxu egune ta... Josuuus! (*Abadiak eseuen eser esaten? -itauntzen deutso?*) Arek etorte sien..., emetik bajeta sien. Errosaidxoaa erresetan; beti, beti pasetan sien. Librue leiduten da erromerittik paseu eseittiarren, ortik Palasidxoko, len esan tzuten bidetik..., emetik atajutik paseu. Jente artetik pas(e)tan eurek lotza. Errespetoa e..., jentie paiño andidxaua. Jentie(r)i artu.

Da illundirartien josuuus, dibertziño itzela!

12	BARRI-EMOLEA: <b>Julia Sagasti Hormaetxe</b>
	JAIOTURTEA: 1917                      LANBIDEA: Nekazaria/Etxeko lanak
	AUZOA: Batiz

### UMETAKOAK...

Ume-umetan krixeda dxoanda nau ni Astortzara. Andik etzera biderik enekidxen (*Bere jaiotetxetik hiru km. eskasera dago!*) eta an ein (n)uen, edosei(n) moduten be, urte bete baiño geid-xau..., ein (n)uen an. Eta andik Anastasik, Anastasi eukiuen ixena beurrek, da Anastasiñ ama Uruenen bixi ixen san. Eta arek eroate osten, bakitt, elixara domeka arrastidxetan. Da posik dxoaten (n)itzen! Abarketatxue txantzitte ta..., aulan dxantzi sertxu betegas. Sebe dxagoten dxoan (n)itzen ni ara. Eta an nauela dxaidxo san Patxo be. Eta gero andik etorri eta ba... etzien apurret aitte difuntuek e... «sumar» da «restar» da... asi dxatesan irekaste. Arek ikisi, da..., baia beti kanpotik, beti ibil nas ni kanpotik. Neure denpora gustidxe kanpotik ixen da. Edo non edo an edo..., serien beti kridxada. Diego Etxikerreko defuntue..., eskolara gero. Ara dxoaten gintzesan ba..., amabost urte oniño enitxusen euko. Amalau (u)rte ingeru... euko nitxusen? Ba sure tio ixengo da... sera..., esangot! Karmelo! Ba..., Juanek eta Teresak a dxagoten eroastien. Andi dxoaten (n)itzen Diego difuntueañe. Geubetan, eskola apur bet...; ordu bete eitte nuen. Eitte gendun guk. Kuadrillie! Es ni bakarrik e! Maidxe imiñi, an etze sartxuen, Jeniman etzie olan, da an euren etze sartxuen..., antxe. Ba ordubete ingeru eitten gendun. Da arek irekatzi oskun restarrerañoko edo..., mutiplikarreraiñoko. Tablie be bai.



Eta gero andi be osta(be) ba... Ba Etzebarrin Karmelo dxagoten ein (n)uen e..., ba..., semet denpora eingo nuen ba? Esiñ esan nixu semet denpora eiñddoten. Oidalakotxue eiñ artien egon (n)itzen.

Da andik gero, Lesamara eroaostien ostabe. Kridxeda ara be. Dxoan (n)intzen da..., gixona Bruno eta Estefana andrie. Eta seme bat euki deren lelengo dxaidxoia ta Silban euki uen arek semiek ixena. Sesterue san bera da Estefana san dxostune. Da arek dxosten eitte uen aprendixekas da..., da ni ume dxagoten! Da an in nitxusen e... Iru urte edo lau in nitxusen an. Da an dxaidxo sien gero ba... beste umetxu bi. Ni an nauela dxaidxo sien. Dxasone ixena euki euelakoa deko patek eta Aintzane bestie. Gastienak.

Andik etorritte..., aur! Gero gerriek urteuen ensegida. Da andik serien, osaba Tomasek eroaosten Gamixera ba..., kridxeda. Ta andik, au dana sertu sen gero. Au dana betetu sen. Da emetik alde ein bigendun. Da Erandidxora, ara goiko Goierrri esaten dxakon Erandidxora dxoan gintzesan, da aitte defuntue da Larreokoak eta orrek dxoan sien ba... Retuertora pentzetan dot. Da aitte defuntue etor dxaten ara bille, ba dano patera leku beten ongo (g)arala... Da Deustuko ixekoa .....?..... eoten gintzesan gu. Deustuko ixekoaas eoten gintzesan gu. Da aitte defuntue eoten san Retuertan, da Larreokoak pe bai. Eta gero, ba... andik esnie ta ekarten gendusen da total ba..., ya dxekusi senien sera..., kontue ataxu obus betepe tapeosten niri esnieas natorrela. Ba... erdi tapeu. Errementeu eseuen eiñ arek. Eta alborra etor sien lagunek e..., ni non ete nauen edo se... Kantiñe ela esnie ela, dxekusi sen an. Da ikeatute etzera etor nintzen da. Ser paestan dxaten ixeko Erremaldak esate osten:

-Ser paestan dxatzu ba?

-Ene! Au te au pase dxat. Au te au pase dxat.

Gero, ainbet denpora ein gendun an be.

Da gero ba..., an a... ospittelan atzien dau errefujidxotxu (b)et. Oidalko errefujidxoa. Da andik alan erreka txikitxu (b)et dator. Eta geubetan ba..., egunes ara errimetan gintzesan danok. Kataliñepe memoridxen eukottu orrek!. Mari da gu, iru aistok an. Gero ori be pase san. Gerrie pase san ara. Eta an galletak (k)oitxen gendusen erreken beste aldardittik. Galletak. Abandoneta lotu sen dana ta! Ure edan da galleta txan. Sortzi egun ein gendusen an. An errefujidxoan. Sortzi egun! Lo be bertan. Txixe ta kaka eitten an, al dun lekure dxoaten gintzesan! Ori setan esan esta. Al dun lekure dxoaten gintzesan. Gu, geuriek paesta gaus. Geuriek paesta gaus gu!

Gero, pase sien. Es sugiripes e..., errekan andiko aldarrittik egon gintzesan da. Emetiko aldarrire paestako sugiripes. Imiitxuesan a..., gabarra batzuk imiitxuesan. Pase gintzesan andik eta gero... etzera. Mari tte bidxo etor gintzesan oñes. Bilbotik etzera oñes ona. Emen iñor bes! Iñor bes emen! Dana asto ille bidien! Goixien urten Bilbon da arrastiko irurek edo geidxau eiñ dxakun ona etorteko. Da or saludo itzela eioskuen, or etor

gintzenien or. Saludo itzela egon sienak. Ateripes etzietan, dana(k) kendute! Or Soloburutik eta igaroten da..., koitteduek ibil sien. Da gero, gu atzera barridxen dxoan gintzesan lengo lekure. Mari tte bidxok dxoan gintzesan.

Eta gero, ni andi kridxeda dxoan (n)itzen. Da au Bonifasi, Juan Mugeran ba... andrie Bilbon, esniekas ibillte san ori tte..., suerteu an ba... serztzie ta:

-Ene, kridxeda saus?

-Bai.

Atzotxu beteas eon nitzen da atzotxu orrek desespere eraitteosten, bakarrik bixi ixen san da. Da:

-Ba, neupiot kridxedi!

-Ba..., etzekoari esan barik ixin dxoan neitte -esan (n)itzen olantxe. Da aitte defuntueri esan (n)itzen.

-Seuk (g)usuna eixu -esausten aitte defuntuek. Da ara dxoan (n)itzen da gero egunaro, egunaro andik esniekas ibilltten (n)itzen Bilbora. Eta antxe ikis nuen apur bet. Librue emousten berak serak eta. Librutik antxe, ba artute eukitte nitxusen nik neure serak, eta antxe apur bet ikis nuen e... neure eskola altzitxu ori. Andixik, andixik. Ba..., bost urtien egunaro dxoaten (n)itzen Bilbora esniekas, egunaro. Da bendejie..., etzietara baiño eskendusen eroaten. Plasara gitxitten dxoaten gintzesan! Dxoate sanien, bera Bonifasi dxoate san.

Bost urte paseu an eiñ eta etor nitzen etzera da Larrekora eroastien. Da gero, Larrekon ixen san a... nire dxoan etorridxe. Seme tenpora ingo nuen Larrekon be ba? Estapa sortzien bat illebeta edo en banitxusen Larrekon be!

Da andixik eskondu Dxon! Ona. Esetu be en barik! (**Semba** **urteas?** - **itauntzen deutso?**) Ni eskonduko nitzen... ogeta iru urtegas. Onaxe eskondu nitzen. Da amentxe gidxau!

Emen be es urik, es argirik, es kamiñorik, es Jainkoan grasirik! Eta onen aittek... (**bere etxekonekoari zuzenduz**) Bueno, ein gendusen orrepe. Geldi-geldi ein gendusen orrepe. Bueno: «Atzekoari se itxiko dxakie?» Ori memoridxen eukitten dot e..., aitte defuntuek onenak esateuen: «Atzekoari se itxiko dxakie?» Ta: ba..., atzekoape seuse euko dee eitteko -esan (n)itzen (n)euk. Gero, bidxen bittartien il sen.

Eta ni, ser da kontue ta, golperik andidxena! Etzie eitten gero... biar ixen dot. Etze sarra euki gendun; dana dxekusi sen da! Etzie eitten oniño ni! Nik oniño golpe neusidxe or koixu dot. Or golpe neusidxe artu nuen nik!

13	BARRI-EMOLEA: <b>Santa Garai Pinuaga</b>	
	JAIOTURTEA: 1911	LANBIDEA: Nekazaria/Etxeko lanak
	AUZOA: Mandaluiz	



### ERRENTA-ETZIEN

Eskondute gero ba..., orixe legie orreri (*senarrari begiratzén deutso*) usabak etzie emo(n) sotzonien. Se dxoan san ori ara au etzie emoteko da gero esan doskun ba..., arreleta-ko geuk au etzie, berak gero pagekoscule ta. Bueno, orreri etzagu iños kasurik eiñ, se eseuén seas pageu te. Da gero imin sotzon orreri bosteun peseta da amar egun bierrien debalde. Bueno ba, baia ori imiñi arren, ba onekas ondo beti tte (*bere auzo-ko baten familiaren ganean dabil*)

diskulperipes. Onen aitte bierrien laguntan igual etorri, baia Josetok (*Lehen aipatuniko familiaren bestaldekoa. Errenteroak biak be*) ba... espa-goas bierrien, esteuela eingo bier da. Berape, eurepe. Da lioa armeuen. Aaaaa! Asikeratik. Lelengotik, se nik umiek da ara dxoan bier..., da biarerra dxoan bier, da suk esendun dxoan guxen orrek egunek eñ eskero! Da ni dxoan. Orrek gue ixen es arren, ni dxoan. Da gero bidxok. Gero ori be, es ixetiarren sera..., dxoan. Baia alan be egun bet utz eitten bagendun, beti lioa Josetok.

### ESKOLAKO ERRESIBOA

Ni dxoan (n)itten eskolara, umiek txikidxauak amak eta areri kasu ein biar, baia dxoan (n)itten bastante sera. Baia nik ikisi ein gure da ensegida ikis neuen leiduten. Da, ser da ta, ba... esan dosten illebete ein (n)euénien, nik amabi urte eiñdde euki, amabi urte eiñdde euki nitxusen da, bos peesta ekarteko erresiboa eiñ. Orrek maixtriek. Da esan notzen amari tte: «Bos

peseta?» Pentzeixu, orduen asko ixen san. Geur ba..., artu bes iñok, botata be. Da: «Bos peseta?, Ba laster urten bistasu etzetik, ba bos peseta eroan bier bosu». Da bos pesetagattik eskolara es dxoan gure. Da eroan neuen bos peesta ta ba: «barridxen esin (n)itzu pagu».



Te Rosali, ni baiño sarraua, errotakoa... baia aitte alkatie. Da areri kobreu bes. Se (e)ingo su? Ba... esebes.

## NESKA GASTIE ILL

*(Auzoko neska gazte bat hilbarri zala Mungiako plazara joiazan euren astoak harturik Mandaluiz auzoko andrak).*

Astoas dxoate nitten neu be orduen Mugidxera lelengotan emen. Da ama be bai. Astoagas Mugidxera. Da ba..., an dxoaten san ori tia be oiñes igual. Olan otzara sabalien geuse tiela. Da ori neskie ba, majatxue ixen san da, baakixu: illttie ba danok sentietan du. Da berak pena itzela euki euen, a majatxue ixen san da. Pena itzela ta: «Santa, Mirenen sera etor dxast lengoan, aur beresidxen parien noala». Antxe soldaduek selan dausen? Antxe doala etor dxakola oridxo usiñe itzela, da Mirenen sera etor dxakola berriri!

14	BARRI-EMOLEA: <b>Braulia Hormaetxe Gerekaetxebarria</b>
	JAIOTURTEA: 1915      LANBIDEA: Nekazaria/Etxeko lanak
	AUZOA: Mandaluiz (Bizitza osoan)



*Braulia eta Felipe senar-emazteak.*

## GORUTEN

Lelengo en bida garbittu. Gero en bida siketu eta gero altziketu. Gero, altziketuten danien, txarrantxieas paseu en bida. Gero, ba eñ onek moltzook da aridxe (e)iñ. Da gero, galzterdidxek eiñ. (*Selan eitten da aridxe? -itauntzen deutsot*) Aridxe seragas... Take paten imiñi sera... onek moltzook eta onegas (*tres-na bera erakutsiz*) aulan. Olantxe, olantxe, olantxe eitten da au bal!

(*Azalpen laburra da baina kontutan hartu behar da azaltzen eustan bitartean, bera goruetan ebilela eta nik ikusi egiten nebala egiten ebana. Horregaitik dira hain esaldi laburrak*)

## LIÑE

Ixerak eta eitte sitxuesan lenau alako serakas. Apaatoape alakoak eon die gurien. Selebresko apaato batzuk! D'ixerak eiñdde. Oniño gurien ixerak ongo die estreñetako. Arek kirusko... serak, beidxeri mantak eitteko klasien. Liorra tire arek. Ba arek eukitte sitxuesan aunek arraskie. Onek eittekoak (*Erakutsi egiten deust*) suabe, suabe, suabe, suabie tie, baia arek

ixerak eittekoak siren...: take pateri untziek sartu. Aulako moltzo bat. Untziek. Da esate seuen gure ama defuntiek: -Arekas arraskeu! Bedarra, bedarraas eitte sien arek Mari (*Bertan egoan beste andra baten izena*).

Orrek hierrok etzien eiñ... da gero botaten sitxuesan, esaten seuen gure defuntiek, makiñera. An makiñen eitteko ixerak.

## GERRATIE

Mundekan eon ginttesan ba. D'orrek sea tatosela emetik esaoskuen..., ba soldaduek. Da gure koñetuek, arek soldaduek bertara etzera allegeu orduko, ba Bermiora dxoan biule esaoskun. Nora, Bermiora? Dxoan giñen kalera. Itxi gendusen e..., txarritten be itxi gendun etzien...! Da ganadu gustidxe. Atiek ixitte itxi gendusen. Dxoan ginttesan a... Bermiora eta eroan gendusen ganaduepe an a... serien, ortu santu ondoan. Geu be alantxe egon giñen: ortu santu ondoan. Eta pare ginttesan, koltxoiek eskatu jentieri, eta beko serien, beyen; sartunde beko plantan a..., bertan kolar baten eon ginttesan ainbeste lagun! Da kalie! Da «ai mi madre!» da «ai mi madre!» geu gustidxen ibil siren. Soldaduek ixengo siren. Ei sen goixien egune, or seirek ingeruen. Enei! Batapere «ni enoa orra kanpora, se or ongo dan illen illek esteko akaburik eta» -esan seuben. Baia urten en bisen ba! Noixonos urten en bisen se ganadueri emon edo seuser eitteko be.

Urten gendun. An esan egon arimerik. Bueno, ser da ta, akorde dxaku «etzea dxoan bidu ba». Da andik i... Bermioko seetik i... orrek errota tausent lekuti, bueltan itturritxure sartu(n). Itxi en gendusen modu, modu, moduen egon siren Mari danak.

Sartu ginttesan etzera da seuser, kafe apur bet edo ba seuser en biule ta... Asten da goitti bera jentie! Soldaduek! Aldien dakadiesan arek artaburuepe bota (a)lien. Bonbak. Libretan, se bestiek eurrie koixuteko billurregas, are potata. Eridu bepe an ekar seuben. Soridxonien gure koñetuek urten kanpora da egarri dala a eridue ta ur apur (b)et arei emoteko. Guk agirika areri. Baia urten setan eiñddeuen gixon demoniñoak! Se orduntxe etzera sartunde eon giñen da. Da ser da? Da an doas dana potata. Gero ser da? D'eurek artaburue patzien, Demikuko alkate bat e..., alkatie ixen san da, arek e... Guk agarreu en gure (e)s areri serari, trastieri ba. Se ain sien e..., klase bi sien: Artaburuelakoa da ostantzeko tanke antzeko bat siren ixen bere. Sera, alkatieri deittu de alkatiegas batu gendusen bertan etze ondoan egon sienak; gustidxek.

Iñosentien bierra. Makiñeat entzuten seuen gure defuntuek! Setan dxoan bier guk estu euki Bermiora, berton egon baiño! Se Bermion...,



dxoan ginttesan..., geu gustidxen eskendun lorik eĩn da «ai mi madre!» da «ai mi madre!» danak eta...

(...) Nik eskapeu be (e)in (n)otzian enoala ta. Da geure beseridzeko bat euki gendun u... kamiñoan ganetik eta arek be eurekas egoteko bertan. Bai, eurekas egonda be, beste jentemodu gustidxe beien da. Se (e)in neuen? Beluau be dxoan ein (n)itxen neu bere eurekañe.

## **ERROPA GARBITAN**

Lenau ba eitten sien ba..., sertu. Tiñekuen garbittu. Da oin leña bota bidxakon kasuen, surteko eutze botaten dxakon. Imiñi ixera bat edo esta? Ta areri eutze bota. Imiñi beste tapa bat ostabere ta eutze bota. Da gero, akabuen ganien oidalako moltzoa... eutze. A san a..., leña! Da garbi garbi urteta seuen! (*Selangoa ixetan san eutze? -itauntzen deutos*) Surteko eutze! Surteko eutze, bakixu sui-suri lotzen da erretan danien. Eukitte txus u...txiñder batzuk edo..., arek baltzak. Ba arek kendu da garbi, garbi, garbi, garbitxue bota. Gero ure..., beroa bota ganera. Areri eutzeri bero-beroa bota. Da oin leña eukitten dun moduen baiño luseotxuau eukitten gendusen e..., erropak an.

15	BARRI-EMOLEA: <b>Anjel Uriarte Rementeria</b>
	JAIOTURTEA: 1925                      LANBIDEA: Nekazaria/Itsasoan
	AUZO: Plakone baserria



*Angel bere emazteagaz.*

## ERRESTAK

Pruixeko kuadrillie ixen sien..., gure Migel, Juan Lartzebarriko, Pedro Soitzeko... Geidxau sien. Kuadrille geidxau sien. Amar bat edo olan sien. Da eiñdderen..., eitte deren periodikuen anuntzidxeu. Eurentzako errestan iñon badau erririk... desafidxo. Da Busturikoak urten tzien. Kontestasiñoa emon tzien San Martiñ egunien Arrietara dxoateko. Da olantxe ba, emekoak dxoan die Arrietara da Busturikoak etor die Arrietara. Da mutill altu bet erromeridxen dxantzan. Da Benardo, orixe Benardo, Felix defuntuen anaidxie, ori be kuadrillekoa. Da esantzie bueno, «auxe mutille»..., dxoan da, jaleoa nondik, errestie nondik arme bidien da. «Orrexek, dxoan da erremeridxen neskiegas dxantzan dauen lekuen, dxoan da dxo bideu». Benardo dxoan da, da dxo deu esku sabalas arpidxen. Gero, ta asi die Benardori latigotzien. Bestiepe sartu die, danape sartu die. Danak e..., kuadrillen errestan.

16	BARRI-EMOLEA: <b>Nikolasa Astorkiza Legarretaetxebarria</b>
	JAIOTURTEA: 1921      LANBIDEA: Nekazaria/Etxeko lanak
	AUZOA: Sallobante baserria (Andeko auzoaren ondoan)



### **SORGIÑEK ILL EDEN PATXO**

*(BARRI-EMOLEAren nebea, Patxo izenekoa, gazte gazterik hil zan gaixotasun ezezagun baten ondorioz).*

Il sanien, nik sortzi urte euki nitxusen. Neure..., dekot erretratu bet, igual-iguala, bera igual-iguala, majoa. Iru urte ei sitxusen ak (g)eixorik. D'ospittelien, au txatoa Fikeko

da ori bakixu, letxeru ibiltte sana. A on san orduen enfermeru. Da amak esaten seuen e..., oorloko bat, geubien etorri ein biar akabuko trenien etzera. Da Mugidx(e)tik i..., oñes. Eta kasu eitteko esatetzenela ta oorloko bat emoten tzenela areri enfermerueri eta posik urrungo egunien dxoate sanien ostabe. Posipa selan topeko ete dauen da! Medikuek esebe (e)tzien topetan, esebes.

Da akabuen, aitte dxoan san Mundekara. Astu beteañe, adibiñadoriek esaten dxakie oin baia, astue, astueañe. Da ak atetzen erretratue: -Aune teko sure semie amarreute! -esantzen. Esetuten dosu au? Bai! -esatzen aittek. Ba onexe teko sure semie amarreute! Eta etzea soasenien, bera tekon almudie errekestexue. Eta orduen lumekas oten sien almude pa. Antzar lumek edo, ollo lumek edo... Eta tope gendusen... Esaoskun astuek, amaaitteri esan itzien, nik sortzi urte baiño enitxusen euki, aitteri esan itzen ba..., ollarra osotute espadau, mutillek urtengo deuela eurrerantz. Semiek urtengo deuela eurrerantza. Ba(i)a ollarra osotute badau, esteuela urtengo. Eta kadarak, da gangar da gusti burue, d'egoak da... tela bellegitxu betegas eiñdde ba... egaletatik kurtze bat tope gendusen ba... almuden. Eta esaoskun bide-kurtze baten erretako. Da arek esien erretan.(...) Ori kurtzie da, Pedron soloa dekona, da ortxe erretan aspigarridxek botata, selan ibil

sien aitte ta. Da «teu» te «teu» te «teu» da erre (e)s! Da Migel taberneruek eroan sitxusen, imposible dalata, ejenplu itzela dalata, eta estai kero nondik eta nora... Ela enterreu en sitxusen ela ser eiuen. Orixe estakitt. Eroan Migel taberneruek ein sitxusen.

(*Barrero bueltatzen da kontakizunera, azaldu ez dauan zeozer kontetan*) Bederatzi-urrunegia agiñddu tzien Destun (Deustuan). Ospittelien egon ille bi edo..., an da, ese etziela topetan da, bota eden da. Eroan bederatzi-urrunera eta kamillen eroan, d'oñes etzera etorri. Aldiko etzatzien tasidxe etorri..., Aldiko etzatzerano eta Peuen or o..., suguitxu bet ote san. Eta andixik suguitxutik paseu te, Saliebante egune ixen san, eta Jabian Lomeiko ta ixen sien beran lagunek eta Jabian Lomeikok eta dxakiñ, Lionagas etor san... eta «Ene! An dator Patxo, an dator Patxo» Danak urten tzien bidera, orra estertzara. Oñ piñuek eta daus, da oñ esta suntu be eitten baia... Eta andixik etorri da normal etzien ibilli eta dxoan san, amari ure ekar bitzola edateko ta, itturri sarrera da bertan topeuen enbriori da esatzen: «Patxo se esaten sabis nigaittik? Ba espasaus ixilik, len baiño txarrau imingo suttut!»

Etorri etzera, pae san atzera da... kittu!

## LAMIÑEK ITTURRIDXEN

Ku(e)ba bat edo euki eden an e... itturridxe..., estertzan, lengo estertzie baiño goratxuau. Oin kamiñoa..., ta estertza sarran bittartien. Eta eun urte edo gidxau ixengo dire ordurik eta ona. Edo gidxau! Igual ixengo dire berreun be.

Da orrasidxe itxi an Lamiñaneko..., orrausten ibillte sienela ba. Da txikidkek ixetan i sien lamiñok. Da orrastuten..., da orrasidxe astute itxi edo. Da an gero beidzekas edo dxoan sanan batek, orrasidxori artu. Da etzera ekarri edo, berak falta edo. Estapa se ixengo san ba! Eta esatzenela urrengo dxoan sanien e...:

«Ekarten espaostana  
nire intzuskorrasidxe,  
nik kenduko nin  
eurrien daroan bei txikidxe»

Ori, gurien aittek eta amak eta esate (e)den.



## **SORGIÑEK ETA KATUEK**

Sorgiñek katuekas dekie komunikasiñoa. Nik dakitt. Geur esta bixi a persone baia aren aistie bixi de. Eta selan a be adibiñe dadorien bateañe edo olango astuen bateañe dxoan sanela da esatzenela

«Asau bari tekosu...sera» esatzenela. Eta ikusitten on sienela ba... «rra» ormasiñien pare sanela... katue. Da «rra» gero lagune forme sanela.

## **SORGIÑEK URROSTOKIDXETAN**

Ori Larraoriñ i..., saratak ixete siela ba. Tximiñittik eta. Jentie..., geuge-tan dxoaten i sien. «Ene, Fiken ser paestan da» ta «Ene, Fiken ser paestan da». Eta ba... ori, Dioniñ aittitte ixen san sakristoa, «Dxoane Bietxe» esate tziena. Eta a ba ta... Ser ete dan, da ser ete dan da. «Es ikeratu» esaten i tzien berak. «Es ikeratu, es ikeratu». Or saratak..., itzelak ostabe ta... Arri bolalangoak etortien moduen, da arri bolarik es ba! Da ser ete dan, da ser ete dan da... Alangoan baten dxoan san eurki oira edo. Da ereri «Dxoane Bitxeri» akordeu i dxakon, «ño» dxagon en biderela axe. Dxagon eiñ idxeren. Da ate ertzetik ikusi urrostokidxen e... «txir, txir, txir, txir, txir...» urtenda bitxook.

17	BARRI-EMOLEA: <b>Dionisio Gangoiti Llona</b>
	JAIOTURTEA: 1911                      LANBIDEA: Nekazaria
	AUZOA: Botiola (Bizitza osoa)

## LABASUE

Lelengo labie imiñi ondo da gero, sue ixetu. Ota sikue imiñi de gero, ota gidxaukoa. Kargeu labat. Lodidxe. Kargeu ta kargeu. Da labasue igertan danien eiñdde dauela, berak igertan deu noraiño marketa dauen... (*Selan igertan da? -itauntzen deutsot*) Selan igertan dan? Berak emoten deu aridxe..., eurreko aridxe surittuten asten da. Lelango baltzittu eitten da ta gero surittu. Lekureiño allegetan danien surittutie, «ointxe nahikoa dau surittute». Fuera, garbittu! Dana. Lelengo brasa neusidxe, pala bateas edo lurrieas atara kanpora. Da gero ipiskidxe. Garbittu. Gero arto-opillek. Arto-opillek eiñ. Arto-opillek kentzien dienien, erreta ataten danien, artoa sartu gero. (*Artoa sartu orduko esan beste eser erretan? Piperrak edo? -itauntzen deutsot*) Sagarrape bai. Artoa sartute gero be, aren ganien, barridxen ganien be sagarra imiñi tte erre. (*Semat (d)enporan euki biar ixeta san artoa barruen? -itauntzen deutsot*) Urrengo egunearte. Egurdata, egurdate gustidxen eraitten. Ondo eitteko, lelengo asikeran, ordu erdiri peiñ bai. Beñ arratzaldea eskeron es. Urrengo egunien atara.

Gero astoa oten san. Olan laratroan suloak dekosen astoa. Da saran bete (e)do kabite uen ondo. Da gero, maso ser bat ein dde areas masoas dxo, da aspire urteta uen garunek. Gero, arek burutxek aparteu de artoa garbittuteko, makiñie. Edo artzieas, artzieas be bai. «Parrrraaaa, parrrraaaa» eiñdde, artzieas. Oingo enbrak etxakidxiak baia lenauko enbrak dxaki(n) dxien. (*Non gordetan san artoa? -itauntzen deutsot*) Kaixan. Ak urte gustidxen be bardin balidxo ixte uen.





(*Gero, danak eroaten sien errotara? -itauntzen deutso!*) Danak. Etzien bidienak, etzien bidienak! Ganaduentzako ta noberantzako ta danerako. Da saldu be igual. (*Se kantidaderoate san errotara? -itauntzen deutso!*) Gurdikadie (e)roaten basu, igual eroaten sendusen ba..., amar, dosena bat anega be igual. Sei be igual. Sei-sortzi anega enjeneal e..., fijoja. Kaixadie.

Orrek eitte sien gero ekarri etzera da ortosi pareu da altzeu gora serak, frakak eta sakatu, sakatu, sakatu. An urune esan eitten e..., garrastu iños be. Esan garrausten. Gero sarratu. Tapie imiñi tte listo! Gero bakotxien..., palatxu (b)et eoten san an, da palatxuas koixu te baira bota ta bayan eraiñ dde taloak eñ.

18	BARRI-EMOLEA: <b>Kandido Lotina Torre</b>
	JAIOTURTEA: 1911                      LANBIDEA: Nekazaria
	AUZOA: Lotina (Bizitza osoan)

## GANADUEN GEIXOTASUNEK

**NAPARRIDXE:** Naparridxe ixen san ya... dxateko gana gustidxe kendu de kalenturek andid-xek eta miñe..., gustidxe be asal gustidxe soltetan tzien ganadueri de ixen san... Urtetan baeuden be onak, bixirik..., igual inutill urteta eden. Da lodittu ixiñekoak eta gatxak lodittuten dienape.

**BIRIKIDXETAKOA:** Biri-kidx(e)takoa txarrau ixen san. Birikidx(e)takoak enjelealien ba..., ill eitteuen. Denporieas ill eitteuen ak. Batan batzuk urteta (e)uden esta? (*Ser sentita euen beidxek? -itauntzen deutos*) Beidxek, ser sentiduko uen ba?

Beidxek bronkidxotakoa ta birikidxek gaulte. Arnasoskie andidxe! Egon esiñik. Egon esiñik beti. Da argaldu asko. Da luseroko aguantipe beidxek esteko olan dauenien. Da kendu en bisu edo ba..., ill en bide edo. Estaki-xu bixirik urtengo badeu be! Eta asunto txarra. D'euki bisendun beidxe, kasu (b)eteko, gortan subertan ba dxatzu, ba ein basoan e... txabolie. Da (a)ra eroan da an euki bear sendun bera bakarrik. Da bestiek naste barik itxi ....?.... ondo.

Ganaduen geixotasune, bai birikidxetakoa ta bai bestie, nasteu estidxen ba..., gortan akarra edo eukitte (e)den. (*Setako? -itauntzen deutos*) Aren atzak desinfesteu edo.

**UNTZARRIDXE:** Otzikeriek ekarrikoa. Errapie gogortu, au baiño gogor-rrau eñ errapie aldaridi bet esta? Edo erro bat, edo erro bi bakos bi..., aldaridixe. Eta gogor! Da gero eitten dxakon areri, lenau medikamenturik esan



on, oñ o..., ba «Funtiterrak» eta ingerue taus. Baia... kantarako arridxe, kara-arridxe ekarri eitte san, es au, Berrenkokoa es e! Ara-arridxe ekarte san, da a araarridxe gorittu eitte sendun txapan edo bekosuen. Sue ein ganien da gorittu! Imiñi balda baten, da a esnetxue erasten sendun, imiñi beidxen errapien da..., da keie botate uen ak, lurrune. Da latigo erasten, latigo erasten da beidxe gustidxe ixertzan imitte sendun. Da mantatxuas tapeute imiñi beidxe, da ya paseu eitten yakien. Paseu eitte dxakien batzuri, besto batzuri erroak galdu be bai.

## **KARABIDXEK**

Otie (e)bai bisan, sendo. Lenau otie bakixu, ota gogorra oten san. Take-tak itzelak basoan! Eta arek ebai bisien egurren moduen, egurren moduen. D'eitte (e)den arridxe, atara an kantaran, ataten san lekuen da gurdidxe-kas ekarri. Da kargeta euden seiñdde ba... kargetan dan moduen e..., len esan duna, iketza eitteko egurre kargetan dan moduen, arridxe kargeta san. D'aspitti labiek e..., arto-urunek (?) eittekoak dekon suloa, eukitte uen ape. Aspitti. Da a(r)ek «ri, ri» eitten tzien sue (e)moteko gero otieas. Eta kargeta euden ya... arri tonelada asko. Arridxe asko kargeta euden. Esate euden alan eitte sala da batek geu gustidxen eon biixeta uen or, guardidxen. Gero tapeu eitte san a. Soidxeas edo tapeu eitte san a. D'arridxeas beraas be, lixu imiñi goidxe dana. Seiñdde labien formien edo olan. Arridxe egostu eiñddidxen. Gero, emotetzien sue. A sue kontinuantemente .....?..... bisan e... tenperatue bat antzian. A..., erretan eon biuen beti. Beti eon biuen erretan. Eraitten, labieri eraitten da eitten. Da erreleboan gixonak ote sien an. Esate (e)uden. Gero, atara da aas urteta uen kanpora... bolak. Da gero areri eitten tzien, ure edo eiñdde, ure edo eitten tzien da, eitte san ba... bigundu, bigundu, karie. Sobreta sien arri ondakiñek urrengorako.

(*Setako erabiltten san karie? -itauntzen deusot*) A karie obratarako ta solorako asko, solorako asko! Urtien e... labasu bet e..., etze bakotxak diaridxo engo uen (!). Urtien bat. Da bestalde bestaldekoak edo eusoak eusoari lagundu.

19	BARRI-EMOLEA: <b>Alejandro Legarreta Uriarte</b>
	JAIOTURTEA: 1918      LANBIDEA: Nekazaria
	AUZOA: Botiola (Bizitza osoan)

### GERNIKE NOK ERRE UEN?

*(Gudaria izan ostean, nazionalen aldekoek preso hartu eben eta hareikaz egoala gertatutakoa da hurrengo kontakizuna)*

Pregunte bat eiestien. Sarjentoan sera..., uneda baten, hainbet..., bastante lusero on (n)intzen e... asistente. Sarjentoana. Da ba..., emen ixen sien riojanuek, erriojako jentie, alegrie! Jente alegrie. Dana kanturriadie t'ingerue ta (a)legrie jentie! Da an on sien serari, sarjentoari, nik ekar biar ixetan (n)itzien e... rantxo dxaten. Da serak..., sapatak garbittu de olango sera eitten (n)itzien nik. Da gero lantzien biñ etorten soasen e... eurek sarjentoa paiño superiorauak ixetan sien. Kapitan bape etor sen.



Gero, nik oki nuen konfientza andidxe sarjento «Bitoria» ixena dekonagas bates be. Da..., non pregunte bat e..., en biostiela akorde dxakien. Bueno, edoselan be preguntie ixen deidxela onerako ba! Esan (n)itzien ba. Esan osten ba se «Suri etxatzu paseko txikerreni pes! Txikerreni pes. Suk ein ba..., egidxe (e)san. Alan dala nahi olan dala, seuk sentiiten dosune. Egidxe esan!» Da bueno ba, egidxe bada. Gero orre preguntek eiestesan onek akabuko..., oiñ esaten dana, kapitan batek. Da kapitanari esan (n)itzen ba se «Bueno, si me insiste tanto uste..., ba seure ordenatan paretan nas ni. Baia gero, disgusturik estu biar e! Au erresponsable, sarjento



Bitoria» «Tranquilo e Legarreta» esaosten. Bueno esaostien ba se, arek kapitank pregunte osten e..., Gernike nok bonbardieu edo nok erre uen ia esato badakitt. Ni takitt esato! Esan (n)etzién seeko..., abiasíño alemanak. Oñ, enekela esango fijadan ba... besterik i... ba... española nastien edo olan ibil basan, baia edoselan be, abiasíño alemanak. Aren serak, junkerak. «Bueno» esaosten. Da gero, arek abiasíñoak, arek abiasíñoak e..., erretireu, erretireu semet ordu ingeruen edo ein san bonbardeo..., matxa-keute serak... Edoselan be nik i... fijadan ixin (n)eidxela esan orixe. Baia edoselan be, neure ustes ba, ordubete t'olan ixengo sala bonbardeoa. Andik ixen san.

Kittu! Ori esan (n)idxuen da eguno..., eskuek emonda aparte san a kapitana.

*(Ori preguntie segaittik ein tzunela pentzetan dosu? -itauntzen deutsot)*  
Dxakittearren, dxakittearren. Osea ke, eurek ofizialak eta danak diesela, baia batzuk dxakittasun da beste batzuk dudoso. Da olan, olan sera... Olan euren ser kontue.

20	BARRI-EMOLEA: <b>Jesusa Legarreta Batiz</b>
	JAIOTURTEA: 1916                      LANBIDEA: Nekazaria/Etxeko lanak
	AUZOA: Olagorta baserria (Morgarekin mugan)

## MARIPOSALANGO SORGIÑEK

(...) Sorgiñek urtetan diela ta bai, bai. (*Da, se eitten dere? - itauntzen deutsot*) Estai nik, sorgiñek e... sea, alan mariposa batzuk, sorgiñek. Berton be lantzien batzuk bakosela saatie ixetan san sorgiñek. Eta sorgiñek dekosenak a..., errestan areri geidxau exin ei leidxiela. Mariposa moduen orrostoki bet eukitte edela ta. «Fiiirriiii...» kanpora urtenda, errestan eiñdde be, areri geidxau eitekorik esala oten da orre pai. Orrostokidxen barruen sorgiñek oten sienela. D'olan errestan e..., diskusiñoa edo errestan beste bateas basabix de, sorgiñek aldien dekosenagas asi eskero, arek atate uela orrostokidxe ta «Fiiirriiii...» kanpora urteta edie-la sorgiñek eta areri geidxau eitterik esala oten.



(...) Da berton be on san ori saratie. Nok dekosen be arek sorgiñek. Oñ egidxe ixengo basan! Orixe estai nik.

Gero, arek sorgiñek e... saldu en bidiela esate (e)dien. Da saldu, diru geidxauen saldu bidiela. Iñok erosi guixen eskero. Da diru geidxauan saldu esik i..., noberari eitten tziela ser da... Nik estaitt egidkek ixetan basien.

## BEGISKOANA

(...) Ume txikidxeri be bai. Estai nik egidxe ixengo basan edo espasan. Ume txikidxek e..., olan a..., txikitxuek ixeta sienien igual, negar da negar oten sien lenau. Da begiskoana. Lar guixenas eitten dxakiela begiskoana saatie ixeta san. (*Se eitten dxakienela? -itauntzen deutsot, ez dot ulertu-eta*) Begiskoana..., guixenagas estai pa ni pa. Begiskoana esate (e)dien da. Umie negar da negar a..., txikitten oten san. Neu be akordetan nas a... Juani Iberguneko gurie be. Bat a..., negar da negar beti tte geixorik este-kola. Da negar da negar da..., baten selan eroan gendun ori santietuena eitten e... dakidxenaiñe. Iberrera eroan gendun. Edo «Gorritxu»-nera edo bestaldera pentzetan dot. «Gorritxu»-n bestaldeko batek ei tzela.

Aitten kaltzerdi lodi beteas a..., orrotza pase ta orrotza pase. Da begiskoana es eitteko ta... Gero, sarten baten seuse eitte uen. Da sartenien bidxotzak urtetan badeu, begiskoana dekola. Da aixe eiñ esik, estala kentzien.

## LIÑE UNTZIÑORAKO

Abadiak e..., ba (a)ulan a..., elixakoak eta ekarten datorrenien e..., untziñoa ta emoten sien lenau. Oñ o..., esta olako kasurik eitten. Da oñ, algodoieas edo guatieas baia aregas a... eitten diela. Amairu ser edo estaitt ser eitten sien. Nire aitte difuntuenien ikusitte dekoas. Oridxoas da, belarridxetan da, sur silloatan da..., untziñoa emokeran abadiak e... eitte txus. Oiñ estitxues eitten. (*Liñegas? -itauntzen deutsot*) Oridxoas eitten tzien... Areas liñeas siketu. Da eukitte uen gure ama difuntiek a lin sati bet e... Akordetan nas selan euki uen. Liñe.

21	BARRI-EMOLEA: <b>Patxo Mandaluniz Isasi</b>
	JAIOTURTEA: 1915                      LANBIDEA: Nekazaria
	AUZOA: Olagorta baserria (Morgarekin mugan)

## **MARTI-OLLARRAN KUKURRUKUEK**

Gurien e..., aitte defuntuek e..., arrabie euki uen Gamixera eskounte. D'an-tza a be txarto ibiltte san, txarto! Maldesiñoak edo euki txusen eurki. Da geure aitte defuntue ta eroan txusen e..., a... maldesiñoak etxa txusen etzera, geubes. Geueko amabidxetan, ori... marti-ollarra eroan. Marti-ollarrak kukurruku eitten. D'eurki an e... atara den e..., saatak et'ingeruek eta eurki. Ur beinketueas. Ur beinketue bota, da geo trotan eskape tzielata, eurki astrapala bakotzik!



Arraba defuntie an txarto eukitte dela. Maldesiñoak etxa..., batan batek, eusokoan batek eta. Da geo, seak e... esan se in bidan. Astuek edo. Ak esan tziela ta, se in bidan da. Aik eta sea artu artien da. Gamixko kanpayak amabidxetan e..., amabi-amabidxetan dxo txusenien «RA!» Ur beinketue bota bertan portalien da... Han kate otza t'astrapalie ta...

22	BARRI-EMOLEA: <b>Andres Gangoi Elorriaga</b>
	JAIOTURTEA: 1931      LANBIDEA: Nekazaria/Lantegian
	AUZOA: Makatze baserria.



### LABRANTZAK

Nik, neure denporan beti idixekas eñ ddot. Neure denpora gustidxe. Iru etzalde erabill ddot idixekas. Au, da Udxarte eta Mugerre. Mugerre be ainbet urtien euki gendun errentan. Se gosamena ixte sales..., aitte bertakoa. Ba gero geuk artun gendun a be, errentan ibillteko. Nik e..., biar eiñddot beti ba... idixekas ba... makiñetie. Ori golda batekoa es dot esetu.

Lenau laidxekas. Onek babak sartu te makiñetu be, aitte defuntuek esate uen, sarrak, soloak orrek lau laidxegas, pareu kuadrillen, kartillu (b)ete arda sarrak

edan, eta alan kuadrillen eitten txuesela makintu. Geur solo bat eta bidxer bestie.

Esnie be oniño, nire txiki denporan esan saltzen. Au Iberreko Patxolin asi san gero Botelen saldidxegas (...) Da ama defuntiek esate tzen aitteri ia asiko garan esne saltzien da... Gu fameli andidxe ixetan gintzen da..., alantxe, alantxe gero ba... sertu sen. Ba esne saltzen asi gintzen areñe eta gero ak sertu unien, one pa suegroa Askarrekoa, Benitto sarra eta Bixenti Barinaga, Batixkoak et'one letxeru asi sien gero emen. Da artien, emen Fruisti, Silberio defuntue t'orrek e... ibil sien.

(...) Arto-iñddabiek beti asko eñ ddeu emen. Arto-iñddabiek e..., gerra denporan be, oñ esetu estana eitte uen emen: Bostun peseta orduen anegiek, artoak eta... Ordureko bostun peseta anegie, laba igerra, terriblie san! Aaittik ganadure baño, iñddaba-artora ta jentiek eitte uen orduen.

Da sesiñe be lenau ba..., beti illtte san emen. Urtaro, urtaro nire txiki denporan. Gero, sesiñe illttie itxi ....?....

(...) Biximodue lenau ataten san, aldean, olloan arrutzekas, nie txiki denporan. Olloa pa..., ogei dosena edo amar dosena edo amairu dosena edo... plasara ama defuntiek eroan beti. Da umieri andik ekarri erropak dxasteko ta bakotxak bere ....?.... Gero, esne saltzie (e)tor san, esne saltzetxue, baia orduen e... ba..., arrutziek eta olloak asko eitte uen. Da asko emote uen. Da gero, ser pase san orrekas be? Onek lukidzek eta urten dien, da kanpo librieoak, danak orrek dxan eta desapaesidu en sien olloak eta gero granjak imitten asi sien... Jente gustidxe!

(...) Eta aldea ba... galtzien dxoan da. Galtzien dxoan da. Da galdu eiñ dde dana! Se esteu..., txikerrantzako ayuderik estau oin be, andidxentzako baiño. D'emen on dan a... esplotasiñoa ba... esku biarra. Suen aittek ondo daki. Maintxu biar eiñ ddeu suen aittepe. One danak ididzekas labretan txusen suen aittek.

(...) Lenau basoatan aspigarridxe be. Oin basori pe esta esistidu be (e)itten. Et'orduén, basoatan erosi aspigarridzek eta ganadueri... Ta labasuek eitteko, etzien espadau labasuek eitteko be, labaotie be (e)rosi eta labasuek eñ eta..., biximodu latzak! Latzak lenaukoak ixen sien. Oingoa ukusidxe.

## SORGIÑEK TXARRI FORMAN

Lenau sestoagas bedarretan dxoate san. Au de serrie lenaukoa (*Eskuan daukan bat erakusten deust*). Lenau onexegas serriegas ebaitte san bedarra. Gero, kodañiek urte uen. D'oñ makiñiek. Eta onekas serrakas dxoate san ara, tallerire ixena dekona ba... bedarretan. Bedarra, saankadak ebaitte.

Biar eiñdde illunditxuen, esan itzien e...:» Peulino!» Bestaldien sera ta... «Peulino!» Ta ser da? «Ekarxu a serien dauen, tallerin, saankada bedarra ebaitte dauena» Illundidxen.

Dxoan san da koño! Sarankada bedarran bille doala, txarritxu (b)et ikus deu. Da «koño, amen txarridxe politte. Guk etzien esteku te. Auxe (e)ran biot». Eta asi de fiñien koixten bertan. Ta «RAS!», besto (b)at alboan plante dako. Beste txarritxu (b)et. D'a koixten gero asi da. A lelangokoa ixin koixu ixen deu te! A albokoa. Ta besto bat! T»Ene! Ai! Auxe da makaltxue t'au!» Ta «RAST», atzien beste bat! D'orduén buruek emontzo «onek sorgiñek edo lamiñek, lenau esaten tziena tie antza!» Da artu sarankadie ta etzera etorri isen, bertan itxi lau txarridzek eta.

## JAINKOA DAUENAREN EJENPLUE

(...) Kodañieas arridxe (e)moten ibilli olantxe. Eta arridxe, sorrostarridxe, bera dxeusi. D'olan aittute, ixiiñ ikusi. «Ixiñ ikusi? Topeko tzut Jangoi-koak gure (e)spadeu be!» Esauen(e)la, «topeko tzut», se onaxe dxeusi de ta!

D'asi, da sorrostarridxe ixiiñ iñondik iñora topeu! Makurtu d'erpiekas atara bedarra buelta gustidxen. D'iñon ixin sorrostarridxe topeu. Altzeu, da Jainkoari parka eskatu tzela d'erreseu. «Esan tzut baia damutute nau. Da nik ixiiñ ddot topeu te topeu en biot» Alan sertu sala ta... Sorrostarridxe beran pare-parien beyen atzera agertu!



23	BARRI-EMOLEA: <b>Migel Etxebarria Bastarretxea</b>
	JAIOTURTEA: 1920                      LANBIDEA: Nekazaria/Errotaria
	AUZOA: Gomoa baserria

## ERROTAK

Au andaparie beteri tauenien, ameti txiploitti, erreubeda taus an barruen e..., ameko uren iñderraas ibillteteo, artoa (e)idxoteko. Da kaltzak palakas atara. Da atara beti ibil gara. Da artoa (e)idxoteko, len esan tzutena, auxe beterik (e)on bideu. Andapariek eon bideu beterik. Se ameko iñderraas, ameko uren iñderraas dabixus orrek e... erreubedak. Ure betei tauenien. Estauenien bapes.

Presan dau ba sera..., bentanie. Presie idi eitteko. Kaltzak ataa gudanien, ur barik. A utzittu eitten da. Da gero, one teko, uridxola andidxe datosenien, aandik ola ara bera dxoateko. Kendu a ola gora da urek eitten de... andi pera bota se..., amen lar datorrenien.



*(Da selangoa da errota barruko erremiñteridxe? -itauntzen deutso)* Palakas daus orrek. Alako tubotxueas bakarri tabille orrek. Da arei tuboari sera..., errotak lotzeko, katieas imitten dakie ixitte. Da ortxe lotzen da ure gero. Gero, asi bidanien, are solteute arridxe mobiten die.

*(Selan piketan sien arridxe? -itauntzen deutso)* Dau..., malluek..., abo bi dekiesenak edo ser bi dekiesenak. Sorrotzak! Bidxetara. Baia bateas eitten da. «Txart, txart», da amustuten danien, arridxe piketan da au eittieles. Amen dxotieles... «txart, txart, txart...», pikeu. Dana ein barik, saltora, saltotxure eitten da. Da espantxue atara. Da gero eitten dako erraidxie ameti bota deidxen e... artoa (?), urune bota deidxen. Libre deidxen. Kanala tekos. Da besterik esteko. Aixie pikeute, andik kanaletik eitten deus... Au deu leixue, da leixuen dabideu baia amen deko bittartie askara botateko.

Da artoa botaten da goiko kaixatxure, da andik paestan da serera... erro-tako arrire. A betetan dako goidxen da errotako arrire paestan da. (*Selan? -itauntzen deutsot*) Errotako arridzek e... bera dabill bueltaka ta berak artzen deu meidie. Baia meidie norberak imitten dako. Edo gidxau idxo-teko edo... Da sera..., ogoto eidxoteko gitxiau. Asko botaten batzesu, ligor ixten deu. Xeeau, xeeau eitteko, sera... altzeu eitten da tornue edo bajetu, bajetu. Da bajetan danien, dxoten deu arridzek beye gidxau. Larri igual.

(...) (*Selan eitte sien paguek? -itauntzen deutsot*) Ekarten basiñun e..., anegieri... bos killo kentzen gendusen orduen. Bos killo mendie. Baia geur, oñ amar be bai, igual. Idxe (e)itten deu eurki. Amar be. Baia orduen bos-seidxen ibil sen. Anegieri kendu. Anegieri kendute imitten tzesun eroan bideuenari.

(*Eta estau beste erremiñterik errota barruen? -itauntzen deutsot*) Txo-ridxe deko beyen, errubedan, errubedako... aulango sera deko, auri baki-xu auri. Piesie. Da beyen deko errubedie bueltaka. Da an errubedan deko alango piesie ta txoridxe deko goidxen. A txoridxe tabideu bueltaka. Txo-ridxe ba... olango ba... esate bateako bolatxue, burdiñesko bola tie orrek. Bolak. Eta aren txoidxen ganien dabill.

## SESTERUEK

Ba... sesteruek eitte uen lenau... Gastañe serak, erremak edo serak..., selan esate (e)den? Sirpidzek edo arek! ....?.... edo estai nik selan esaten tzien ixena. Da arek imiñten txuesan beratuten sera..., posoan. Da eukit-ten txuesan an e... posoa kargeute. Ta andi kastetan seuen sera, an imiñi-ko arek serak..., sestoak eitteko egurrok. Da gero, paetan sien aulan e... simintzek atateko. Dxesarritte aulango, onexen altureko ser bat eukitte seuen. Da aulango matxetaas atate seuen e... simintzek. Ta gero, sillek eta sestoak eitten txusen arekas simintzekas.

24	BARRI-EMOLEA: <b>Mikaela Muruaga Oar</b>
	JAIOTURTEA: 1906                      LANBIDEA: Nekazaria/Etxeko lanak
	AUZOA: Lomerika baserria / Bermio / Fruizko kaskua

### SA(N) MIELEKO ERREMINTTIE

Sa(n) Mielen e..., etze bat eon isen. Etze sartxu bet. Eta es isen beste etzerik i..., Lesamixera artien edo orra artien egon. Da sar bi egon isien. Da geu beten e... bid-xek illdde, alkarran ganien topeu itxuesan. Ori be entzutie dekot. Sarrak esanda. Alkarran ganien. Eta olloak, euki txuesanak danak a... gosieas beko Lesamixeantza. D'orduen topeu itxuesan, alkarran ganien. Gero, erremiñttie (e)in i... Orreatti dauela Sa(n) Miel. Lapur bi ixen isien da Sierren edo etzie. Da baten etorritte, (e)sin topeu te... Olako bastoien moduko bat sartu galtzu artetan da, an tope txuesela. Ori be sarrak esanekoa.



### KONFESEU BIARRAK!

Bermiora dxoan. Da antzarrak a... Solluben, antzar itzelak! Eta bat koidxu en bidule. Da koidxu nik eta beste batek. Eta aah! «oin se (e)ingo tzeku, se (e)ingo tzeku». Atxiñe gomari pes. Oin goma taus ba. Da alako bat solteu da giñerra bateri amarreu. Da gebonak sien da, amamari tte geusek eroaten. Amama euki uen bestiek e..., Sierrekoa san da, Mundekan. Da urrungo egunien, geubien e..., edo orduen egun beratan a... euri (i)tzeklak eñ. D'apurtu a giñerrie da bidien troka baten tope gendun.

Abadieri konfeseu biar ba! «Su es dxoan areñe abadieñe gero!» Da ni gasetxuau. Da agirika niri arek! «Areñe abadieñe dxoateko nas». Bidxo pateri konfeseu biar. Da ni pe beste abadieñe dxoan gures. Atxiñe A(e)maidxek eon sien da Don Pedro apur bet okertxuaua. Da ni Don Lusianoañe. Ni pe gure. Da dxoakeran esaosten: «Kuidau gero, areas es konfeseu. Neuk enbiot eta». Da ni beraas konfeseu. Kanpora urten (n)uenien e... plastada bat emon dosten. Aregas estekotela... setan eñik euki!

25	BARRI-EMOLEA: <b>Maria Andikoetxea Uriarte</b>	
	JAIOTURTEA: 1913	LANBIDEA: Nekazaria/Etxeko lanak
	AUZOA: Eleizaldea	



### SESTERU BIARRA

(...) Basora dxoan da egurrek ekarri, gastañek ekarri. Gastañe tronkoak ekarri..., aulako tronkoa patze txuesan. Aurren paluen lodidxeakoak edo. Biribillien. Olakoxiek ekarte txusen basoti eta gero berotu. Surten, sue (e)ñ beyen da berotu. Da gero, oniño kutxillek estaitt estekoasela kamaotien..., gero eitte uen, aolako ser bat eken

e..., mai bet imiñtteko. Da imiñtte uen olan maidxen da surittu. Surittute txusenien, gero astilletu. Olan eitte tzesan astillek. Astillek eiñ..., da gero eitte uen ba..., sestoa eitten. Gero sestoa. Sestoa eitte san... (**Esiñ beratu - ten imitten? -itauntzen deutso!**) Ba bai, beratu..., lelango berotu. Berotan eittes(i)txusen astillek eiñ, dde surittu, te me, me, me imiñi. Me, me, me, me. Berotan eitten da ondoen. (**Uretan edo? -itauntzen deutso!**) Es, es! Surten. Surten berotute(n) txusen.

Geo olan eitte uen, listoie eitte uenien... Iru listoi imittes(i)txusen. Edo lau. Imittes(i)txusen olan da kurtzie (e)ñ. Arekiñ listoiekiñ kurtzie (e)ñ, eperdidxe (e)ñ artien. Eperdidxe (e)itte sanien, ba... sabaldute uen olan, olan da... Altzetas(i)txusen gora listoiek. Listoie kora. Da gero, listoie parridxen bete, osta(be) barridxen. Ba..., eperdidxen doasen listoiek eroan bitxus goraiño e! Da bete arek. Are pete eta palue..., beste erredondoa imiñtte uen. Imiñi ganien da, eiñ astatxuek da... efetibo eiñdde!

26	BARRI-EMOLEA: <b>Pili Legarreta Goikoetxea</b>
	JAIOTURTEA: 1910      LANBIDEA: Nekazaria/Etxeko lanak
	AUZOA: Eleizaldea

## OGI SURIDXEK

(...) Iños, iños en gendun emen , gerra ostien ba..., ogidxe be. Amen Errotabarrin on san aproposko errotie..., eid-xotekoa orrek. Da eidxo eta eskendules ogirik okitten geustana baiño, baltza baiño..., ta bera be razionamientuen..., da etzien eitten gendusen ogidxe. Eder-rak!



*(Selan eitten senduesan? -itauntzen deutos)* Ba urune..., baye apartekoa okitte gedun e... eralgitteko. Da aspirie, olakoa..., edoseñek euki uen aspirie. Da eralgi eta bota lebadurie. Baten ondo urtetan batzu, urrungorako ba..., beres dakixu a semet ingerutxu bota biotzesun. Da eiñ, dde igurdi ondo. Da apur baten e..., aspiren bertan iste sien. Olan igurdi. Ogi suri-suridxe! Gosoa e! Eta igurditte itxi, da igertan dakonien apurtxu (b)et altzetan doala lebadurie, ba orduen eitten gentzon ba bera ogidxe eingo dan tamañuko alango marapillotxuek. Bolatxuek eiñ. Da mai baten ganien trapu bet e..., garbi bet imiñi, da antxe ganien imiñi. Amar, amabi edo amalau edo. Ba..., dekien beste. Eta..., eiñ e..., ogidxe ariñ erreta sien e!  
*(Senbat denporan eukitten sien laba barruen? -itauntzen deutos)* Ba ogidxe igual e... ordu erdi. Edo ordu bete altuena. Se .....?..... eitten danien e..., ondoan esiñ egote san e! Da dana..., brasak kendue gero be, bero oten san. Ketan!

## SAN JUANANATAKO USADIXOAK ETA ABADIE

(...) San Juanatan irek useta sien, da kurtzie esto..., se (e)saten dako?... leixarra, leixarra! Kurtzie imiñitte ta..., soloatan kurtzie ta ortuen da danien. Da baten diñotzo Don Jabierrek (*Orduko abadeak*), gu ondo eroaten gintzesan beragas, eta diñotzo: «Anastasio» ta «Ser?» Ba... «Geuse bat estosu eiñ». «Ser estot ein ba Jabier ba?». Ba..., «Emen etzurrien ire piar ixen dire». Da gure Anastasiok «Bai, ori edarto dau Jabier. Baia lenau Pruixera... Aamen ote san arkue, eiñdde. Lore (e)darrakas da jenero edarrakas. Eta erresaridhoa erresetan ba..., erresaidxoko domekan eta Gorpusti egunien, ba... an plasan be, garajien ondoan imiñdde oten san sera..., ba mai bet. Seiñ dde altarien moduen.» Eta diñotzo Jabierrei: «Lenau aamen eoten san Jabier... aulako arku edarra da kantu edarrakas dxoate sien orti bera...» Ta beak e..., doala, ori esto kure dxakiñ esatieles.

## SANTIETUE

Ba olan..., suk emen dekosu esate baterako ba korridu esiñe. Edo trokosoie eiñ ddosulako edo... «Ba neuk emongo neskixu santietu. Ori ense-gida dau paseta ba!». «Bueno ba, eixtesu ba.» Eta olantxe: kaltzardi bet, lodidxe ixetan san, orduen..., lodidxe edo one paiño lodidxauak. Da olan eitte uen:

«Santietun, san urrutu. Sana beran lekuen sartu»

Da an bakotxeko..., esaten deuen bakotxien ori iru bider, aridxe..., ba olan imiñi galtzardidxe da tromil barik... paso. (...) Tromil bari paseu. Da gero, oridxo epelagas, aulan igusi de, «Santo remedio!».

27	BARRI-EMOLEA: <b>Jospin Galdona Bilbao</b>
	JAIOTURTEA: 1919                      LANBIDEA: Etxeko lanak/Sukaldaria
	AUZOA: Andeko / Bermio (42 urtean)

## BEGIXKOANA

Ume koitteduek arnasaik artu esiñik eta serien... Eta karo, etzien e..., baxotxat gixeta uen dxakin ser dekon. Da eroaten tzien andra bateri. Da ak andriek aixe eitte uen. (*Dakidxen bategañe? -itaun-tzen deutsot*) Bai, andra bategañe. Begiskoana eitten deuenagañe. Nik estai pa se ixena..., se esate tzien areri. Eta eroate situsen. Eroate gendun. Neu pe eroan (n)uen baten e! Eroan nuen umie da imi uen sartenien urtuten plomoa. D'urtu palanganana bete ur, da a urtu senien ei tzesan umieri kurtziek. Ein kurtziek da bota uen e...,iru bider eitten da ori e! Iru bider eiñ eta bota seera..., palanganako uretara. D'antxe urtetan deu aulako moltzo batek, amukoan moduen moltzo batek. Da an moltzoan urtetan dede... bidxotzak eta... orratzak moduen, espatak edo estai pa nik, an sartute. Dekonari sartute, olan eskiñetati bidxotzien eta bestie... urtetan deu seiñ dde, saborreidxe selan ekarten deu uridxoliek (g)anien? Axen moduen. (*Eser estekonari? -itauntzen deutsot*) Dekonari, dekonari. Estekonari garbi urtetan tzo. Estekonari eserbes da dekonari, aixek orratzak sartute eta aixe saborrie ganien.

Iru egunetan eroate san orregaiñe andrieañe. Iru egunetan segiduen. Iru urrena. Eta gero, aixek eiñdde, kentziekoea basan kentzie san. Aexek eiñdde.



## SORGIÑEK TXIMIÑITTIK GORA

Selan asko natzu ba? Apaidxe dxanda dxoate siela seretik..., eskoban pareute «Sasi gustidxen ganeti tt'odei gustidxen aspitti» esanda? Da dxoate

sien andi gora, seeti (tximiñittik) gora. Da baten, bateri... beste (b)at egon e..., entzuten se eitten deuen. Bestaldekoa edo. Eta astu se esan deuen. Se (e)san deuen astu de okerretara esan: «Sasi gustidxen aspitti d'odei gustid-xen ganeti». Da dana urrutute urrungo goixien e... agertu sala gixona. Da, «Nondik ibilli as?». Da, «Aa, txarto entzun eskerro, aulan ibil bida» esatze-la.

## SALUTADORIEK

Saspigarren semie ixen bideu. Esteu balidxo gero bittartien neskatorik badau e! Ixen bideu..., danak mutillek da saspigarren semie ixetan dala salutorie. D'arek eitte sebela ba... oridxo irikitten imiñi eta geixoak osatuteko sartu erkerora, eskoako erkerora serien... (oridxotan) eta kurtziek eiñ de osatuten seuela esate sien. (*Salutadore orrek eseren eser eukitten gor-putzien? -itauntzen deutosot*) Bai..., eskuen edo..., kadaran edo. Kadaraspidxen pentzetan dot. Da miñien kurtzie.

Ume geixoak osatuteko doidxe okitte (e)den. (*Da beste doirik? -itauntzen deutosot*) Da..., putz eiñdde labasue amatetako. Ori entzut tzet aitteri, bai.

## LEXIBIE

Errandonie euki uen ixena serak..., erropak beratuten imitten sittuesenak. D'imiñi arek e..., plegan danak. Martxan. Eta botate tzien: lelengo ur epela, gero beroa, gero goridxe eta akabukoa arrabidxedue. Surteko eutzegas egosi de botate tzien. Arpilerie imiñi areri errandonieri ganien...

(*Ser da arpilerie? -itauntzen deutosot*) Ori de..., alango saku..., asukera saku bet. Askatu eta..., seiñ dde pasadora ixetie les. Iristekoa ixetie les. Andixik paseute..., eutze pase estakidxen erropari.

Areas labantasuneas, kadarakas gero..., sakatute garbittu bertan kanpoan. (*Eta ariñau dxagonetan? -itauntzen deutosot*) Esebes. Aixe. Alantxe. Da gero ba..., txarto dauena, igurdi eskuen. Da gero errekan paseu. Errekara eroan, artu buruen da. Asau dekonak errekie ba..., asau. D'urrien dekonak, urrien. Guk Goman urrien euki gendules...

(*Errandonie zer dan barrero azaltzeko eskatu deutosot*) Errandonie da sutien barruen, lurren barruen oten dan tiñekue edo geuse bat. Errandonie ixena dekona. D'ote san a..., tapeute olagas. D'an imitte sittuesan erropak. Altzeu a tapie, d'erropak sartu. Lelengo loidxenak eta gero ba..., dato

rrren moduen geusie. Eta bota ara..., lelengo eitte s(i)ttuesan..., ur epela, gero beroa, goridxe eta arrabidxadue. Listo. Kadarakas sakatu danien, danien eta gero, an loirik edo ser topetan batzien, ba eskuekas eitteko moduen.

(*Ur «arrabidxadue» zer dan azaltzeko eskatu deutso!*) Ur arrabidxadue da..., irikiñe baiño seraua..., gogorra! (*Eta surteko eutze...? -itauntzen deutso!*) Surteko eutze, andik arpileratik pase. Arpileratxue imiñi sakuskoa, sakuskoak eitte sien orrek arpilerak, eta andik irikitten bota. Orixe surteko eutze eitten dana da arrabidxedue e! Surteko eutze egosi eta andi bota. A eutze ixeta san arta-egurren eutze. Arta-egurre.

## ERREGETERAK ETA PASIGAK

Gerra eurrien saltzien dxoan Mugidzeko plasara. D'ote san ba... sera, seladorie edo esate tziena. Aduanie kobretako. Aduanie page biar ixeta san plasan sartzeko. Da a pageu, txakur andidxe edo txakur txikidxe, da dxoate sien plasara. Plasan saldu. Sartu, seure lekuen pare, lekurik esan oten baa oten dan lekuen, eta etorten dxatzun erregaterie erosten. Edo erregeterak. Askok. Da arek saldu. Orduen olan ixeta san, eurrien (*Gerra aurean*).

Da gero, ostien en bes de nobera saltzien dxoan, eurek erregeterak edo, erregeterak estiena pe asko, da bakotxa etzerako erosten. Arek eroste eden...: hasi esnie, iñddabie, artoa, urune eta garidxe be bardin. Iños garidxe, ekarri eñ ddoakuen guri errotara saltzien erregeterak e! Aitteri ekarri, tte edxo ta... eroan eurek. (*Dirueas pagetan san? -itauntzen deutso!*) Oñ, gerra ostekoa, ori, diruas pageta seden. Oñ seuk gure..., eskauten batzesu «Au ekarristesu, ori ekarristesu», se noberak eseuen okitten orduen e..., edoser esan egoten... Gure amak eitte tzen kafeittik, asukeriegeittik... eta garbantzue pe bardiñ. Berton estauen geusie. Edo arrosa! Orrekaitti eitten sittuen trukiek. D'alaba (a)sko euki ueles, ixeratxuekaitti be bai. Ixerak, sobrekamak, mantak nai edoser.

(*Lehentxoago, beragaz berbetan nagoala, PASIGAK aitatu deustaz. Zer diran itauntzen deutso!*) Orrek bestiek pasigak ixen sien. Orrek gerra eurreko serak ixen sien. Gerra eurrekoak. Orrek, Santander aldekoak edo ortikoak ixen sien. Orrek eitte (e)den ba..., ekarte seden aridxe, dxostorrotzak, buruko (o)rrotzak eta olako geusek. Eta erosi eitte (e)den eurek..., trapu sarrak, galtzardi sarrak eta serak... Da aren truke ba..., edo dxostorros bat, edo buruko (o)rrotzak, edo orretaiko geusek.